Goienkaria

2009ko irailaren 25a > Egubakoitza > VIII. urtea > 390. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Udal bakoitzak erabakiko du zaborra batzeko sistema egokiena zein den"

Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko foru diputatuta > 09

ARRASATE Bost tabernatan izan dira ertzainak presoen argazkiak kentzen > 16

BERGARA Genero desberdintasunak ekiditeko plana egingo du Udalak > 19

JAIAK Sanmigelak aste bukaeran Oñatin eta Aretxabaletan > 26 eta 27

KIROLA Everesteko gailurra zapaltzea esperu du Iñurrategik etzi > 35

INGURUMENA > BIRZIKLATZEA

Edukiontzi horia hobeto erabiltzea sarituko dute

HIRU MOTATAKOAK Plastikozko, metalezko eta brik motako etxeko ontziak bota behar dira edukiontzi horira

KANPAINA Mankomunitateak kanpaina egingo du ohiturak aldatzeko, eta 400 euroko sariak zozkatuko ditu > 02-03

POLITIKA > OMENALDIA

Pakito Arriaran omenduko dute bihar

Irailaren 30ean, 25 urte beteko dira Pakito Arriaran arrasatearra El Salvadorren hil zutela, eta haren omenez hainbat ekitaldi egingo dituzte bihar, zapatua, Arrasaten. Askapena eta El Salvador Bihotzean elkarteak arduratu dira ekitaldi sorta antolatzeaz. Gilverto Rivera Mejia El Salvadorko hauteskundeak irabazi berri dituen FSLN alderdiko diputatuak ere hartuko du parte > 05

JENDARTEA > OMENALDIA

Milizianoei eta gudariei omenaldia Elgetan

Intxortako Atean egingo dute ekitaldia, urriaren 4an, eta gogoratuko dute ideologia askotariko batailoiak osatzen zituzten boluntario gazteek 1936ko urriaren 4tik 1937ko apirilaren 24ra arte Bizkaira bidean ziren Mola jeneralaren indar erreboltariak gelditu egin zituztela. Ordutik hona 73 urte pasa dira, eta salatuko dute fusilatutakoen eta desagertutakoen errolda ofizialik ez dagoela. > 06

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-07
Iritzia > 08
Elkarrizketa > 09
Gutunak > 10
Herriak > 13-33
Kirola > 34-36
Kultura > 38-39
Sailkatuak > 40
Gazteak > 42
Telebista-Irratia > 43
Zerbitzuak > 44
Berri-zakua > 45
Eskelak > 45
Non-zer > 46-47

ARAMAIO > ONDAREA

Bisita gidatu antzeztuak Aramaion

XV. mendean herria nolakoa zen ezagutzera emateko egingo dituzte; lehena domekan izango da > 32

ARTZAINAK Urtzelai, Arregi, Bengoa, Iturbe eta Plazaola, artzainaren omenezko monumentuan. MIREIA BIKUÑA

Artzain-txakur trebeenak etzi Oñatin

G2a

Oñatiko nazioarteko artzain-txakur txapelketak 50. aldia beteko du domekan. Urtemuga berezi hori ospatzeko, omenaldia egingo diete urteotako txapeldunei, Santa Lutziako zelaian, 10:30ean. Aurtengo txapelketari dagokionez, 12 txakur lehiatuko dira, tartean azken lau aldietan garaile izan den *Bizkor* txakurra, Ilarduiako (Araba) Jose Mari Jauregiren aginduetara. > 37-38

INGURUMENA > BIRZIKLATZEA

Horira botatzearren, 400 e

Edukiontzi HORIRA bota behar direnak: Plastikozko botilak (ura, freskagarriak, esnea...) • Garbitzeko produktuen ontziak (xaboia, xanpua, lixiba...) • Janari-ontziak (bandejak, terrinak, jogurt-ontziak...)

EDUKIONTZI HORIA Etxeko ontziak batzeko edukiontzia zelan erabili argituko du Mankomunitateak informazio-kanpaina baten

ZOZKETA Eskuorriak eta inkesta-orriak banatuko dituzte etxe guztietan, eta inkesta zuzen betez gero, 400 euro eskura daitezke

INTERNETEN ERE BAI Mankomunitatearen webgunean dago informazio osoa eta inkesta betetzeko aukera ere: 'www.debagoiena.com'

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Edukiontzi horia deitzen diogu-na, etxeko ontziak botatzekoa, ohiko bihurtu da gure herriotako paisajean: izan ere, hamar urte daramatza kaleetan. Hain ohiko ez dena hura erabiltzea da: hala, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen batzordearen datuen arabera, Debagoienean, plastikozko, metalezko eta brik ontzien %19 bakarrik botatzen ditugu edukiontzian.

Bada, horri buelta emateko, *Ontziek bizitza luzea dute* leloa duen kanpaina aurkeztu du Mankomunitateak oraingo astean. Helburua da "debagoiendarrak birziklatzearen garrantziaz kontzientziatzea eta, bereziki, edukiontzi horietara botatzen diren ontzien kalitatea handitzea eta kalitatea hobetzea", kanpainaren arduradunen esanetan.

Kanpainari erakargarritasuna emateko, gainera, diru-sariak banatuko ditu Mankomunitateak. Horretarako, etxerik etxe banatuko duten –eta beste leku askotan zein Interneten eskuragarri dagoen– inkesta bat bete eta entregatu egin behar da. Norbanako eta irabazi asmorik gabeko elkarteek parte har dezakete, bakoitzak inkesta bat beteta, gehienez ere. Galderak ondo erantzunez gero, 400 euroko hiru sariren zozketan sartuko dira. GOITBk ere tarte bat izango du kanpainarendako, *Goiena magazinea* saioan, eta tarte bakoitzean 200 euroko sariak banatuko dira.

ESKUORRIAK ETXE GUZTIETARA

Arazoa ez da debagoiendarrok ez dugunik birziklatzeko kontzientzia. Hala, bailarakook beirazko hondakinen %70 botatzen ditugu beiraren edukiontzira eta paper eta kartoiaren %57 dagokien edukiontzira. Kopuru on horien parean, edukiontzi horiaren erabilpen kopuruak txikiak dira Gipuzkoa osoan –13 kilo hondakin batzen dira biztanleko eta urteko–, eta are txikiagoak Debagoienean –10 kilo biztanleko eta urteko. Horrez gain, "botatzen dena ondo botatzen da", diote Mankomunitateko arduradunek. Jose Mari Iturbe Ingurumen batzordekideak dioenez, "beharbada, jendeak ez du etxean ontziak sailkatzeko eta birziklatzera botatzeko ohiturarik. Gainera, batzuetan oso garbi dago ontzi bat edukiontzi horirako dela, baina, beste batzuetan, zalantza sortzen da, eta, horren aurrean, zabor poltsara botatzen da ontzia".

Kanpaina, berez, irailaren 28an hasiko da. Zalantza guztiak argitzeko, Debagoieneko Mankomunitateak bailarako etxe guztietan eskuorri bat banatuko du, inkesta-orri batekin: denetara, 25.000 eskuorri eta inkesta, euskaraz eta espainolez. Eskuorri horretan zehazten da edukiontzi horira zer bota behar den eta zer ez; gauzak behar bezala botatzeko zer gogoratu behar den; eta birziklatutako ontziekin zer egiten den. "Adibidez, 40 plastikozko botilarekin forru polar bat egin daiteke", esan zuen kanpaina egin duen Arteman komunikazio enpresako Arantzazu Lagunillak kanpainaren aurkezpen prentsaurrekoan.



> **ZOZKETA** Etxe guztietan banatuko den inkesta bete eta horretarako ipiniko dituzten postontzietan sartuz gero, 400 euroko hiru sariren zozketan sartzen da norbera.

Debagoienean bizi diren eta 18 urte edo gehiago duten norbanakoek eta irabazi asmorik gabeko elkarteek parte har dezakete. Norbaitek inkesta ez badu jasotzen, postontziak dauden lekuetan inkesta-orriak utziko ditu Mankomunitateak.

Horrekin batera, Interneten dagoeneko badago informazio osoa, eta baita inkesta betetzeko aukera ere, Mankomunitateko webgunean: *www.debagoiena.com/Birziklapen_kanpaina/SARRERA*. Azkenik, telebistan iragarkiak emango dituzte, eta *Goiena magazinea* saioan ere tarte berezia izango du kanpainak. Egun jakin batzuetan lehiaketa egingo da, eta 200 euro banatuko dira saritan saio bakoitzean.

Inkestari dagokionez, "galdera guztien erantzuna eskuorrian dago, jendeak irakur dezan nahi delako", azaldu zuen Arantzazu Lagunillak. Behin inkestako bederatzi galderak erantzunda, norbere datuak ere bete eta postontzi hori batera bota behar da orria; postontziak herri bakoitzeko udaletxeetan, Mankomunitatearen egoitzan (Nafarroa Etorbidea, 17, Arrasate) eta beste leku batzuetan –kasuan kasu, kultura etxean, gizarte etxean...– ipiniko dituzte kanpaina hasi eta hurrengo astean, eta urriaren 20ra arte izango dira han. Zozketa urriaren 27an egingo dute Mankomunitatearen egoitzan, jendaurreko ekitaldi baten.

Bestalde, Mankomunitatearen webgunean ere bete daiteke inkesta. Lehiaketan parte har dezakete Debagoienean bizi diren 18 urtetik gorako norbanakoek eta irabazi asmorik gabeko elkarteek, eta parte-hartzaile bakoitzari inkesta bakarra hartuko zaio kontuan.

ZER BOTA ETA ZER EZ

Edukiontzi horiak hiru motatako lehengaiak hartzeko balio du: plastikoa, metala eta brika. Horrenbestez, eskuorriak dioen moduan, honakoak bota behar dira edukiontzi horretara: plastikozko botilak eta bilgarriak (ura, freskagarriak, esnea...); garbitzeko produktuen ontziak (xaboia, xanpua, leungarria, lixiba...); latak (kontserbak, freskagarriak...); aluminiozko erretiluak (bandejak) edo platerak; aerosolak (lakak eta antzeko esprai poteak); metalezko tapoiak eta botiletakoak, metalezko poteak; eta brik ontziak.

Orain hainbat denda-kate baztertzen dabiltzan plastikozko poltsak ere bota daitezke edukiontzi horira. Beste askok zabor-poltsa gisa erabiltzen dute, eta, Mankomunitateko Ingurumen teknikari Kristina Iraolagoitiak dioen moduan, "hori ere egin daiteke, zaborretarako egiten diren zakuak ere plastikozkoak direlako". Hala ere, poltsak botatzen badira, zelan egin kontuz ibili behar gara: "Poltsak erabiltzen badira edukiontzi horira botatzeko poteak eta bestelakoak batzeko, botatzerako orduan lehenengo batutakoa bota behar da, eta gero, poltsa. Ez da bota behar dena

Zabor-poltsara bota genuena 2008an

Oraindik ere, zabor-poltsara botatzen ditugu hondakin gehienak Debagoienean. Materia organikoa botatzen dugu gehien: zabor-poltsaren erdia baino gehiago. Horri irtenbidea eman nahi zaio Aretxabaletan probatzen dabiltzan edukiontzi marroiekin eta Mankomunitatea aztertzen dabilen etxerik etxeko bilketa sistemarekin. Bestalde, poltsara doaz ere plastikozko ontzien ia %15.

	Poltsaren %	Tonak
Materia organiko ustelkorra	41,91	7.692
Materia organiko biodegradagarria	18,82	3.454
Papera eta kartoia	13,83	2.538
Beira	5,6	1.028
Plastikozko ontziak	10,04	1.843
Plastikozkoak ez diren ontziak	4,91	901
Bestelakoak	2,98	547
Etxeko hondakin arriskutsuak	0,55	101
Bolumen handikoak	0,47	86
Inerteak	0,85	156
GUZTIRA	**100**	**18.354**

Iturria: Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Batzordea. 2008ko datuak.

DATUA

%19

BOTATZEN DA ONTZI HORIRA

Debagoieneko etxeetan, edukiontzi horira joan beharko luketen ontzi edo materialen %19 doaz bakarrik hara. Erabilpen-maila zertxobait handiagoa, baina oso antzekoa da Gipuzkoa osorako.

175

EDUKIONTZI HORI

Etxean erabilitako ontziak batzeko edukiontzi horiak 1999. urtean ipini zituzten Debagoienean. 175 daude bailara osoan, bat 357 biztanleko.

Pedro Lasagabaster eta Jose Mari Iturbe, edukiontzi horiaren parean. L. KORTABARRIA

uroko sariak

• Plastikozko poltsak • Plastikozko bilgarriak (magdalenak, gailetak...) • Latak • Aluminiozko bandejak edo platerak • Aerosolak (lakak, spray-ak...) • Metalezko tapoiak eta botiletakoak • Brik ontziak

poltsan sartuta, eta are gutxiago poltsa lotuta". Badaude beste ohar batzuk ere: poteak ondo hustu behar dira, usain txarrak saihesteko; eta, hondakinok tolesten badira, leku txikiagoa hartzen dute edukiontzian. Ohar horiek guztiak eskuorriak batzen ditu.

Zer ez den bota behar ere zehazten du eskuorriak: CD eta VHSak; gomazko eskularru edo jostailuak; esekigailuak, oinetakoak eta arropak; pixoihalak edo baxerak; etxetresna elektriko txikiak; papera eta kartoia; eta beira. Horietako bakoitzak badauka non bota: batzuk, Puntu Berde Mugikorrean edo garbiguneetan; beste batzuk, edukiontzi berdean (beira), zurian (ehunak eta zapatak) edo urdinean (papera eta kartoia).

FORRU POLARRAK EGITEN DIRA

Edukiontziak hustu ondoren, bota dugun hondakin mota bakoitzak bide bat jarraitzen du. Edukiontzi horiaren kasuan, hiru lehengai mota batzen dira. Horiek Legazpira eramaten dira, sailkapen-egoitza batera. Kristina Iraolagoitiak azaltzen digu zehatzmehatz zer egiten den ondoren: "Plastiko mota desberdinak bereizten dira; nahastuta badaude, badago nahasketa gisa tratatzeko aukera. Horiek euren birziklatze-lantegira eramaten dira. Brikaren kasuan, kartoia, aluminioa eta plastikoa izaten dute, eta gauza bakoitza aprobetxatzen da. Azkenik, metala galdategietara etara eramaten da". Material horiek zelan aprobetxatzen diren gero ez da oso gauza jakina, baina eskuorriak esaten digu: plastikoa forru polarrak, hiri-altzariak, ontziak, poltsak... egiteko erabiltzen da; metala, etxeko tresna elektrikoak, ihes-hodiak, bizikletak, latak... egiteko; eta brik ontziak, kartoizko arrautza-ontziak, kutxak, poltsak edo kartoizko zakuak egiteko.

Beiraren edo paper eta kartoiaren kasuan, zertarako erabiltzen den ez du misterio handirik; Puntu Berde Mugikorrean edo Arrasateko olio-edukiontzian batzen den etxeko olioa biodiesela egiteko erabiltzen da; eta Aretxabaletako materia organikoarekin konposta egiten da, gero ongarri gisa erabiltzeko. Edukiontzi zurian batzen den ehun eta zapatarekin, "ahalik eta osagai gehienak birziklatu egiten dira eta trapuak-eta egiteko erabiltzen da; ezin dena birziklatu garbitu eta prestatu egiten da eta Caritas, Emaus edo antzeko erakunderen bati bidaltzen zaio, saltzeko edo banatzeko", esaten du Kristina Iraolagoitia Ingurumen teknikariak.

Horiek dira ezagunenak, edukiontzien bidez batzen diren osagarriak; baina bestelako hondakinak ere badaude, zabor-poltsatik kanpo batzen dituenak Mankomunitateak. Esaterako, obra-hondakinak; bolumen handiko hondakinak; inausketa-hondakinak; txatarra; eta egurra.

%62,1 ZABORRA DA

Birziklatzearen kultura gero eta indartsuagoa da; baina, oraindik, Debagoienean produzitzen diren hondakin guztien zati handiena zaborra da. Mankomunitatearen iazko datuen arabera, 29.544 tona hondakin sortu zuten iaz debagoiendarrok, eta hortik %62,1 (18.354) zaborra izan zen. Hondakin guztien %29,6ri balio berria eman zitzaion, honela: birziklatuta (%72,6); energiarako erabilita (%10,5); konposta eginda (%7,02) edo berriz erabilita (%0,42).

KANPAINA, LABUR

> HELBURUA
Debagoiendarrak birziklatzearen garrantziaz kontzientziatu nahi da, edukiontzi horira gero eta gehiago eta gero eta hobeto bota dezaten. Gaur egun, edukiontzi horira bota behar diren ontzien %19 bakarrik botatzen dira hara.

> ESKUORRIAK
Debagoieneko etxe guztietan eskuorri informatiboak banatzen hasiko da Mankomunitatea irailaren 28an. Telebistan publizitatea egingo du, eta *www.debagoiena.com* webgunean ere badago informazio guztia.

> ZE LEHENGAI
Hiru lehengaiz eginda dauden etxeko ontziak bota behar dira edukiontzi horira: plastikozkoak, metalezkoak eta brikak.

> ZE ONTZI BOTA EDUKIONTZI HORIRA
Plastikozko botilak, garbitzeko produktuen ontziak, plastikozko poltsak, plastikozko bilgarriak, latak, aluminiozko erretiluak, aerosolak, metalezko tapoiak eta brik ontziak.

> ZER EZ BOTA EDUKIONTZI HORIRA
CD edo VHSak; gomazko eskularru edo jostailuak; esekigailuak, oinetakoak eta arropa; pixoihalak eta baxerak; etxetresna elektriko txikiak; papera eta kartoia; eta beira. Horietako bakoitzak badauka bere bilgunea.

> KANPAINA, HIL OSOAN
Irailaren 28an hasiko dira eskuorriak eta inkestak banatzen. Hilabete iraungo du kanpainak.

HEZKUNTZA > MU

Josu Zabala: "Krisiaren harira, kanpoan ematen diren gorabeheren mende gaude"

Ikasturtea irekitzeko ekitaldian egin zituen adierazpenok MUko errektoreak, egauztenean; Patxi Lopez lehendakaria ere han izan zen

Ikusmin handia sortu zuen Jaurlaritzako ordezkarien presentziak. MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eguaztenean Mondragon Unibertsitateak (MU) 2009/10 ikasturteko hasiera-ekitaldia egin zuen Eskoriatzan. Inaugurazioan izan ziren, besteak beste, Patxi Lopez lehendakaria; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Isabel Zelaa; MUko errektore, presidente eta idazkari nagusi Josu Zabala, Javier Sotil eta Idoia Peñakoba, hurrenez hurren.

Ekitaldiari aurreskuarekin eman zioten hasiera eta jarraian, Peñakobak 2008-2009 ikasturteko txostena aurkeztu zuen. Gogorarazi zuen unibertsitateak dagoeneko titulazioak Goi Mailako Hezkuntza Esparru Europarrera egokitzen diharduela. Horren harira, azaldu zuen lau gradu berri eskainiko dituztela aurten: Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza; Ikus-entzunezko Komunikazioa; Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; eta Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza, hain zuzen ere.

KRISIA NAGUSI

Aitor Zuberogoitia irakaslearen eta Javier Sotilen ondotik, Zelaak hartu zuen hitza. Krisiaren gainean berba egin ostean, MU enpresa munduarekin lotuta doan eta ekimen berritzaileen alde apustu egiten duen unibertsitatea dela nabarmendu zuen. Horren harira, Jaurlaritzaren laguntza izaten jarraituko duela aipatu zuen. Josu Zabalak ere krisiaz hitz egin zuen: "Kanpoan gertatzen diren gorabeheren mende gaude erabat, eta horixe da gure erronka. Zeregin luzea eta konplexua dugu aurretik, baina etorkizunean antzeko egoera saihesteko balio behar du". Patxi Lopezek, azkenik, honako eskaera egin zien MUkoei: "Egungo mundu aldakorrean bizi diren gazteak hezi, unibertsitatea tresna bikaina da-eta herri sostengarria egiteko".

ESANAK

"Zeregin luzea eta konplexua dugu aurretik, baina etorkizunean antzeko egoera saihesteko balio behar du"

Josu Zabala > MUko errektorea

"Mundu aldakorreko gazteak hazteko, unibertsitatea tresna bikaina da herri sostengarria egiteko"

Patxi Lopez > Lehendakaria

> MANKOMUNITATEA

Bildotsa eta onddoak, jardunaldietako protagonistak

Debagoieneko III. Jardunaldi Gastronomikoak urriaren 12tik azaroaren 15era egingo dira, baina aurretik aurkezpen ekitaldia egingo dute Aretxabaletako San Migel jaietan, bihar; pintxoak banatuko dituzte herriko plazan.

Zazpi jatetxek egin dute bat ekimenarekin. Menu bereziak prezio berezietan eta garaiko produktuekin eskainiko dituzte. Bildotsa eta onddoak izango dira protagonistak oraingoan.

> POLITIKA

Arrasateko zinegotzi sozialista Carmen Atxutegi, Kongresura

Carmen Atxutegi Arrasateko zinegotzi sozialistak Espainiako Diputatuen Kongresuan jardungo du, Elvira Kortajarena ordezkari sozialistaren partetik.

Arrasateko alderdi sozialistak jakinarazitakoaren arabera, Atxutegi Madrilen da dagoeneko, kredentzialak entregatzen. Eta, aldi berean, aditzera eman du Arrasateko zinegotzi izaten jarraituko duela.

> JAIAK

Oñatiko jaietara joateko autobus zerbitzu berezia dago

Oñatiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Garraio Sailarekin lankidetzan, gaueko autobus zerbitzu bereziak jarri ditu herriko jaietarako. Gaur, egubakoitza, eta urriaren 3an, zapatua, emango dira zerbitzuok.

Autobusek egingo duten ibilbidea honakoa izango da: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati. Gauerdian jarriko da martxan esandako zerbitzua.

> EUSKARA

Debagunek Nafarroa Oinez-era joateko autobusa antolatu du

Debagunek (Debagoieneko Euskara Elkarteen Elkargoa) Etxarri Aranatzen egingo den Nafarroa Oinez 09ra joateko autobusa antolatu du. Txartelak euskara elkarteetan egongo dira salgai urriaren 15a arte. Euskara elkarteko bazkideendako zortzi euro da; gainontzekoendako, 10.

Urriaren 18an Aramaiotik 08:45ean irtengo da eta Aretxabaleta, Arrasate eta Bergaratik pasatuko da. Itzulera 19:00etan izango da.

Astelehenean agerraldia egin zuten Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan, antolatu diren ekimenen berri emateko. GOIENKARA

POLITIKA > PAKITO ARRIARANI OMENALDIA, HAREN HERIOTZAREN 25. URTEURRENEAN

Pakito Arriaranen aldeko ekitaldi nagusiak bihar egingo dituzte

Uarkape pilotalekuan herri bazkaria izango da, 14:30ean, eta arratsaldean, 18:30ean, omenaldi nagusia egingo dute Monterronen

T.MADINA - M.BITERI > ARRASATE

Irailaren 30ean, 25 urte beteko dira Pakito Arriaran arrasatearra El Salvadorren hil zutenetik, eta haren omenez ekitaldi bereziak antolatu dituzte egunotarako Arrasaten. Ekimen horietan gonbidatu berezia ari da parte hartzen: Gilberto Rivera Mejia, El Salvadorko hauteskundeak irabazi berri dituen FMLN alderdiko diputatua, hain zuzen.

Ekimen nagusiak bihar, zapatua, egingo dituzte. 14:30ean herri bazkaria egingo dute Uarkape pilotalekuan. Arratsaldean, 18:30ean, omenaldi nagusia egingo dute Monterronen eta gauean kontzertua egongo da gaztetxean. Horretaz gain, egunotan Arrasateko Irati tabernan erakusketa berezia dago ikusgai.

BESTE BI EUSKALDUN

Pakito Arriaran ez ezik, El Salvadorren hil zituzten Begoña Gartzia Arandigoien eta Marta Gonzalez mediku euskaldunak ere omenduko dituzte bihar.

Askapena eta El Salvador Bihotzean elkarteak arduratu dira egitaraua antolatzeaz. Astelehenean egin zuten Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan horren berri emateko agerraldia. Rivera Mejia diputatuaz gain, Pakito Arriaranen ama, Begoña Gartzia medikuaren koinatua, Askapena taldeko kide Unai Vazquez eta Arrasateko alkate Ino Galparsoro elkartu ziren.

Unai Vazquezen esanetan, Pakito Arriaran eta hura bezalakoen lana orain ari da fruituak ematen; horren adibide jarri zuen martxoaren 15ean FMLN alderdi ezkertiarrak lehenengo aldiz El Salvadorko hauteskundeak irabazi zituela.

GILBERTO RIVERA MEJIA

Bestalde, Rivera Mejia diputatutak bere herrialdean ezkerrak izan duen garaipenaren gorabeherak kontatu zizkien udaletxeko osoko bilkuren aretora joandako entzuleei. Garaipen horren garrantzia herrialde guztiena dela nabarmendu zuen, eta, ondorioz, guztiok ospatu beharrekoa. Ezkerreko mugimendu berria eratzen ari dela azaldu zuen eta horren jatorria "eskuineko politikaren izaeran eta haren ekonomia hiltzailean" dagoela esan zuen. Bukatu aurretik, Kuba, Bolivia eta Ekuadorko herrialdeak aipatu zituen eta horiek XXI. mendeko sozialismoaren eredutzat jo zituen.

Azkenik, Arrasateko alkatearen arabera, "herrien arteko elkartasunean sakondu beharra dago bertatik eraikiko da-eta etorkizuna".

ESANAK

"Ezkerreko mugimenduaren jatorria eskuineko politikaren izaeran eta haren ekonomia hiltzailean dago"

Gilberto Rivera Mejia > FMLN

IKERKETA > G+20 PROZESUA

G+20 prozesuan gazteak subjektu aktibo izateko tailerrak egingo dituzte

Tailerrak eskualdeka egingo dituzte, eta Debagoienekoa Bergaran izango dira azaroan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako G+20 proiektuaren helburua da hainbat eragilerekin Gipuzkoarendako etorkizuneko ikuspegia eratu eta epe luzeko estrategia adostea. Proiektu erraldoi horren barruan tarte berezia eman gura diete gazteei. Horren harira, G+20/500 proiektua abiaraziko dute. Ekimen horren helburu nagusiak dira G+20 proiektuan gazteak subjektu aktiboak izatea, eta egungo gazteek 20 urte barruko Gipuzkoa irudikatzea eta hori lortzeko estrategiak proposatzea.

Proiektuan Gipuzkoako 16 eta 24 urte arteko 500 gaztek parte hartuko dute.

BI SAIOAK

Ekimena martxan jartzeko Elhuyar Aholkularitza kontratatu du Aldundiak. Enpresak horrek proiektua diseinatu eta tailerrak antolatuko ditu.

Guztira, Gipuzkoako 14 ikastetxek hartuko dute parte, eta tailerrak eskualde guztietan egingo dituzte. Debagoieneko saioak Bergaran egingo dituzte azaroaren 6an eta 20an, 18:00etatik 20:00etara.

Lehen saioan prozesuari buruzko azalpenak jasoko dituzte gazteek. Gainera, Gipuzkoaren egungo egoeraren diagnosia egingo dute. Lehen saioko emaitzak Elhuyar Aholkularitzak jasoko ditu. Bigarren saioan, alderdi positiboen eta hobetu beharrekoen gainean egingo dute lan. Emaitza guztiekin txostena egingo dute. Prozesuari bukaera emateko txostena aurkeztuko dute Gabonen aurretik.

G+20/500 proiektuan parte hartu gura dutenek edo informazio gehiago nahi dutenek *g+20@elhuyar.com* helbidera idatz dezakete.

LEHEN FASEA BUKATUTA

G+20 proiektuari dagokionez, atzo batu ziren Arantzazun, proiektuaren lehen fasea bukatzeko. 67 faktore ezberdin kontuan hartu eta egungo egoeraren diagnosia jasotzen duen dokumentua aurkeztu zuten. Hamar hilabete egin dituzte aurreneko fasean. Laster hasiko dute bigarrena: 20 urterako erronkak eta eszenatokiak zehaztea, hain zuzen. Mondragon Taldearen Ikerketa Zentroa batuko da bigarren fasean.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Iraileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

ZIRA
Bidali AG ZIRA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA
Bidali AG AQUARIUM
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



UMEENDAKO LIBURUAK
Bidali AG LIBURUAK
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

PENDRIVE BAT
Bidali AG PENDRIVE
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA

AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Prentsaurrekoan Intxorta 1937 kultura elkarteko, Lau Haizeetara Gogoan-eko eta Elgetako Udaleko kideak egon ziren. T. MADINA

MEMORIA HISTORIKOA > OMENALDIA

Milizianoei eta gudariei omenaldia Elgetan

Urriaren 4an egingo diete omenaldia Intxortako Atean; Lau Haizetara Gogoan-ek, Intxorta 1937 kultura elkarteak eta Elgetako Udalak antolatuta

MIREIA BIKUÑA > ELGETA

Gerran hildako milizianoen eta gudarien memoria historikoa bizirik mantentzeko omenaldia egingo diete urriaren 4an, Elgetako Intxortako Atean. Lau Haizetara Gogoan-ek, Intxorta 1937 kultura elkarteak eta Elgetako Udalak prentsaurrekoa egin zuten martitzenean ekitaldiaren berri emateko (ikus ondoko taula), eta herritar guztiak gonbidatu zituzten ekitaldian parte hartzera.

"Ideologia ezberdinetako batailoiak osatzen zuten boluntario gazteek 1936ko urriaren 4tik 1937ko apirilaren 24ra arte Bizkaira bidean ziren Mola jeneralaren indar erreboltariak gelditu izana gogoratuko dugu", esan zuten agerraldian.

"ESKU HARTU BEHAR DUGU"

Gertakari haiek izan eta 73 urte pasa ondoren fusilatutakoen eta desagertutakoen errolda ofizialik ez dagoela salatu zuten: "Agente sozial, politiko eta sindikalak esku hartzera behartuta gaude, egia azaleratu eta justizia egin dezaten. Kalte-ordainetarako neurriak hartzea ezinbestekoa da".

Ekitaldiak

11:15
Kalejira Andoaingo talde errepublikanoarekin.

11:30
Elgetatik irteera Intxortara.

12:00
Intxortako atean ekitaldia:
* Jesus Gutierrezen hitzak.
* Bertsolariak.
* Gudari baten hitzak.
* Aurreskua Elgetako taldeekin.
* Elgetako Udalaren hitzak.
* Arrasate Musikalen eskutik *Internacional* kantua.
* Lore eskaintza.
* Lau Haizetara Gogoanen hitzak.
* Andoaingo talde errepublikanoaren emanaldia.

TEKNOLOGIA > APLIKAZIO BERRIA

Urrunetik aginte-mahaien mantenua egiteko sistema garatu du Matz-Errekak

MUko Goi Eskola Politeknikoarekin lankidetzan garatu dute sistema berria, automatismoei konektatzeko ahalmena eta adimena emateko

M.B. > ARRASATE

Matz-Errekak urrunetik aginte-mahaien mantenua egiteko sistema garatu du MUko Goi Eskola Politeknikoarekin lankidetzan. Aplikazio berriarekin, Antzuolako lantegiak egiten dituen automatismoek konektatzeko ahalmena eta adimena izango dute.

Sistema berrian GSM eta GPRS teknologiak erabili dituzte–teknologia hori erabiltzen dute eskuko telefonoetan.

Berrikuntzarekin, aginte-mahaiak urruneko mantenuaz hornituko dituzte eta ateak urrutitik zabaltzeko aukera emango dute, besteak beste.

FUNTZIO GEHIAGO

Aplikazio berriarekin aginte-mahaiak osatuagoak izango dira. Alde batetik, urrunetik egin daitezkeen funtzioak gehituko dizkiote. Hala, mahaiko aldagaiak kontsultatu ahalko ditugu mahaira joan barik. Gainera, mahaiak nahiko adimen izango du bere egoeraren berri izateko eta matxuraren bat duenean langileari jakinaraziko dio SMS bidez.

Beste alde batetik, edozein telefono finko edo mugikor urrutiko aginte bihur daiteke, eta estaldura dagoen edozein puntutik atea zabaldu ahalko dugu. Era berean, aplikazio berriak beharrezko segurtasun neurriak ditu. Hala, aginte-mahaiaren erabilpena pertsona baimenduei dago mugatuta, eta nahi ez ditugun konexioak baztertzeko aukera emango digu.

Mariaje Baskaran > Altzari saltzailea

"Renove Planerako bi milioiek urriaren 9ra arte bakarrik iraungo dutela entzun dut"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Altzariak erosteko Renove Plana dirulaguntza programak irailaren 15etik aurrerako erosketetan eragiten zuela esan zuen Eusko Jaurlaritzak, baina orain, hilaren 24ra atzeratu dute. Bergarako Biltoki altzari-dendako Mariaje Baskaranek Renove Planaren gaineko azalpen gehiago eman digu.

Biltoki dendako Mariaje Baskaran, Bergarako plazan duten dendan. L.K.

Zuek sartu zarete Renove Planean?

Bai. Paper asko bete behar izan ditugu, eta azkenean esan digute onespena dugula; hala, Merkataritza Sailak emandako pegatina bat jarriko dugu atean, bezeroak jakin dezan. Dena dela, egunetik egunera baldintzak aldatzen joan da SPRI –haren bitartez egiten da-eta Renove Plana. Indarrean jartzeko data irailaren 24ra atzeratu berri dute, eta hasieran baino dokumentu gehiago eskatu dizkigute. Badirudi, hasieran, bere garaian egin zuten etxetresna elektrikoen Renove Planaren modukoa egin nahi zutela, baina honetan dirulaguntzak handiagoak dira eta korapilatsuagoa da.

Erosleak zer egin behar du?

Hark ere zenbait dokumentu ekarri behar dizkio dendariari: besteak beste, Nortasun Agiria, herrian erroldatuta dagoen agiria (edo dendariak hori berak badakiela ziurtatu behar dio SPRIri), eta orain gehitu dute Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga. Ni egunotan nabil hamar bezerori-edo paper horiek eskatzen.

Deskontua zelan egiten da?

Deskontua beti da zerga-oinarriaren gainean. Adibidez, 862,07 euroko zerga-oinarria duen mahai bat saltzen badut, %25eko deskontua kopuru horren gainean izango da. 862,07 euro horiei gehituta BEZaren %16, orduan, 1.000 euroko azken prezioa dago, baina erosleak 784,5 euro ordaindu beharko du.

Unean erosten baldin bada artikulua, SPRIri faktura bidali behar dio merkatariak. SPRIk sarrera-zenbaki bat ematen dio eskaera horri, eta oniritzia eman ondoren, dirua bidaltzen diote. Eskaera bat egiten bada, bezeroak ez du zertan aldez aurretik ordaindu behar; orduan, SPRIri eskaeraren agiria bidali behar zaio, SPRIk dagokion diru kopurua gordetzen du eta, salmenta egiten denean, faktura bidali behar zaio, eta orduan egiten da ordainketa. Altzariak etxera eramaten badira, bidalketaren albarana ere bidali behar zaio SPRIri. Eta, hori bai, paper guztiak jatorrizkoak izan behar dira; ez dute faxik-eta onartzen.

Komertzioaren eskaera onartzen badute, SPRIk diru kopurua gordeko dio, eta bi hilabeteko epea dauka ordainketa egiteko.

Dokumentu asko, bai dendariaren bai bezeroaren aldetik...

Bai. Nire iritziz, horrela dena garbia izan dadin ziurtatu nahi dute. Oso argi ibiliko dira. Hala, norberak 1.000 euroko muga hori ez gainditzea ere kontrolatuko dute, kontuan hartuta erosleak hainbat dendatan bana dezakeela gastua. Bestalde, deskontua lortzeko, gutxienez 300 euroko erosketa egin behar da, eta, 1.000 euroko laguntza lortzeko, 4.500 bat euroko gastua behar da.

"Kalkulua erraza da: bi milioi euro badago, 2.000 ekintzatarako bakarrik dago dirua"

"Eskaera eta erosketa piloa egongo da egunotan; gurera jende asko etorri da galdezka"

"Komertzioari laguntzen dio: orain arte duda-mudatan zegoena erostera animatzen da"

Bi milioi euro oso gutxi da.

Kalkulua erraza da: 2.000 ekintzarako bakarrik dago. Nik entzun dut urriaren 9ra arte bakarrik dagoela ziurtatuta dirua. Eta gero zer egingo dute? Ez dut uste fondoa handituko dutenik; gaur egungo egoera ez dago horretarako.

Eta merkatariok jaso duzue behar adina informaziorik?

Geuk komunikabideetatik jakin genuen, eta uste dut orokorrean hala izan dela. Oraindik egunotan ibili gara eskaera-orriak betetzen eta dokumentazioa batzen.

Benetan laguntzen dio Renove Planak komertzioari?

Bai, bada laguntza ona. Adibidez, orain arte duda-mudatan zegoen jendea animatu egiten da erosketa hori egitera. Niri jende asko etorri zait galdezka, eta batzuk zalantzan zeuzkaten erosketak egitera animatu dira, eta ulertzekoa da. Beste gauza bat da dirulaguntzatarako dagoen partida berehala gastatuko dela. Nik uste dut orain sekulako eskaera eta erosketa piloa egongo dela dendetan, partida bukatu arte.

etxeko leihotik

Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

Aspaldiko lagunekin zein berriekin jarduteko

Asko ez dela egin ditut ehun lagun. Artikulu hau idazterakoan 112 dira eta denak ezagutzen ditut. Tartean daude musikariak, idazleak, politikariak, Jaurlaritzako kargudunak, Filologiako ikaskideak, Bizkaiko Aldundikoak, herri aldizkarietakoak, bertsolariak, herriko alkatea, unibertsitateko irakasleak, dantzariak, irratiren bat, webguneren bateko lagun ere banaiz, eta azkenengo egin dudan laguna GOITB izan da.

Urtebete baino gehiago nabil saltsa honetan, eta indarra hartu du azkenengo sei hilabeteetan-edo. Gustatzen zait egunero bisita egin eta jakitea lagunek diotena. Informazio asko jasotzen dut eta nire lanerako ere balio du.

"Gorroto ditut zortedun gailetak zein 'arrautza frijitua jaten' erako esaldiak"

Jakinarazpenak ditudanean klik egiten dut segituan, langunekin jardun dut solasgunean (aspaldi ikusi bako lagunekin ere bai), haien argazki edo bideoren bat ikusi dut, sekula baino zorion gehiago jaso dut nire urtebetetze egunean, nire hizkuntzan nabigatzen dut...

Gorroto ditut "bizarra kentzen" edo "arrautza frijitua jaten" erako komentarioak. Gorroto zortedun galleta kutreak, meme erako galderak, eta lehen esandako moduan inor gutxiri interesatzen zaizkion esaldi pertsonalak.

Hau dena da Facebook. Ez baduzu ezagutzen zoratuta nagoela usteko duzu, baina probatu arte da, sinistu.

> Facebook besteengandik eta besteekin ikasteko balio didan erreminta da. Gertuko sentitzen dudan jendearekin elkarrizketak izateko, ikuspuntuak trukatzeko. Denbora galtzea? Makina bat dira hori diotenak, baina ez: denbora irabaztea da ingurukoei entzutea.

> Zugaz.com-en ere badut profila. Gustura ikusten dut zelan milaka gaztek erabiltzen duten jolaserako, berriketarako... Zein da paradoxa? Gazteenak jantziago daudela sare sozialen erabileran gurasoak baino; eta komeni, komeni da elkarrekin nabigatzea...

ENPRESA > DANOBAT RAILWAY SYSTEMS

Burdinbideko osagaiak egiteko lerroa gertu dago

Danobat Railway Systems-ek lantegia eta Errusiarako lerro bat aurkeztuko ditu

L.K. > BERGARA

Lopez lehendakariak inauguratuko du astelehenean, hilak 28, Mondragon Korporazioko Danobat Railway Systems (DRS) enpresaren lantegi berria, Bergarako Mekolalde auzoan. Lantegi horretan burdinbideko ardatz muntatuak egiteko munduko lerro aurreratuena egin dute, eta horixe ikusiko dute ordezkari politikoek eta Mondragon Korporazioko ordezkariek. Espainiako Sustapen Ministerioko ordezkariak ere gonbidatuta daude.

DRSk Errusiako TVSZ enpresarendako egin du lerroa. Errusiako merkantzietarako bagoien egile handiena da TVSZ, eta Estatuko makina-erremintaren historian eskaera garrantzitsuena izan da TVSZk Danobat Railway Systems-i egindakoa: azkenean, 63 milioi eurokoa izan da.

zabalik

Andoni Urtzelai

Blogak

Ez daukat ezer blogen kontra. Are gehiago, hainbat bloglari lagunak ditut, eta tarteka-marteka hauen txokoetara bistaratzeko ematera joaten naizela aitortu beharra daukat. Hala ere, azkenaldi honetan, susmoa daukat blogak ez ote diren zertxobait Belen-estebanizatu. Hara, azalduko dut arestiko boutade hau: Belen-estebanizatu diot orokorrean bloglariek norbere bizitzaren pasadizoak kontatzeko baino ez dituztelako blogak erabiltzen. Eta kontu, ez diot nik hori txarra denik edo gaizki dagoenik, alla kuidaus, egin dezala norberak nahi duena norbere buruarekin!

Gauza da, ez dakit ba, bestelako bilakaera bat espero nuela nik txoko birtual hauengandik. Tira, ez dut esaten entziklopedia zientifikoak izan behar direnik, baina edozerk ere ez duela balio iruditzen zait. Izan ere, blogen baso honek horrela hazten segitzen badu, aurki zaila suertatuko da onddoak sastraditik bereiztea. Apenas aurkitzen dut ezer interesgarririk blog hauetako askotan, kuxkuxeroak asetzeko lelokeriak baino ez kasu gehientsuenetan: bidaia argazkiak, edozeren inguruko gogoeta hutsalak… En fin.

"Ozeano digitalean atentzio eske ari diren Robinson Crusoeak bezala ikusten ditut blogeroak"

Ozeano digitalean atentzio eske ari diren Robinson Crusoeak bezala ikusten ditut blogeroak, eta blogosferak, ostera, sare kulturaletik baino gehiago du Amsterdameko auzo gorritik: hortxe daude blogeroak, hango eskaparateetan emakumeak bezela, bezeroaren arreta nola edo hala piztu guran.

Eta iruditzen zait hau ez dela soilik blogen kasura mugatzen. *Twitter, Facebook* eta antzerako sare sozial-birtualek ere ez dute deus interesgarririk eskaintzen, hutsaren hurrengoa dira.

Finean, zera da kontua: Interneten nabigatzeak gero eta antz gehiago duela zakur-kakaz betetako kale batean ibiltzearekin…

usteak uste

Arritxu Barruso

Dutxatzea ere arriskutsua omen

Interneteko hedabide batean irakurri berri dut dutxatzea osasunarendako kaltegarria izan daitekeela. Izenburu deigarriak gustatzen zaizkion hedabide horietako bat izanda, testua irakurtzeko gogoa sartu zitzaidan. Hona hemen azalpena: *alkatxofa* bezala ezagutzen duguna garbitu ezean bakteria asko biltzen omen dira bertan eta horiek birikietan kalte handiak eragiten ei dituzte. Azkenaldian, egia esan, ez da erraza osasunarendako kaltegarria ez den zerbait topatzea. Ni dutxara noa.

marrazkiz

Alex Ugalde

blog-top

Autorik gabeko eguna kontrolatzen

Demonocrazy
www.goiena.net/blogak/demonocrazy

Izenburuak ez du zerikusi handirik komentu nahi dudan gaiarekin, baina Mugikortasunaren Astea eta Autorik Gabeko Eguna izanda, anekdota txiki hau plazaratzeko momentu ona iruditu zait.

Auto gidabaimena daukat eta nirea ez den arren autoa eskuragarri ere, baina askok ulertzen ez duten arren, autobusean noa klasera, Bergaratik-Eskoriatzara. Arrazoi nagusia ingurugiroa dela gustura esango nuke, baina benetako arrazoia dirua da (beti bezala...), Debagoiena osoan tarifa berdina egonda, oso ekonomiko irteten zaizkit bidaiak. Bergaratik Eskoriatzara = 0,69 zentimo.

Autobusa egunero erabiltzen dudan arren, ez nago bape pozik Pesak eskaintzen digun zerbitzuarekin. Pesa konpainia sufritzen dugunok badakigulako ez dutela beharrezko betebeharrak asetzen. Esaterako, egunero hartzen dudan autobusa 12:45 etan etorri behar den arren, ikasturtea hasi denetik 7 egunetatik batean ere ez du asmatu. (...).

Zerbitzua hobetzeko ordea, Pesak ikaragarrizko ideia izan du, autobus gehiago? Ez. Autopistatik joaten diren autobusak (Lehengo arinak, bertakoak eta express sistema berrezarriz)? Ez. Beraien konponbidea, Abuztutik aurrera autobusa hartu duzuenok jakingo duzuen bezala, autobus guztietan kamerak jartzea izan da. Berandu heltzeaz gain, jende guztia konturatu dadila!

Ez dakit zerek bultzatu dituen, beraien indarrak eta gestio plana horrelako gauzetara bideratzen, baina zerbitzua hobetzetik oso urrun geratu dira erabaki honekin.

Segurtasun kameren gaia, gai eztabaidatua izan ohi da, baina nik argi daukat, gero eta kamara gutxiago, hobeto. Bakoitzaren intimitatea bermatzea derrigorrezkoa ikusten dut, agian film distopikoen zalea naizelako uste dut hau, baina nire ustez Pesako autobusek ez dute horrelakorik behar.

koplak

Enaitz Alustiza

Argazkiak argazki

Azkenaldian represioak
ia gainditu du muga
argazki asko atera dira
argazki batzun kontura.

Euskal Presoen argazki gabe
utziaz kale guzia
muturreraino eraman dute
euren ezin ikusia.

Ama jipoitu bere semean
kartelak ezkuta ditzan?
Semea preso edukitzea
lotsagarria bailitzan…

Dena ilegal! Akordatzen zait
kantu baten gogoeta:
Eta kartzelak Eukal Herriko
seme-alabaz beteta.

Porrazoekin bidea egiten
ezin daitezke saiatu
irudiak bai, sentimenduak
ezin dira debekatu.

Franciscorekin asko gaiztotu
da lehengo panorama txarra
buelta ematen jakitea da
espero dudan bakarra.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Zubietako errauste planta ezinbestekoa dela eta hori egitea Gipuzkoako mankomunitateek erabaki dutela dio Garapen Iraunkorreko diputatuak. Zortzi urte barru, 426 kilometro bidegorri eraikitzea dela Diputazioaren asmoa eta bi urte barru Gipuzkoako ibaiak garbi egongo direla, "araztegi azpiegiturak funtzionamenduan" jartzearekin batera.

Carlos Ormazabal > Gipuzkoako Garapen Iraunkorreko foru diputatua

"Udal bakoitzak erabakiko du zaborra batzeko sistemarik egokiena zein den"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Europa mailan, baita gure eskualdean ere, Ingurumen Astea egin berri denean, Garapen Iraunkorreko diputatuarekin egin dugu berba. Gipuzkoako bidegorriak, zaborhondakinak eta erreken egoera izan ditugu berbagai.

Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko presidentea ere bada Carlos Ormazabal. XABIER URTZELAI

Bidegorrien plana aurkeztu zenuten joan den astean. Zein da helburua?

Aurkeztu genituen, batetik, datorren maiatzera arteko asmoak, dagoeneko abian dauzkagun proiektuak; bestetik, 2017ra arteko bidegorrien plana. Ordurako, Gipuzkoako bidegorrien planaren %76 osatuta egongo da. Egun, 77 kilometro daude lurradean eta asmoa da 426 edukitzea.

Gure eskualdeari dagokionez, ze bidegorri egingo dira?

Hiru proiektu dauzkagu une honetan egiteko bidean: batetik, Eskoriatzatik hango kanposantura artekoa; bestetik, Bergaratik Antzuolara; hirugarrena, Soraluzetik Mekolaldera. Datorren urtean, bestalde, Zubillagatik Oñatira eta Zubillagatik Epelera artekoak egin nahi ditugu. Aurrera begira, Arrasate hegotik iparraldera artekoa.

Zenbat diru inbertituko da Debagoieneko bidegorrietan?

Debagoienean, herri barruetako bidegorriak eta Foru sarekoak kontuan izanda, aurreikusita daude 81 kilometro. Bidegorri gehien dituen lurraldeko bigarren bailara izango da. Diruari dagokionez, hiru proiektuon kostua da bi milioi eta ia 400 mila euro. Eskoriatzatik hango kanposantura artekoak hartzen ditu 800 mila euro; Bergaratik Antzuolara artekoak hiru fase ditu eta aurreneko biak batera joango dira eta 700.000 euro hartzen ditu, gutxi gorabehera; azkenik, Soraluzetik Mekolaldera artekoak hartzen ditu beste 900.000 euro.

Zenbat lagunek erabiltzen dute gaur egun bidegorria Gipuzkoan?

Bederatzi bidegorritan dauzkagu jarrita kontadoreak eta erabilpena handia da: urtean bi milioi desplazamendu egiten dira.

Paseatzeko ala bizikletan ibiltzeko erabiltzen dugu gehiago?

Oinezkoek gehiago erabiltzen dute aisialdirako. Bizikletan dabiltzanak dira %20. Gune urbanoetatik industrialdeetara bizikletan ibiltzen da jendea, batez ere mugikortasun ikuspegiaz, lanera joateko.

Bidegorrien egoeraren gaineko aplikazio berria jarri duzue *www.gipuzkoa.net* webgunean. Zer da?

Eraikitzen dihardugun bidegorriek ze ezaugarri izango dituzten azaltzen da. Zenbat lagunek erabiltzen duten, eraikitzen dihardutenetan obrak zelan doazen, ze fasetan dauden... Gainera, norbaitek asteburuan erabili nahi badu aisialdirako, ikus dezake webgunean ze paisaia dagoen inguruan...

Noizko Gipuzkoako ibaiak erabat garbi?

Orain baino askoz garbiago, urte pare bat barru. Saneamendu egituraren lanak amaitzear daude. Une honetan, 14 araztegi daude aurreikusita Gipuzkoan. Horietatik 12 martxan daude eta martxan ez daudenen artean dago Epelekoa. Aurreikusita dago martxan jartzea datorren urtean. Beste araztegia da Adunakoa, Oria ibaiko urak garbitzeko. Hori, 2011rako dago aurreikusita amaitzea. Araztegi sarea martxan izango da bi urte barru. Deba ibaia da egoera okerrenean dagoena, baina araztegi guztiak funtzionamenduan jartzen direnean beste itxura bat hartuko du. Arrainak ikusiko ditugu, berriro ere.

BIDEGORRIAK

"Egun, 77 kilometro bidegorri daude lurradean eta asmoa da 426 edukitzea"

IBAIAK

"Deba ibaia da egoera okerrenean dagoena, baina bi urte barru beste itxura bat hartuko du"

ERRAUSTE PLANTA

"Foru Aldundiak eta mankomunitateek erabaki dute errauste planta dela ezinbestekoa"

Asko birziklatzen dugu gipuzkoarrok?

Bai. Gipuzkoarrok, orokorrean, nahiko sentsibilizatuta gaude zaborra dagokion ontzian uzteko. Eta gehien erabiltzen dena da edukiontzi berdea. Kristala jasotzen dugu gehien. Guztiaren %60 inguru. Gero, papera, kartoia ere asko, %40 inguru. Azkenik, gutxien, edukiontzi horia, %20, gutxi gorabehera.

Debagoieneko Mankomunitatea kezkatuta dago gutxi erabiltzen delako edukiontzi horia.

Normala da gutxien erabiltzen dena edukiontzi horia izatea. Izan ere, berdera kristala bota behar dela argi daukagu; urdinera, papera eta kartoia ere bai... baina horira? Hain da zabala aukera... Sentsibilizazio eta informazio kanpaina, oraindik ere, beharrezkoak dira.

Edukiontzi marroia lurralde osora zabalduko duzue?

Esperientzia aitzindari moduan iazko irailean sei herritan jarri genuen; tartean, Aretxabaletan. Emaitzak oso onak dira. Orain, udal bakoitzak erabaki beharko du zaborraren kudeaketarako zein den gehien komeni zaion sistema: bosgarren edukiontziarena, atez atekoa... Hondakinen Partzuergotik kudeatuko ditugu mankomunitateek birziklatu ezin ditzaketen hondakinak.

Nork bere etxean konposta egiteko kanpainek arrakasta handia izan dute, ezta?

Bai, 4.500 edukiontzi banatuta dauzkagu eta aurten, mankomunitateen bitartez, beste 3.500 banatuko ditugu. Aurki irekiko da horretarako kanpaina. Horrelako 8.000 edukiontzi banatuta edukitzeak esan nahi du 10.000 laguneko batek batzen duela nork bere etxean materia organikoa konposta egiteko. Europa mailan ratio onenetakoa da. Aurreikusi dugu 2016ra bitartean beste 60.000 tona tratatu ahal izatea eta horietatik %20 konposterako izatea.

Zenbat zabortegi daude gaur egun Gipuzkoan?

Hiru bakarrik: Beasaingo Sasieta, Zarauzko Urteteta eta Azpeitiko Lapatx. Helburua da Gipuzkoako zabortegi hauek guztiak ixtea eta hurrengo urratsa da Zubietako errauste planta egitea eta han erretzea birziklatzen ez ditugun zabor hondakinak.

Ezinbestekoa da Zubietako errauste planta?

Hondakinen Partzuergoa osatzen dugun erakundeek, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta eskualdeetako mankomunitateek hala erabaki genuen 2007an, alternatibarik egokiena delakoan. Bitartean, sortzen dugun hondakinen zati bat Bizkaiko errauste plantara eroaten dugu; tona bakoitza 80 euro kostatzen zaigu gipuzkoarroi.

Konpostajearen apustu irmoa

Carlos Ormazabal
(Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidentea)
Donostia

2009. urtearekin batera hondakin organikoak konpostajerako biltzeko fase esperimentala ere amaituko da, eta, egiaztatutakoaren arabera, zeregin hori Gipuzkoako mankomunitateen eta udalen esku uzteko moduan gaude. Bakoitzak erabaki beharko du zein den eginkizuna betetzeko modurik eraginkorrena eta iraunkorrena. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa saiatu da erakusten, hondakinek berrerabiltzeko baldintza onak izan ditzaten, zein den eredurik egokiena, eta proba pilotuetara jo du horretarako. Materia organikoa biltzeko ontzi marroiekin egindako proben bidez, ondorio positiboak lortu ditugu. Izan ere, azken zortzi hilabeteetan 900.000 kg materia organiko baino gehiago jaso ditugu. Esperientzia pilotuen haritik, Usurbilen atez ate jasotako bio-hondakinak ere partzuergoaren konpostaje plantan tratatzen dituzte.

Konpostaje prozesutik eratorritako produktuak lurzoruen egoera leheneratzen eta haien kalitatea hobetzen laguntzen du. Hala ere, konpostak hainbat parametro bete behar ditu. Alde batetik, fisikoak eta kimikoak, konpostaren erabilera zehazteko; bestetik, bakteriologikoak, gaixotasunik ez transmititzeko. Horretarako, hondakinak baldintza jakin batzuetan bildu behar dira, eta produktuak kalitate zehatz batez iritsi behar du tratamendu plantara. Ildo honetatik, materia organikoak biodegradagarria eta ezpurutasunik gabea izan behar du, eta ezin du konpaktatuta edo hartzituta egon. Horrez gainera, sortutako konpost bolumenak bat etorri beharko du konpost eskaerarekin. Izan ere, gehiegi ekoitziz gero, erabiliko ez den materiala hondakinen kudeaketa arloko arazo bihurtuko da berriro ere; oraingoan, ordea, ez da birziklatzeko edo berrerabiltzeko aukera izango.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, Hondakinen Kontsortzioak ahalik eta modurik eraginkorrenean kudeatu beharko ditu hondakin horiek tratatzeko sortuko diren azpiegiturak. Konpostajeari dagokionez, Gipuzkoa osoan bildutako materia organikoa jaso beharko du, mankomunitateek eta udalek nola bildu duten kontuan hartu gabe. Hala ere, hondakinek kalitate baldintza jakin batzuk bete beharko dituzte, konposta lurzoruak leheneratzeko erabiltzeko egokia izan dadin. Gipuzkoan, kontsortzioaren tratamendu plantek (oraingoz, Lapatxekoa) baino ez dute izango horretarako baimena.

Horregatik, laster Gipuzkoako mankomunitate guztiekin hitzarmena sinatzea proposatuko da, 2010eko urtarriletik aurrera udalek eta mankomunitateek jasoko duten konpostaren kalitate baldintzak ezartzeko. Bestalde, bi alderdiek prozesuan izango dituzten betebeharrak zein materia organikoaren bilketa eta kudeaketa iraunkorra bultzatzeko neurriak zehaztuko dituzte.

Honelako proiektuetan nahikoa esperientzia duten munduko beste eskualde batzuen egoera ere aztertu dugu. Adibidez, Italiako iparraldean, Bolonian, giltzadun edukiontzien sistema erabiltzen dute, eta konpostaren purutasuna %99koa da. Flandes ere eredu ona da. Flandesen atez ateko sistema erabiltzen dute, prestatu gabeko landare hondakinak biltzeko; horrek konposta zer merkatu motatara bidera daitekeen pentsatzeko aukera ematen du. Gipuzkoako orografian, ordea, malda handiak daude eta baso eremuen %60an ezin da landatu. Horregatik, konpost gehiena parkeetara eta lorategietara bideratuko da. Konposta ekoitzi ondoren zertan erabil dezakegun aztertzen ari gara, baina argi dugu Gipuzkoan ez dela irabazi ekonomikorik lortuko. Nekazaritza estentsiborako eremu zabalak dituzten beste herrialde batzuetan badago nolabaiteko merkatua, baina garraio kostuak materialaren amaierako prezioa baino handiagoak dira. Gure helburua Lapatxeko plantan 3.500 tona bio-hondakin tratatzen hastea eta 2010ean zifra hori gainditzea da. Jasotako hondakin kopurua handitu ahala, beste azpiegitura batzuk sortuko ditugu. Aintzat hartu behar dugu ekoizpen prozesua oso konplexua dela, amaierako produktuak baldintza zehatzak bete behar baititu; ingurumenera itzulitako materialak segurtasun eta osasun baldintza egokiak dituela bermatzeko, alegia.

Gaur egungo datuen eta Aurrerapen Dokumentuaren helburuen arabera, orain arte Gipuzkoako zabortegiek urtean 260.000 tona zabor jasotzen zituzten. Aurreikuspenei jarraiki, 2016. urtean 53.000 tona konpostaje bidez tratatzeko moduan izango gara, eta konpostak merkatuak onartzeko baldintza egokiak izango ditu. Beste edozein planteamendu posibilista (ekoitz dezagun konposta eta gero ikusiko dugu non erabili) ez da bideragarria. Dirua alferrik erabiltzeaz gain, beste arazo bat sortuko dugu, hondakinak nora bideratu kudeatu beharko delako (eta ezin daiteke zabortegia izan, noski).

Konpostajearen aldeko gure apustua irmoa da, eta babestu egiten dugu, hondakinak kudeatzeko Gipuzkoako estrategiaren ezinbesteko ardatza da eta. Baina zentzuzko apustua ere bada. Badakigu, hondakin asko jaso arren, lortutako material guztia ezin dela erabili, eta, horrez gain, ahaleginaren alderdi ekonomikoa ere aintzat hartzen dugu (zergadunen zenbat diru zuzendu behar dugu hondakin organikoak biltzera?). Bestalde, hondakinen portzentaje handi bat prozesutik kanpo geldituko da beti: zer egin behar da horrekin? Bilketa sistemak defendatzen dituztenek ere zabortegietara 90.000 tona hondakin gutxiago eraman daitezkeela diote. Baina galdera ondokoa da: lehen esan bezala, gaur egun zabortegietara 260.000 tona hondakin eramaten baditugu, eta, beraz, 260.000 - 90.000 = 170.000, zer egingo dugu 170.000 tona horiekin? Egoera teoriko hori onartu eta tesi hori jarraituz gero, zer egingo dugu soberakinekin? Zer egingo dugu konpostatzeko baldintzak betetzen ez dituzten hondakin organikoekin? Zer egingo dugu merkaturatu ezin dugun eta berrerabili ezin den konpostarekin? Galdera hauek ez ditugu ezkortasunetik edo interes ezagatik egiten. Izan ere, konpostajea oso kudeaketa sistema erabilgarria da eta etorkizun oparoa izango du. Baina errealistak eta zentzudunak izan nahi dugu. Egin dezagun konpostajearen aldeko apustua, baina lehenik azter ditzagun, serio eta zorrotz, aukerak.

Eskerrik asko!

Nagore Ipiña
(Lore Gazteak Dantza Taldea)
Arrasate

Gutun honen bidez, Lore Gazteak Dantza Taldeak eskerrak eman nahi dizkie larunbatean herriko plazara gerturatu ziren guztiei. Bereziki, antolatzaileei, Giokela eta Eusko Label markako harategi parte hartzaileei, eta Kajoi tabernari, egindako lan guztiagatik eta antolaketa bikainagatik.

Urteak dira Lore Gazteak Dantza Taldeak zuen laguntza jasotzen duela eta publikoki aipatzekoa dela iruditzen zaigu. Bertako okela eta ardoa bultzatzeko aitzakiaz, bertako kultura ere bultzatzen duzue eta hori ez da lan erraza! Era berean, eskertzekoa da ere Arrasateko txistularien eta okela gisatuaren lehiaketako parte hartzaileen lana. Eta nola ez, eskerrak ere zuei, larunbat arratsaldean herriko plazara hurbildu zineten guztiei sortu zenuten giro ederragatik! Eskerrik asko, denoi!

Memorixa Historikue

Julia Monge
(Debagoieneko Fusilatuen Senitarteko eta Lagunen Elkartea)
Arrasate

Gaurko nobenaixuko ekitaldixen Maritxu Kajoi Komisiñuek Inbuto Preziatuek emungo dutzie Arrasateko Memorixa Historikue lanketan ibili dienai, Trini Ruiz de Alegríari, Jose Luis Uribesalgori ta Juan Ramon Garairi.

Trini Ruiz de Alegría ta Jose Luis Uribesalgo, lelenak 86 urte ta bigarrenak 77, biak diez, beste asko letxe, frankismuen genozidiue lehen pertsonan sufriru dauienak, ta frankismuen urte illunetan ta gero be, gertautakue trasmitiru dauienak.

Trinin anai bi, Pedro ta Francisco Errepublikien aldeko Dragones batalloiko miliziano boluntarixuek, gudako frentietan, lelena Atxabaltan ta bigarrena Intxortako burruketan frankistak hil zittuen. Aitte Valentin, ama Maria, ahizpa Nati, Trini bera, 1936ko setienbrien alde egin euien herrittik, Bilbo, Santander, Frantziara ta Kataluniara, ez zien bueltau Arrasatera 1939ko martira arte. Valentin Zerrajerako bihergiñe, 10 urte eukenetik, 58 urtekin ez euien lanien onartu, gorrixen aitte ta errepublikanue zalako, kale gorrixen itxi euien ta herritik desterrau. Beste anaie Tomas, gudan preso sartu euien ta handik urtenda burruke klasdestinuen jarraittu ta barriro be kartzelan sartu euien 1948xen.

Jose Luis, frankistak Bedoña auzoko Elorrixa baserrire heldu zienien lau urte ta erdi euken. Aitte Dionisio preso hartu euien, ta egun batzuk Arrasateko Udaletxeko kartzelan preso euki ta gero, Ondarretako kartzelara eruen, esan eutzien libre euela, gero Oiartzungo inguruen fusilau ta desagertu euien. Hamar semealaba zien ta arreba nausixenak 13 urte euken. Urte gogorrak bizi biher izen euien. Joxe bera urte batzuk geruau frankismuen burruke klandestinuen Euskadi eta Askatasun-ien buru-belarri sartu zan, ta 1961eko udan Jabier Arizabaletak ta bixek Lapurdira ihes egin biher izen euien.

Juan Ramonen senidiek be gerra galdu euenetakuek izen zien. Aittejaune Juan Bengoa, hau be Zerrajerako bihergiñe, 38 urte eukela preso hartu, Ondarretara eruen ta "libre" itxi ta gero, Hernaniko kanposantuko kanpoaldien fusilaute. Benita amandriai, sei semealabakin, nausixena 14 urtekue, ez eutzien emun lanik Zerrajeran. Aitte, Fermin, Loiola Batalloiko boluntarixue, preso sartu euien; Bedoñako Artia baserrire zazpi urtien bueltau barik egon zan. Bere lagun Jose Mari Lasagabaster *Bentxes*-ekin, Solidario Vasco sindikatuetatik frankismuen *Estado de Excepción* baten erdixe, Unión Cerrajerako 1962ko maiatzeko greba bultzatu euen.

Egixe, Justizia ta Erreparaziñue, ez errepetirutearren garantixak barne frankismuen biktimiendako, hainbeste urte pasau ta gero bete barik dauenien, Maritxu Komisiñokuek guda galdu euenekin akordetie, guretako kristona izan da. Eskerrik asko bihotz-bihotzetik.

Utzi herria bakean

Joseba Ezpeleta
(Bergarako Udaleko Enpresa Batzordeko LAB eta ESK)
Bergara

Azken egunetan, jai ugaritara joan dira ertzainak presoen argazkiak eta presoen aldeko elkartasun mezuak dituzten pankartak kentzera.

Zentzugabekeria honetan beste urrats bat eman dute. Abuztu hasieran, bi ertzain Bergarako udaletxe barrura sartu eta nahiko era harroan, erdara hutsean, jakina, langileon tabloitik gure lankide presoen –Aska, Aittor eta Txapi– argazkiak lapurtu zizkiguten azkenaldi honetan hain famatu nahi duten ostruka politika –ikusten ez dena ez da– aurrera eramanez.

Argi dago honelako ekintzekin herri honetako sektore jakin batekiko maitasun eta afektibitate jarrerak adieraztea kriminalizatu egin nahi dela. Oso garbi daukagu lankide presoen argazkiak jartzea ez dela inolako delitua.

Horren aurrean, Bergarako Udaleko Enpresa Komiteak tinko adierazi nahi du gure lankide, lagun, herritar eta gainontzekoak, era batera edo bestera, aurrean, aldamenean dauzkagula egunerokotasunean eta ezingo dituztela hortik atera. Horregatik, argazkiekin edo gabe, gutarrak direlako sekula ez dugu etsiko guztiak ere gure artean eduki arte. Utzi herria bakean! Euskal presoak etxera!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Kutxa Gordailu Hobaritua

Zenbat eta kutxakoagoa izan, orduan eta interes handiagoa zuretzat.

Urteak igaro ahala harremanak hobeak, baita zure eta kutxaren artean ere. Horregatik, zure leialtasuna eskertzeko, eta ez hitzez bakarrik, Kutxa Gordailu Hobaritua eskaintzen dizugu. Gordailu honekin, zenbat eta gure produktu gehiago izan, orduan eta interes handiagoa zuretzat.
Zatoz eta galdetu. Irabazian aterako zara.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Debagoieneko **GREMIOAK**



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

IZBAR
BERGARA
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
San Lorentzo industrialdea,
Urarte kalea 20
Tel: 943 79 69 91

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Herriak

Arrasate > 14-18 **Bergara** > 19-23 **Aretxabaleta** > 24-26 **Oñati** > 27
Eskoriatza > 28-29 **Antzuola** > 30 **Elgeta** > 31 **Aramaio** > 32 **Gatzaga** > 33

> ARRASATE
Maritxu Kajoiren atzera begirakoa egin daiteke Interneten **> 14**

> OÑATI
Lau sokamutur saio beharrean, hiru izango dira aurten **> 27**

> ELGETA
Ludoteka-gaztelekua gertatzen dabiltza ikasturterako **> 31**

> ARAMAIO
XV. mendearen gaineko bisita gidatu antzeztuak egingo dituzte **> 32**

ARAMAIO > GARAPENA

Tokiko Agenda 21 martxan jartzeko herritarrekin batzartuko da Udala

HERRIAREN EGOERA
Aramaio une honetan zelan dagoen diagnosia egingo dute batzarrean

EKINTZA PLANA
Herriko arlo guztiak ukituko dituen ekintza plana egingo da, herritarrekin lantzeko

Aramaioko udaletxean batzar irekia izango da hilaren 30ean, 19:00etan, Agenda 21 azaltzeko eta lehenengo diagnostikoa egiteko. JOSETXO ARANTZABAL

LEIRE KORTABARRIA > ARAMAIO

Tokiko Agenda 21 ailegatu da Aramaiora. Udalak programa horrekin bat egitea erabaki du, eta hori herritarrei azaltzeko eta hurrengo pausoa emateko –herria zelan dagoen elkarrekin aztertu–, batzar irekia deitu du irailaren 30erako, eguaztena. Udaletxean da hitzordua, 19:00etan, eta batzarrera deituta daude auzo alkateak, herriko hainbat talde eta eragile, udal langileak, eta herritarrak. Izan ere, herritarrek parte hartzea ezinbestekoa da Tokiko Agenda 21ek aurrera egin behar badu: hori da zutabeetako bat.

Aramaioko Udalak orain bi urte eman zituen Tokiko Agenda 21 programan sartzeko lehenengo urratsak. Orain, Zuia izeneko Udaltaldean sartu da, Zuiako koadrilako beste herri batzuekin batera. Hori egin ondoren, "orain beste prozesu bat hasiko da: lehenengo, herriaren diagnostikoa egingo dugu", esaten du Asier Agirre alkateak. Diagnostikoa batzar horretan egingo dute, eta "irakurketa orokorra egingo dugu: herrian zerbait egiten dugunean, horrek beste guztian du eragina, ezin gara geratu bakarrik hirigintzari, ingurumenari edo beste edozein arlori begira", gaineratzen du alkateak.

Batzar horretatik lantaldeak irtengo dira, eta aztertuko dute "orain arte herrian hartu diren erabakiek zer eman duten". Horren guztiaren adibide bat ematen du alkateak: "Herriko urzikinak kudeatzeko, konturatu gara orain arte unean uneko erabakiak hartu izan direla, obrak egiten zirenean etxe edo auzo bakoitzari neurri batzuk jartzen zitzaizkion, baina horrek eragin du ibai guztiak hondatu izana, tokian tokiko irtenbideak hartu izan direlako, eta ez orokorrak".

HERRITARREKIN BATZARRAK

Tokiko Agenda 21 programak herri bakoitzaren uneko egoera aztertzeko balio du, eta, egoera horretatik abiatuz, etorkizuneko udalerria zelakoa izatea nahi den finkatzeko. Hori egiteko, herritarren partaidetzan oinarritzen da, eta etengabeko prozesua da. Parte-hartzea bi modutara egiten da: batetik, herri-batzar irekien bidez, norbanakoekin zein herriko batzorde eta taldeekin lan eginda; eta, bestetik, udaletxean Agenda 21erako teknikari bat egongo da, eta hari iritziak helarazteko modua ere egongo da. Herri-batzarrak bi izango dira: bat diagnostikoari lotuta, eta bestea horren ondorioz irteten den ekintza planari lotuta.

Aramaio da bide hori hartu berri duen inguruko beste herri bat, baina inguruan badugu Tokiko Agenda 21 zelan dabilen eredua, Debagoieneko zortzi herriek Udaltalde 21 Debagoiena sortu zutelako 2004an. Aramaioko Udalak kontuan hartu ditu horko adibideak: "Eskoriatza da gertuen dugun adibidea, eta adibide ona iruditzen zaigu". Etorkizunean, Tokiko Agenda 21en bidetik zer egin daitekeen pista batzuk ematen ditu Asier Agirrek: "Ordenantza aldaketa batzuk egin dituzte Eskoriatzan, eta hemen ere gerta daiteke. Bestalde, herriko ereduak aldatuko dira: lan egiteko ereduak, Udalaren eta herritarren aldetik: autoak zelan erabiltzen diren, saneamendua, bideak, obrak... zelan egiten diren".

ESANAK

"Herriaren egoeraren diagnostikoa egingo dugu lehenengo, arlo guztiei begira, baten egiten denak denean daukalako eragina"

Asier Agirre > Aramaioko alkatea

"ABANTAILAK ASKO DIRA"

Edozein modutan, horiek orain ikusten diren aukera batzuk besterik ez dira; hortik ze irteten den ikusteko dago. Hala ere, etorriko dena Aramaiorendako ona izango dela argi dauka alkateak: "Abantailak asko dira. Lehenengo, garbi izan behar dugu egoera aztertzen gabiltzan neurrian, berau hobetzen gabiltzala; eta, gero, erabakiak hartzen badira, denon hoberako izango da: ingurumena, azpiegiturak... Herritarrak ere igarriko du hori".

MUNDU OSOAN

Ikuspuntu globala, herriko ekintza

Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko prozesua da Tokiko Agenda 21, eta udalerria kudeatzeko modua eta herriaren garapena modu iraunkorrean egin daitezen du helburu. 21 Agenda -leku batzuetan, 21 Programa- Nazio Batuen Erakundeak sortu zuen 1989an, baina 60ko hamarkadatik zetozen kezkek bultzatuta. 21 zenbakia XXI. mendeari erreferentzia da, eta herrian, herrialdean eta mundu osoan egin beharreko ekintzak zehazten dituen plan bat da. Bere filosofiaren oinarrian, herri bakoitzean agintariek eta herritarrek batera lantzea 21 Programa bat; ingurumena eta Lurra zaintzea atzetik datozenendako; edo umeen, nerabeen, emakumeen eta tokian tokiko indigenen garapena daude.

OSPAKIZUNA > MARITXU KAJOI 2009

Has gaitezke kontatzen atzeraka, Maritxurako

Aurtengo berritasuna da Internetera ere egin duela salto Maritxu Kajoi zaindariak: 'www.maritxukajoi.org' helbidean atzera begirako ederra egin daiteke

Kartel iragarlean dotoretasuna eta Arrasateko ikurrak uztartu dituzte. GOIENKARIA

UBANE MADERA > ARRASATE

Maritxu Kajoi festaren ataria da gaurko eguna, egubakoitza: Nobenaixue. 18:30erako egin dute hitzordua, Maritxu Kajoipean. Lapueblako (Arabako Errioxa) ardoa eta Oletako (Aramaio) gazta ekarri dituzte Maritxu Kajoi Komisiñokuek, "txikiteroen zaindariaren bederatziurrenari behar bezalako hasiera" emateko.

20:00etan, berriz, banatuko dituzte 2009ko "inbutu preziatuak", Oktubre Taldeari eta Debagoieneko Fusilatuen Elkarteari, Lau Haizetara Gogoan, "egin duten lan handia aitortu eta eskertzeko; egindako lana fruituak ematen dabilelako", azaldu dute Komisiñokuek.

ESKAPULARIO GORRIA

Gaurkoaren ostean, atzera kontaketa hasiko da, urriaren 2an Maritxu Kajoi eguna iritsi arte. Bitartean, baina, girotzen joateko, eskapularioak erosi ahal dira, 2 eurotan, "betiko tabernetan".

Gorria du aurten kolore, "kolore bizia, ardoaren kolorea delako". Eta eskapularioan atzeko bertsoan Maritxu Kajoirekin eta txikiteoarekin lotura handia izan eta aurten hil diren hiru lagun ekarri dituzte gogora: Meneta (Meneta taberna, Musakola), Txanpi (bodega, Musakola) eta Aizkora (txikitero fina).

Edozelan ere, eskapularioa aurretik erosi ezean, Maritxu egunean 12:00etan hasiko dira saltzen, ohiko kantoietan, ahalik eta jende gehienak eraman dezan, hori da-eta Maritxu Kajoi Komisiñokuek egin duten eskaera: "Jendeak ondo pasa dezala, dotore-dotore jantzita atera dadila eta, jakina, eskapularioa lepotik zintzilik duela".

MIRARIA AGINDUTA

Bestalde, Komisiñokuek jakinarazi dute Maritxuk "agindu" duela miraria, 20:30 inguruan, zaindariari egiten zaion lore eskaintzaren ostean. Koadrilei eta herritarrei dei egin gura diete, beraz, loreak eraman diezaioten txikiteroen zaindariari.

oharrak

SANMIGELAK

> Garagartza auzoko jaiak

Gaurtik, egubakoitza, domekara arteko ospakizunak antolatu dituzte Garagartzan. Batzuk aipatzearren, bihar, zapatua, umeendakoak izango dira: 12:00etatik 14:00etara herri kirolak eta 18:30etik 20:30era Gorriti eta bere animaliak. Domekan, segway ibilgailu ekologikoak eta umeendako salto egiteko oinetakoak eramango dituzte, gura duenak proba ditzan, 13:00ak arte. Bestelakoen artean, gaur eta bihar buzkantzak prestatuko dituzte auzo-etxean, 19:00etan, eta gaur eta bihar, 22:00etan, dantzaldiak izango dira, Iñigo eta Titau taldeekin.

HILERRIKO GORPUZKIAK

> Nitxoak husten

2010eko urtarrilean hasi behar dira husten San Kristobal hilerrian bigarren seihilekoan lurperatutako hildakoen nitxoak. Gorpuzki horiekin zer egin zeresanen bat duenak irailaren 30a baino lehen jo behar du Udalera. Ezer esan ezean, hilerriko hezurtegi komunean utziko dituzte gorpuzkiok.

TAILERRA

> Gizonezkoendako tailerra

Aitaren papera seme-alaben heziketan aztertuko dute irailaren 29an Kulturateko Loramendi aretoan, 19:00etan. Luis Cerron psikopedagogo, orientatzaile eta familia bitartekariak gidatzen du, eta 0-16 urteko neska-mutikoen gurasoei zuzenduta dago. Parte hartzeko ez da izenik eman behar.

GAZTEAK ETA UMEAK

Skaterako pistatxoa, bihar San Andresen

Skate Jaia antolatu dute AEDk eta Txatxilipurdik Bedoñabeko patioan

U.M. > ARRASATE

Skatean jarduteko moduluak, *speaker*-a, hankapaluak, monozikloak... denetik probatu ahal izango du bihar, zapatua, San Andresko Bedoñabe eskolaren patiora doanak, 17:00etatik 20:00ak arte. Grafitia ere margotuko dute neskek. Hori guztia AED eta Txatxilipurdi elkarteek antolatutako Skate Jaia da, Arraska skate taldearen eta udal hezitzaileen laguntzarekin antolatutakoa. "Bogan dagoen tendentzia dira kaleko kirolak; guk gazteen tendentziak ezagutu behar ditugu eta eurekin lan egin, gura baditugu erakarri", azaldu du Lander Juaristi Txatxilipurdiko kideak. AEDko arduradun Itxaro Artolak zera ere gaineratu du: "Skatezaleek diote euskaldun gutxi mugitzen dela skate munduan, eta hori ere landu gura dugu".

LARUNBLAI

Bestalde, bihar Musakolan tailerrak egingo dituzte, 12 urtera artekoendako, 11:00etatik 13:00ak arte.

Agirre-Etxe
Haragia - Urdaitegia
Autozerbitzua
Zarugalde kalea 33
Arrasate
943 79 15 90
Giokela GURE KALITATEA

Ondo pasau
San Migelak!

haragia
Jose Ramon Otamendi
Giokela GURE KALITATEA

Ondo pasau
San Migelak!
Olarte 13 Arrasate | Tel.: 943 79 62 28 - 606 83 03 20

San Migelak 2009

Garagartzako jaiak Arrasate

Irailaren 25ien, Barikue edo Eguakotza

19:30	Jaixen hasierie, ikurriñe igo eta etxaflero jaurtiketie.
19:30 – 22:00	Trik itilarixek ibiliko die kalejiran
22:00	Dantzaldixe IÑIGOrekin.

Irailaren 26xan, Zapatue

10:30	Garagartzako Leze-Txiki ekipoko gaztetxuenen artien partidue
12:00	Meza auzoko hildakoen alde
12:00 – 14:00	Umeindako herri-kirolak AMA-LURekin
16:00 – 18:30	Garagartzako VI. Kobate Open futbol partiduek (umiendako)
18:30 – 20:30	Gorriti eta bere animaliak
22:00	Dantzaldixe TITAU taldiaz
23:00	Su-artifizialak.

Irailaren 27xen, DOMEKA

10:00 – 13:00	SEGWAY ibilgailu ekologikuek eta, umiendako, salta egiteko oinetakuek.
11:00	Meza nagusixe
13:00	Txikitxu taldiaz euskal dantzak.
14:00 – 14:30	Musika apur bat, TITAU taldiaz
14:30	Auzo bazkaixe
	Bazkalostien erromerixie, TITAU taldiaz

Irailaren 29en, Martitzena

19:00	Meza samigelen oroimenez
	Meza ondoren luntxa egongo da auzoetxien

BARIKUEN ETA ZAPATUEN
BUZKENTZAK
EGONGO DIE ATSALDEKO ZAZPIRETATIK AURRERA, AUZOETXIEN

UGARAN
Jatetxea

ARRETA HANDIKO SUKALDEA
GIRO ABEGIKORRA

Garagartza auzoa
943 79 76 58
ARRASATE

Kobate HARROBIA
Kobaundi HORMIGOIAK
Ondo pasau Garagartzako jaixetan
Tel.: 943 71 24 03. Faxa: 943 77 02 51 Posta kutxa: 85. Garagartza auzoa.

Arteaga
Landetxea
Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

GARAGARTZAKO SANMIGELAK > BUZKANTZA-JANA

Garai berrietara egokituz, aurrera dirauen betiko tradizioa

Aurten ere buzkantza-jana izango da Garagartza jaietako protagonista: gaur eta bihar auzoetxean

Iazko San Migel jaietako buzkantza-jana, Garagartzako auzo-etxean. GOIENKARIA

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Urteroko hitzordua da askorendako Garagartzako sanmigeletako buzkantza-jana. Bertako bereizgarri dira, eta horien aurretik ardikiak jaten baziren ere, betidanik izan dira ospetsuak. Bittor Etxagibel auzo alkate ohiak *arrazoia* azaldu digu: "Esaera batek dio sanmigeletarako egiten diren buzkantza guztiak onak direla, San Migelek bedeinkatzen dituelako".

Lehen, aspaldi, jakiok auzoko tabernek saltzen zituzten, eta irabazitakoaren zati bat jaiak musikaz alaitzen zituztenendako zuzentzen zen. Gero, auzo elkartea zabaldu eta tabernak itxi zirenean, ohiturari eusteko Arrasatera jo zuten auzotarrek. Hala, Etxagibel lagun zuen Manuel Agirreurreta harakinarekin elkartu zen. Ordutik, eta dagoeneko badira 36 urte, sanmigeletan ez da buzkantzik falta izan: "Hasieran ardi bat edo biren odola erabiltzen zen, baina urtez urte indar handiagoa hartzen joan da", dio Etxagibelek. Hain da handia Garagartzako buzkantzek hartutako indarra, azken urteetan Agirreurretarendako ezinezkoa izan da buzkantzak bakarrik prestatzea. Urte asko dira Jose Ramon Otamendirekin erdi bana prestatzen dituena.

DATUA

300

KILO BUZKANTZA

Aurten 300 kilo buzkantza prestatu dituzte Agirre Etxe eta Otamendi harategiek Garagartzarako; beste horrenbeste prestatu dute euren harategietarako.

LANA ETA PAZIENTZIA

Agirreurretak dioenez, "buzkantzak egitea ez da zaila, baina lan handia eta denbora luzea eskatzen du". Aurten 300 kilo prestatu dituzte Agirreurreta eta Otamendik. Hala ere, Agirreurretak dio azken urteetan kontua lasaitu egin dela. Izan ere, hauxe gogoratzen du: "Izan dira urteak bion artean ia 1.000 kilora heldu garela".

ARDI ODOLA, GALARAZITA

Buzkantzen tradizioak ere garai berrietara egokitu behar izan du. Egun, ezin da ardi odolik erabili, osasun arrazoiengatik. Gainera, oso zaila litzateke hainbeste ardi odol lortzea. Hortaz, buzkantzak txerri odolaz egiten dira egun. Etxagibelek dioenez, "lehen esaten zen ardi odolaz egindakoak hobeak zirela, baina ia barazki barik egiten ziren; egungoak goxoagoak dira". Garaiak aldatu egin dira, buzkantzak ere bai.

POLITIKA

Euskal presoen argazkiak kenduta

Oraingo honetan, tabernetan izan da polizia, presoen argazkiok kentzen

GOIATZ ARANA > ARRASATE

Euskal presoen argazkiak kendu zituen Ertzaintzak atzo, eguena, bost tabernatatik: Irati, Basati, Ekaitz, Iluntz eta Uarkapeko tabernan. Poliziaren esanetan, Audientzia Nazionalaren agindupean jarduten zuten, fiskaltzak eskatuta, konprobatzeko ea estalezimendu publikoek betetzen duten terrorismoaren biktimen legeak dioena.

Lekukoen arabera, baina, guztiak ez zituzten eraman, "paretan itsatsita zeudenak ezin izan zituzten kendu". Hori bai, argazkiez gainera, zenbait lekutatik pegatinak eta presoen aldeko itsulapikoak ere eraman zituzten. Eta argazkiak atera zituzten. Salatu dute "modu harroan" etorri zela polizia eta gaztelera hutsean zuzendu zitzaizkiela.

ikasi euskara
eman izena
Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak
aek-n
www.aek.org

• EUSKALDUNTZEKO MAILA GUZTIAK / ERRELEBOAK ERE BAI

• ALFABETATZEA 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean.

• MINTZA TALDEA 2 egun astean, ahozkoa lantzeko

• 1. MAILA 2 egun astean

• 2. MAILA 2 egun astean

• 3. MAILA / EGA 2 egun astean

• 4.MAILA / 4. PERFILA 2 egun astean + proiektua+tutoretzak

• AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA (ordu eta erdi mintza astero + 45 minutu tutoretza astero + etxerako lan pertsonalizatua)

Matrikula zabalik irailaren 30era arte
MATRIKULATZEKO ORDUA:
Goizez 11etatik 1etara arratsaldez 6etatik 8etara
Udalaren laguntzaz beka sistema

ERDU AEK
Garibai etorbidea 14 3 ARRASATE
943 77 03 69 *arrasate@aek.org*

ANTZERKIA > 'MUNSTROAK AKATU'

Neskato baten errealitatearen eta imajinazioaren arteko antzerki lana

Nagore Navarrok zuzendutako antzerkia Amaia antzokian izango da bihar, zapatua, 17:00etan; batez ere 7 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago lana

Hiru aktorek parte hartuko dute *Munstroak akatu* lanean. GOIENKARIA.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Haurrei zuzendutako antzerkia izango da zapatuan Amaia antzokian. 17:00etan hasiko da ikuskizuna, eta haurrei zuzenduta egoteaz gain, haiek biolentziarekin duten harremana azaltzeko balioko du antzerkiak.

9 URTEKO NESKATOA

Bilboko Mutante antzerki taldeak eskainiko du lana. Gaur egun hedabideetan hainbeste entzuten den gai bat ardatz hartuta, Aneren istorioa azalduko dute.

Ane 9 urteko neskatoa da. *Harry Potter, Calvin eta Hobbesen* komikiak eta *Operación Triunfo*-ko Soraya ditu gustuko Anek. Ostera, ez du batere gustuko eskolara joatea. Baina, gurasoek uste dutenaren kontra, ez da ikastea gustuko ez duelako. Gustuko ez dituenak ikaskideak dira. Izan ere, beti zirikatzen dute.

Batzuetan *Aneitor* dela amets egiten du, eskolara hegaz joaten da, eta denak aho zabalik utzi.

BELDURREI AURRE EGIN

Anek duen arazoa da inork ez diola beldurrei aurre egiten erakutsi. Hala, ikaskideek zirikatzen dutenean paralizatu egiten da.

Antzerkia bi mundu horien artean gertatzen da: alde batetik, Aneren errealitate latza eta, bestetik, bere imajinazioa. Bi munduen arteko oreka bilatzea da gure protagonistaren helburua, bizi izaten ikastea eta pertsonalitatea garatzea.

Mutantek aurkezten duen antzezlena bereziki haurrei zuzndutakoa da: abestuz, dantzatuz eta jolastuz, elkarrekin ederto pasatzea da kontua . Hiru pertsonaia egongo dira taula gainean: Ane eta bere lagun Jorge Carcaman eta Lolita Quebrantahuesos. Gurasoen papera txotxongiloek egingo dute.

MUTANTE TALDEA

Mutante antzerki taldea 2003. urtean sortu zuten Nagore Navarrok y Quique Gagok. Lan hori, gainera, Nagore Navarrok berak zuzendu du. Esan behar da 7 urtetik gorako haurrei zuzenduta dagoela lana. Zuzendariak adierazi duenez, antzerki lana ez dago modu errealistan idatzita; batez ere, imajinazioa erabili dute.

IKASTAROA > ARRASATE MUSIKAL

Dantza garaikidea, denon eskura

Balleteko irakasle Jana Fuentek emango ditu eskolak astelehen eta eguaztenetan

A.E. > ARRASATE

Arrasate Musikalek ikastaro berritzaile batekin hasiko du ikasturtea. Aurten, lehenengoz, dantza garaikide eskolak emango dituzte. Arrasate Musikalen balleteko irakasle den Jana Fuentek urtebeteko ikastaroa emango du Monterronen (Arrasate Musikalen). Astebete barru, urriaren 5ean hasiko da ikastaroa. Astelehen eta eguaztenetan emango ditu eskolak Fuentek, 20:00etatik 21:00etara.

14 URTETIK GORAKOENDAKO

Ikastaroan parte hartzeko beharrezkoa izango da 14 urte beteta izatea. Bestalde, ez da beharrezkoa izango esperientziarik izatea. Edorta Aiastui Arrasate Musikaleko ekintza arduradunak adierazi digu nahiko izango dela "gogoa eta gorputza hobeto ezagutzeko nahia". Izena eman gura duenak Monterronera joan beharko du astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:00etara bitartean.

Orain arte Jana Fuentek ume txikiekin lan egin izan du balletean; horregatik, ikastaroa 14 urtetik gorakoendako izango da.

KOMUNIKATZEKO MODUA

15 urte daramatza Fuente gasteiztarrak Arrasaten eskolak ematen. Dantza garaikide eskolak ematea bere ideia izan dela aitortu digu, "berritu" egin gura zuela.

Dantza garaikidea zer den azaltzeko galdetuta, Fuentek dio komunikatzeko modua dela. "Guztiz betetzen zaituen ariketa da. Ezagutu, entzun, gozatu... egin behar du dantzariak. Esan daiteke dantza garaikidea klasikoaren aurka sortu zela, baina, era berean, klasikoan oinarrituta dago", dio Fuentek.

Gaineratu du dantza garaikidea ez dela klasikoa bezain zorrotza. "Baina, era berean, ideia bat komunikatzeko aukera ematen du; eta esan behar da sinplea eta dotorea dela", azaldu du Fuentek.

Ikastaroa urrian hasiko dute eta ekainera arte iraungo du. "Egingo dugu, besteak beste, dantza garaikideko teknikak landu, luzaketak, gorputza ezagutu, inprobisazioa... Esan bezala, ez da derrigorra aurretiko esperientzia izatea", gogoratu du Jana Fuente irakasleak.

> KONTZERTUA

Urrira atzeratu dute bihar egitekoak ziren IV. Taupa festibala

Taupa aurrealdeko terrazan IV. Taupa festibala egitekoak ziren bihar, zapatua. Baina AEBetako The Lost Crusaders taldeko kideek arazoak izan dituzte Ingalaterrako aduanan bisatuarekin eta ezin izan dira Arrasatera etorri. Hala, beste bi taldeek, Arrasateko Los Galernak eta Foxy Boxxik ere kontzertua bertan behera uztea erabaki dute. Taupako arduradunek adierazi digute urrira atzeratu dutela kontzertua; baina data oraindik zehazteko dago. Amerikarrek energiaz betetako diskoa ekarriko dute.

ERRUGBIA > DENBORALDI-AURREA

Arrasateko neskek Durangorekin osatuko dute aurten errugbi taldea

Jokalari faltan zeudelako erabaki dute bi taldeek bat egitea

X.U. > ARRASATE

Aurten, Arrasateko neskek eta Durangokoek elastiko bera defendatuko dute. Eta hori ere ez da erabat zuzena, batzuetan Arrasateko kamisetarekin jokatuko dutelako eta bestetan Durangokoarekin. Hori da bi taldeak batzeko orduan hartutako erabakietako bat. Arrasateko neskak Mojategin entrenatuko dira eta hamabostean behin Durangon egingo dute entrenamendu saioa –gaur, egubakoitza, durangarrak etorriko dira Mojategira entrenatzera–.

Partiduak ere tartekatuta jokatuko dituzte, batzuetan Mojategin, beste batzuetan Durangon. Eta, talde berriak hastera doan denboraldiari begira helburu zehatza du: Espainiako txapelketa jokatu ahal izatea.

SENIORRAK, LIGA HASTEAR

Senior mailako taldea, bestalde, urriaren 3ko eta 4ko asteburuan hasiko da ligan lanean –Gaztediren kontra izango dute lehenengo partidua–. Euren multzoan Gaztedi, Durango B, Elorrio, Gernika B, Bera Bera eta Universidad de Cantabria taldeak izango dituzte, eta lehenengo bi sailkatuek igoera fasea jokatuko dute.

Datorren astean liga hasi aurretik, Arrasatek lagun arteko partidua jokatuko du bihar, zapatua (Mojategi, 16:30), Ordiziaren kontra. Kontrario gogorra izango da hori, nazional mailara igo berri den taldea da-eta.

Arrasateko taldeko neskak, Mojategin. ART

Barakaldoren kontrako ligako partiduan Jonan Eskibel jaurtiketa egiteko gertu. GOIENKARIA

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Edu Orgaz: "Bost onenen artean egon nahi dugu"

Ford Mugarri Arrasatek oraingo asteburuan hasi behar zuen liga txapelketa, baina Urdulizek partidua atzeratzea eskatu du

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Denboraldi-aurrean egindako lan onaren ondoren, Ford Mugarri Arrasateko mutilak liga hasteko deseatzen daude, baina astebete gehiago itxaron beharko dute, oraingo asteburuko kontrario Urdulizek partidua atzeratzea eskatu du-eta. Hain zuzen ere, aste barruan Arrasateko taldeko ordezkariak hori ibili dira negoziatzen, baiezkoa emanez gero partidu hori ez dutela Urdulizen jokatuko, Iturripera etorri beharko dutela haiek.

JENDEA GOGOTSU

Aurten ere Edu Orgazek izango du taldea zuzentzeko ardura, oso motibatuta dagoen taldea: "Jendea oso gogotsu dago; neurri handian, denboraldi-aurrean ikusi dugulako maila oneko eskubaloia egiteko gauza garela".

Besteak beste, joan den astean Gasteizko Gure Auzune taldearen kontrako garaipenak (22-31) eta *Pitxi* Herreroren omenaldian Arrateren kontra egindako partiduak erakusten dute baietz, aurten taldeak beste aurrerapauso bat egin dezakeela: "Nik uste dut iaz malda bat gora egin genuela, Euskadiko txapelketan zazpigarren sailkatuta. Eta, iaz ez bezala, aurten lesioek errespetatzen bagaituzte lehenengo bost sailkatuen artean egoteko moduko taldea dugula uste dut. Noski, gauza asko ditugu hobetzeko, baina denboraldi-aurrean erakutsi dugu oso ondo defendatzeko gauza garela eta kontraerasoan ondo moldatzen garela".

Erronka berriari aurre egiteko Orgazek iazko talde bera izango du: "Blokea mantentzeko gauza izan gara, eta hori garrantzitsua izan da".

ESANAK

"Denboraldi-aurrean jokalariek ikusi dute ondo joka dezakegula; horrek motibatu egin ditu jokalariak"

"Iazko blokea mantentzeko gauza izan gara, eta hori garrantzitsua da"

Edu Orgaz > Entrenatzailea

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

arbolapeta
arrasate
beinke

PUB HAIZEA
arrasate

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

JENDARTEA > BERDINTASUNA

Udalak genero desberdintasunak desagerrarazteko dihardu lanean

Egungo egoeraren digagnostikoa egiten hasi dira eta osatzeko herritarrekin bilerak egingo dituzte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udalak Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Diagnostikoa eta Plana egin eta abian jarri nahi ditu 2009a bukatu aurretik. Udalaren asmoa da genero desberdintasunak desagerrarazteko jarduerak eta ekintza positiboak bideratzea. Herrian egiten den halako lehenengo plana da eta Udalak Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izango du.

Ekimena garatzeko, herritarren parte-hartzea nahi dute. Horretarako, parte-hartze prozesua abiaraziko dute eta bi unetan egingo da: bata, gaur egungo egoeraren diagnostikoa egiten laguntzeko, eta bestea, datozen urteetarako planari ekarpenak egiteko eta proposamenak jasotzeko.

Horretarako, arlokako sei lantalde osatu dituzte herritar eta eragileekin eta lantalde bakoitzarekin bi batzar egingo dituzte (ondoko koadroan): lehenengo batzarrean, arlokako diagnostikoa osatuko dute. Batzar horiek izango dira iraileko azken bi asteetan. Bigarren batzar sortan, berriz, aurrera begira landu beharreko ildo eta ekintzak definituko dituzte eta azaroaren lehenengo hamabostaldian izango dira.

NOLA PARTE HARTU

Udal iturriek jakinarazi dute Bergarako emakume eta gizonen aukera berdintasunaren gainean iritzia eman nahi duen edonork edo lantaldeetan parte hartu nahi duenak Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Idurre Amozarrainekin jarri behar duela harremanetan. Horretarako, 943 77 91 65 telefono zenbakira deitu behar da.

Egutegia

Kultura lantaldea
Irailak 26, 09:00-11:00.

Kirola lantaldea
Irailak 26, 09:00-11:00.

Enplegua eta lana lantaldea
Irailak 26, 11:15-13:15.

Hirigintza, garraioa eta ingurumena lantaldea
Irailak 26, 11:15-13:15.

Hezkuntza lantaldea
Irailak 30, 18:00-20:00.

OHARRA: Batzar guztiak kultura etxean izango dira.

JAIAK > SANMIGELAK ANGIOZARREN

Danborra jotzen hasiko dituzte jaiak

M.B. > BERGARA

San Migel jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta martitzenera arte Angiozarren. Besteak beste, gaur, danborrada eta herri afaria izango dira. Afarirako, gainera, sagardo kupel bi jarriko dituzte plazan. Domekako egitarauaren barruan, ekitaldi berezia ere egingo dute. Hain zuzen, Angiozarkoak AHTren kontra daudela argi gera dadin, plaka jarriko dute plazan, honako testuarekin: *Angiozar bailarako herritarrok, berez dagozkigun eskubide demokratikoak gauzatuz, 2007ko ekainaren 24an ezetz esan genion AHTak bailara honetan eragingo duen sarraskiari.* Bestalde, domekan jokatuko den III. Angiozar Hiri Torneoan oroigarria emango diote Mikel Gallastegiri, Euskal Herriko eta Gipuzkoako herri arteko pilota txapelketetan egindako lanarengatik.

Auzoko umeek hartuko dute parte danborradan, nagusien laguntzarekin. GOIENKARIA

Egitaraua

EGUBAKOITZA, 25

19:00 JAIEN HASIERA. Ikurrina jarriko dute eta etxafuegoak jaurti. Horren ondoren, DANBORRADA egingo dute Bergarako gazte bandak lagunduta.
19:30 Patata tortilla TXAPELKETA. Gero afaria egongo da plazan, norberak eroandakoarekin.
22:00 KARAOKEA.
01:00 Galtzontzilo eta kulero LEHIAKETA.

ZAPATUA, 26

14:30 PLATER TIROKETA.
17:00 Haurrendako JOLASAK.
17:30 ARKU TIROKETA.
18:00 Briska TXAPELKETA Pagomendi elkartean.
19:00 BURUHANDIAK.
20:00 TRIKIPOTEOA.
21:30 Sardina JANA.
Kafe ondoren, DANTZALDIA egongo da goizaldera arte, DJ Oihan Vegarekin.
Gero, TXOKOLATE beroa banatuko dute.

DOMEKA, 27

11:30 MEZA NAGUSIA.
12:00 Dultzaineroak, erraldoiak eta buruhandiak.
Ondoren, *Angiozarrek AHTri ez* plaka jarriko dute
13:00 PILOTA PARTIDUAK. III. Angiozar Hiri Torneoko finalak jokatuko dira.
17:00 Nagusien HERRI JOLASAK.
19:00 ZEZENTXOAK.
19:00 Mus TXAPELKETA Pagomendin.

MARTITZENA, 29

11:00 MEZA NAGUSIA, erretiratuen abesbatzarekin.
Meza ostean, LUNCHA egongo da erretiratuendako Pagomendi elkartean.
13:00 TRIKITILARIAK kalejiran.
16:00 PUZGARRIAK.
19:00 Haurrendako MERIENDA.
20:30 San Migelen ZERURATZEA.

POLITIKA

Afiliatuen %99k jarraitzen dute EAn

M.B. > BERGARA

EA alderdiak jakinarazi nahi die afiliatuei, jarraitzaileei eta herritar guztiei, oro har, afiliatuen %99k Eusko Alkartasunean jarraitzen dutela. Bergarako EAk garbi laga nahi izan du hori, Hamaikabat –Alkarbide lehenengo– alderdiaren sorreraren bueltan egondako gaizki ulertuak erabat argitzeko.

Hain justu, alderdiko kideen nahia jakiteko, irailaren 11n batzarra egin zutela azaldu dute EAko ordezkariek, eta "baja bakarra" egon zela: "Batzordeko lehendakaria", alderdiko ordezkariek gehitu dutenez. Horrekin batera, gehitu dute EAk Udalean duen zinegotziak ere alderdian jarraitzen duela.

Irailaren 11tik batzordea deseginda dagoenez laster berria eratzeko bilkura egitekoak direla ere aurreratu dute. Hor erabakiko dituzte batzorde berria osatuko duten kideak.

Jon XXIII.a plaza
(Euskadiko Kutxaren atzealdean)
BERGARA

FUNDADA EN 1882

Bertako produktuak banatzailearen prezioan!

Larchago ardoak*
•
Nafarroako barazki ekologikoak
•
Oliba-olio birjina estra

Irailaren 28an
INAUGURAZIOA

Zatoz ikustera!

* Larchago ardo onduak Alemaniako *Mundus Vini* 2009 txapelketan zilarrezko domina jaso du.

ROMATET

Martin Gallastegik 100 urte

Bergararrak irailaren 10ean bete zituen 100 urte. Moiua-aldeko baserrian jaio zen, nahiz eta 19 urterekin Zarautzera joan zen bizi izatera. Gaur egun Zumaiako nagusien egoitzan bizi da. Egur-tailugile aparta izateaz gain, asko idatzitako gizona ere bada: nobelak, olerkiak, egunkarietarako kolaborazioak...

UDALA > EUSKARA BATZORDEA

Ume eta gazteendako eskolaz kanpoko euskara saioak Udalaren eskutik

Lehen Hezkuntzako ikasleendako eta 5 eta 16 urte arteko etorkinendako errefortzu saioak dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udaleko Euskara batzordeak ume eta gazteendako eskolaz kanpoko euskara eskolak antolatu ditu ikasturte berrirako. Eskolok antolatu ditu Jardun euskara elkartearekin eta Udal Euskaltegiarekin elkarlanean.

Hiru motatako ikastaroak antolatu dituzte: alde batetik, Lehen Hezkuntzako ikasleendako euskara saioak; beste alde batetik, 5 eta 12 urte bitarteko ume etorkinendako euskara ikastaroak; eta azkenik, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxo etorkinendako euskara ikastaroak.

LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK

Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, lehen mailatik hasi eta seigarrenera bitarteko ikasleendako izango dira euskara errefortzu saioak. Arrizuriaga jauregian izango dira, astean birritan. Urteko kuota da 22 euro eta lehen saioetan ordainduko saio begiraleari. Informazio gehiagorako deitu Jardun elkartera, 943 76 36 61 zenbakira.

UME ZEIN GAZTE ETORKINAK

Ume etorkinendako euskara errefortzuei dagokienez, umeok ikastetxeetan ikasten dutenaren osagarri izango dira saiook. Urriaren 5ean hasi eta ekainaren 11n bukatuko dira, eta izango dira astean lau egunetan, Arruriaga jauregian. Ikasturte osoko kuota da 22 euro eta kopuru hori osorik bueltatuko da baldin eta asistentzia %85 edo handiagoa bada.

Dena den, umeon integraziorako euskara ikasteak duen garrantzia kontuan izanik, Udaleko Gizarte Zerbitzuek dirulaguntza bereziak izango dituztela aurreratu du Udalak. Informazio gehiagorako deitu Jardun elkartera.

Gazte etorkinendako euskara errefortzuen kasuan, urrian hasi eta ekainean bukatuko dira. Eskolak izango dira martitzen, eguazten eta eguenetan, 17:15-18:30 ordutegian, Udal Euskaltegian. Ikasturte osoko kuota dira 22 euro eta kopuru hori osorik bueltatuko da baldin eta asistentzia %85 edo handiagoa bada. Dena den, gazte horien integraziorako euskara ikasteak duen garrantzia kontuan izanda, Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuek dirulaguntza bereziak izango dituzte kopuru hori ordaintzeko zailtasunak dituztenendako. Informazio gehiagorako deitu Udal Euskaltegira: 943 76 44 53 da zenbakia.

Iazko ikasturtean 55 ume aritu ziren Jardunekin errefortzu saioetan –25 ziren etorkinak–; Udal Euskaltegiko saioetan, berriz, 10 gazte.

oharrak

IZENEMATEA

> Zabalik dago izenematea Eskola Kirolean

Urriaren 2ra arte dago zabalik. Irailaren 28an hasiko da lehen jarduera, saskibaloia. Jardunaldiak berriz, urriaren 3an hasiko dira.

IKASTAROA

> Sorosle eta sorospen ikastaroa urrian DYArekin

Urriaren 5ean hasi eta 26ra arte izango da, 19:00-21:00 ordutegian, astelehenetik egubakoitzera, kultura etxean. Ikastaro amaierako probak gainditzen dituenak sorosle titulua eskuratuko du. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 943 46 46 22 zenbakira.

UDALA

> Azokako eta azoka txikiko tasak ordaintzeko epea zabalik

Udaletik jakinarazi dute azokako eta azoka txikiko tasak ordaintzeko epea zabalik dagoela azaroaren 21era arte. Helbideratutako ordainagiriak dagoeneko zordundu dira; irailaren 21ean, hain justu. Helbideratu gabekoak postaz helaraziko dira eta ordainketa egin ahalko da udaletxean edo baimendutako finantza erakundeetan.

ALDERDI EGUNA

> Alderdi Egunera joateko autobusa antolatu du EAJk

Hilaren 27an Forondan ospatuko den Alderdi Egunera joateko autobusa antolatu dute. 09:00etan abiatuko da autobus geltokitik. Autobuserako izena emateko deitu 943 76 47 00 telefono zenbakira.

IZENEMATEA

> Xipizaro ludotekan izenematea zabalik dago

Izena Xipizaro ludotekan emango da, 17:00-19:00 ordutegian (Agorrosingo Ekintza Guneko lehenengo solairuan).

IKASTAROA

> Yoga eta meditazioa egiteko ikastaroa antolatu dute

Egubakoitzetan izango da, 15:30-17:00 eta 15:15-18:45 ordutegietan, Lamaño-Etxeberri nekazari turismoan. Informazio gehiagorako deitu 654 94 87 26 zenbakira (Carmen).

JARDUN

> Simon Arrietan egongo da gaur, egubakoitza, jolasleku ibiltaria

17:00etan hasita 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek Jardunekin jolas egiteko aukera izango dute, Simon Arrietan.

Iraia Elias eta Ainhoa Alberdi dira protagonistak. GOIENKARIA

ANTZERKIA > GAUR ZABALOTEGIN

'Eta Karmele?', emakumeen kontrako indarkeriaren gaineko gogoeta fina

Samara Velteren lanean oinarritutako antzezlana da; emanaldirako sarrerak 5 eurotan salgai

EDU MENDIBIL > BERGARA

Gaur, egubakoitza, Ainhoa Alberdi eta Iraia Eliasek Samara Veltek idatzitako *Eta Karmele?* antzezlana taularatuko dute. Hitzordua Zabalotegiko aretoan izango da, 22:30ean. Absurduaren antzerkitik gertu dago Samara Velteren lana; umorea erabilita, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko gogoeta fina egitea da helburua.

BI AKTORE

Esan bezala, bi aktore, Iraia Elias eta Ainhoa Alberdi izango dira agertokian. Bi emakume auto batean eserita. Nondik nora doan ez dakigun bide bat. Karmeleren zain... Baina zein da Karmele? Ez da ezer gertatzen, ez dator inor… eta, bien bitartean, ikusleari hainbat galdera egingo dizkiote. "Bi emakumeren arteko elkarrizketa da antzezlana, umoretsua, eroa eta gazi-gozoa, pentsamendu zentzudunenetik egoerarik absurduenera pausu txiki bat besterik ez dagoela erakusten diguna", diote protagonistek.

Gaurko emanaldirako sarrerak 5 eurotan salgai jarriko dituzte. Zabalotegiko leihatila emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago irekiko dute.

JOSU GARAI

Kirol argazkien erakusketa Aroztegin

Domekara arte ikusgai egongo dira, Aroztegi aretoan, kirol argazkien lehiaketara aurkeztutako irudirik onenak. Guztira, 44 argazki jarri dituzte ikusgai, tartean koloretan eta zuri-beltzeko kategorietan saritutakoak: *Somo* (Juan Gil legazpiarrarena) eta *Luchadores 2* (Berangoko Javier Fernandezena) hurrenez hurren. Aroztegiko aretoa ohiko ordutegian izango da zabalik. Gaur, 18:00etatik 20:30era; bihar, zapatua,12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, goizez bakarrik.

> IRRATIA

Txapa Irratiko ikasturte hasierako batzarra izango da domeka arratsaldean gaztetxean

Txapa Irratiak 25 urte betetzen ditu aurten eta urteurrena ospatzeko ekitaldi gehiago gertatzen dihardute. Era berean, irratsaioren bat egiteko interesa duten guztiendako irratia irekita dagoela gogorarazten dute.

Ikasturte berriko *parrilla* osatu eta irratsaio berriak aurkezteko batzar irekia egingo dute domekan, hilaren 27an, 19:30ean irratian bertan, gaztetxean.

> MUSIKA

Bergarako Orfeoiko taldeetan parte hartzeko interesa dutenei dei egin diete

Abestea gustuko duen edozein lagunendako Orfeoian parte hartzeko dei egin dute. Entseguak honako egunetan izango dira: Orfeoi Txikitxoak (5-8 urte) eguenetan: 18:30-19:30; Orfeoi Txiki (9-13 urte), eguenetan: 19:30-20:30 eta egubakoitzetan: 19:00-20:00; Gabero (14-20 urte), egubakoitzetan: 20:00-22:30; eta, azkenik, Orfeoia, martitzenetan eta eguenetan: 20:30-22:30. Argibide gehiago *bergarakoorfeoia@gmail.com* helbidean.

> ZINEMA

'Misión en Mocland' eta 'Australia' filmak eskaniko dituzte Zabalotegin aste bukaeran

Oraingo asteburuan zinema emanaldiak itzuliko dira Zabalotegiko aretora.

Hain zuzen, zapatu eta domeka arratsaldean, 17:00etan, haurrei zuzendutako emanaldia izango da. *Misión en Mocland* filma eskainiko dute. Era berean, *Australia* ikusteko aukera izango da, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean eta domekan 19:30ean.

> MUSIKA

Civil Victim musika talde alemaniarrak gaztetxean joko du domeka arratsaldean

Domekan, Civil Victim eta Ras musika taldeen kontzertua izango da Bergarako gaztetxean, 19:00etan. Sarrerak, bi eurotan.

Civil Victim hardcore-punk thrasha egiten duen Alemaniako taldea da, Konstanz-Coptownetik datorrena. Euskal Herrian bira egiten ari dira; gaur Altsasuko gaztetxean joko dute eta zapatuan Donostian, Etengabeko Zarata jaialdian.

Marrazki eta pintura klaseak
Edurne Eraña
Teknika guztiak
651 74 21 54
943 76 40 14
Arrizuri 5, 1.C
Bergara

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

PIRAGUISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA

Beñat Lizarralde, bigarren Espainiako ur bizien txapelketan

Bergararrak C-1 modalitatean lortu zuen domina; Jokin Labaien hamargarren sailkatu zen

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Beti Busti taldeko Beñat Lizarralde bergararra bigarren tokian sailkatu zen Orthezen (Frantzia) jokatutako infantil A mailako Espainiako ur bizietako txapelketan. Hain zuzen ere, infantil mailako C-1 modalitatean geratu zen bigarren. Beñat Lizarraldek K-1 modalitatean parte hartu zuen, baina ez zuen horrenbesteko zortea izan. Txapelketan lan ona egiten ziharduen, baina ibilbideko ate bat ukitzeagatik zigorra jaso zuen eta bigarren tokitik laugarrenera jaitsi zen sailkapenean. Dena den, gustura zegoen txapelketan egindako lanarekin.

Jokin Labaien bergararrak ere parte hartu zuen Espainiako txapelketan. Infantil B mailako K-1 modalitatean hamargarren tokian sailkatu zen. Beti Bustikoak gustura itzuli ziren txapelketatik, denboraldian emaitza oso onak lortu dituzte-eta.

Beñat Lizarralde. BETI BUSTI

EUSKADIKO TXAPELKETA

Denboraldia bukatzeko besta proba batzuk geratzen zaizkie. Besteak beste, kadete, gazte eta senior mailetako hainbat txapelketa jokatu beharko dituzte.

Urriaren 17an jokatuko dute Igor Mendoza memoriala, Gipuzkoako Txapelketa ere izango dena. Irungo Bidasoa ibaian jokatuko dute. Bestalde, azaroan jokatuko dituzte Euskadiko txapelketak. "Federazioak esan digu azaroaren 20an jokatuko direla Euskadiko txapelketak Bidasoa ibaian, eta piraguistak egun horretarako prestatuko ditugu", esan digute Beti Bustikoek. Geratzen diren probetan emaitza onak lortzeko esperantza dute bergararrek.

SASKIBALOIA > DENBORALDI HASIERA

Saskibaloiko talde nagusiak bihar hasiko du liga txapelketa

Unai Iñarraren taldeak Beasainen kontra jokatuko du, 16:00etan, Labegaraietako kiroldegian

M.B. > BERGARA

Bergarako senior mailako saskibaloi taldeak bihar hasiko du denboraldi berria. Hain zuzen ere, 16:00etan jokatuko dute, Labegaraietako kiroldegian, Beasainen kontra. Unai Iñarrak zuzentzen duen taldeak maila berria estreinatuko du: probintzial maila. "Liga hasteko irrikan gaude. Dena den, badakigu maila berria indartsuagoa dela. Iazkoarekin alderatuta ezberdintasun asko daude, baina tira...", esan digu Unai Iñarrak.

Denboraldiko helburu nagusia mailari eustea da, baina urtea partiduz partidu antolatuko dutela esan digu: "Maila berriari neurria hartu behar diogu. Partiduz partidu joango gara, baina denborarik galdu gabe. Emaitza onak lortzen baditugu, agian gure helburuak aldatu egingo dira. Urte bukaeran sailkapenak jarriko gaitu dagokigun tokian".

ESANAK

"Partiduz partidu joango gara, baina maila berriari neurria hartu behar diogu lehenbailehen"

Unai Iñarra > Entrenatzailea

HAMALAU TALDE

Soraluze BKE 13 talderekin lehiatuko da, bi itzulitara. Oiartzun, Atco San Sebastian, Biok Zerbitzuak, Kostkas, Santo Tomas Lizeoa, Internacional, Beiztinberri, Beasain, Kevian Sport, Zarautz, Astigarraga, Alde Zaharra eta Hernani taldeen aurka jokatuko dute bergararrek.

Azkeneko jardunaldia 2010eko maiatzaren 9an jokatuko dute. Sailkapeneko lehen bi taldeek igoera jokatuko dute eta azken hiru tokietan daudenek maila galduko dute.

> FUTBOLA

Realaren lagunartean izena emateko azken eguna bihar da

Bergaran sortu nahi duten Realaren lagunarteko izenematea bihar bukatzen da. Talde berrian parte hartu nahi dutenek Erreki erretegira joan besterik ez dute, 12:00etatik 15:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Bestela, 696 12 40 76 telefonora dei dezakete eta Xabirengatik galdetu.

Realaren mendeurrenaren harira sortu dute Bergarako talde berria. Izenematea itxita hasiko dira denboraldirako ekitaldiak eta irteerak antolatzen.

URE DERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA
Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

BERGARA
Margoak
Certificado ISO 9001 por
BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

mingainari tiraka

Iñigo Igartua > Biciprecision Igartua

"Gero eta gehiagok hartzen dute bizikleta garraio moduan"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Ondo ezagutzen du Iñigo Igartuak bizikletaren mundua. 1992an Flanders etxeko banatzaile moduan hasi zen lanean eta 1997an bizikleta denda zabaldu zuen.

Zergatik zabaldu zenuen denda?

Belgikan, ziklo-kros txapelketak egiten nituen bitartean, Flanders etxeko mekanikari bati hasi nintzaion dendan laguntzen. Etxe hark ez zuen banatzailerik Espainian, eta horrela hasi nintzen. Eskaintzak handia izan behar zuela ikusi nuen, eta denda zabaltzea erabaki nuen.

Nolakoak dira zure erosleak?

Bizikletari gurpil edo kalapie zehatz bat jarri gura diotenak daude, batetik. Orain, adibidez, Madrilgo baten bizikleta prestatzen ari naiz. Valentziarako eta Galiziarako lanak ere egiten ditut. Horiek, normalean, erdi eta goi mailako bizikletak dituztenak dira. Hala ere, erosleak zorrotzak dira orokorrean, eta horrelakoak izan behar dute, gainera.

Errepidekoak ala mendikoak saltzen dituzu?

Parekatuta daude bien salmentak. Udazken eta neguan, esaterako, mendikoak gehiago.

Zein konponketa dira ohikoenak?

Bizikleta zaindu egin behar da, eta errebisioak egitera etortzen dira asko: frenoak tentsatu, kateak engrasatu, gurpilak ondo zentratu...

Bizikleta garraiobide moduan erabiltzen duten bezeroak ere badituzu?

Bai. Azkenaldian gero eta gehiago saltzen ditut gorputz osoa tapatzen dituzten plastikozko *pontxo* horiek. Urtetan hortxe egon dira, baina orain gero eta gehiagok eskatzen dituzte, lanera bizikletan joaten direlako.

Zuzeneko tratua eskertu egiten du jendeak?

Asko. Andaluzian, esaterako, merkataritzagune handietan erosten dituzte gehienek bizikletak, baina euskaldunok gurago dugu aholkuak jaso eta gertuko mekanikariengana eraman.

txaloak eta txistuak

O.E.

Autoak aparkatzeko marrak San Martzialerako bidean

Irakurle batek deitu du GOIENKARIAra esaten ondo iruditzen zaiola San Martzial bidean autoak aparkatzeko marrak pintatzea. "Lehen, arazoak zeuden buelta emateko orduan. Orain, ordea, oso txukun dago eta auto bakoitzarendako utzitako neurria handia da. Poztu egin naiz marrak margotu dituztelako", esan digu telefonoz.

OSPAKIZUNA > ERRETIRATUEN EGUNA

Mokadutxoa eta dantzaldia gaur, erretiratuendako

Basotxoko erretiratuen egoitzan elkartuko dira, udal ordezkariak lagun dituztela

M.A. > ARETXABALETA
Erretiratuei eskainitako ospakizuna izango da gaur (18:00), Basotxon. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Araceli Herran eta beste udal ordezkari batzuk izango dituzte lagun ekitaldian.

MOKADUTXOA ETA MUSIKA
Herriko erretiratu guztiek dute ospakizunean agertzeko gonbidapena, eurei eskainitako jaialditxoa da-eta. Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatu dute eta mokadutxoa eskainiko diete lehenengo. Ondoren, Juan Luis Lekunberri musikariaren doinuekin dantzan egiteko aukera izango dute guztiek; hala ere, kontu-kontari jardutea edo karta jokoan egitea nahiago izango dute batzuek.

Kirol etxea itxi arte meza entzun eta bazkaltzeko elkartzen ziren erretiratuak urriko lehen zapatuan. Azken bi urteotan, ostera, Basotxon ospatu dute, San Migel jaien bezperan.

Aozaratza auzoko errepide alboan egiten dabiltzan oinezkoendako bidexka. MIRARI ALTUBE

LAGUNTZAK > FAMILIA UGARIAK

Iberdrolara deitu behar da kuota finkoa lortzeko

M.A. > ARETXABALETA
Udan iragarri zuen Iberdrolak hainbat talderi ez zizkiela igoerarik aplikatuko argindarrean –kuota finkoa 2012 arte–, tartean pentsiodunei, langabeei eta familia ugariei. Horretarako, baina, eskaera bideratu behar dela Iberdrolara jakinarazi dute Udaleko Gizarte laguntzaileek. Hona Iberdrolako telefono zenbakia: 901 20 20 20. Eta helbide elektronikoa: *bonosocial@iberdrola.es*.

ESKAERA ORRIA ETA AGIRIAK
Abonu soziala delakoa eskatzeko kontratua sinatuta daukanak Iberdrolara dei dezan komeni da, hainbat datu eskatuko dizkiotelako. Behin datuok frogatuta, eskaera orria etxera bidaltzen dute betetzeko. Orri horrekin batera, ondorengo agiriak bidali behar dira Iberdrolara: nortasun agiriaren kopia, azken fakturaren kopia, errolda agiria eta familia ugariaren tituluaren kopia.

LANAK > AOZARATZAKO BIDEXKA

Urrian asfaltatuko dute errepide alboko bidexka

Larrino auzoko bidegurutzetik Aozaratzako erdiguneraino joango da bidexka, oinezkoak lasai ibil daitezen errepide alboan

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Ekain inguruan hasi zituzten errepide alboko bidexkaren lanak Aozaratza auzoan. Estatu Fondoko dirulaguntzari esker egiten dabiltza –303.420 euro– eta Udalak Amaral eraikuntza enpresari esleitu zizkion. Bidexka aurreratuta dago eta urriaren erdirako asfaltatuta izango dutela uste dute Hirigintza saileko arduradunek.

Larrino auzoko bidegurutzetik Aozaratzako erdiguneraino joango da bidexka, errepide albotik, hain zuzen. Lehen zatian, hau da, Otalora jauregiko aparkalekuraino, ezkerreko aldetik doa eta, hortik aurrera, eskumako aldetik. Urrian asfaltatu arren, azaroa dute jarrita lanen bukaera epea; izan ere, egurrezko egitura jarri behar dute bide zati batean, Sargarai baserri parean hain zuzen –bertan dauden aska biren eta karobiaren gainetik– eta oraindik egin barik dago egitura hori.

ARRISKU BARIK IBILTZEKO
Oinezkoendako bakarrik izango da bidexka, bizikletendako ez, eta Udalak gura duena da Otalorako aparkalekuan utzi automobila eta Urkulura oinez joatea herritarrak, auto pilaketarik ez dadin egon urtegian. Orain arte errepide izkinatik joan beharra zeukaten oinezkoek, baina hemendik aurrera arrisku barik ibili ahal izango dira Otala Zelaitik bueltan doazen herritarrek.

Garbittu
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Arropa garbiketak
Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

MA Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Mitartegarai
Baserri turismoa eta taberna
• Batzar gela.
• Jangela.
• Logelak.
• Etxeko produktuen salmenta.
Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51

Goienkaria

Egubakoitza / 2009ko irailaren 25a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA**



SAN MIGELAK 2009

Aretxabaletako jaiak

ARGAZKILARIA GOIENKARIA

AURETXA AUTOAK

Debagoieneko espezialista onena marka hauetan:

San Migel jai zoriontsuak opa dizkizue!

SEAT Audi

Basabe poligonoa A-2-4 20.550 Aretxabaleta • Tel.: 943 71 00 68

www.autosaretxa.com

2009KO
SAN MIGELAK
JAI ZORIONTSUAK
ATXABALTAR
GUZTIOI!

Aretxabaletako
Udala
KULTURA SAILA

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza, 25

18:00 ERRETIRATUENDAKO LUNCHA eta DANTZALDIA Basotxon.
18:00 PUZGARRIAK Durana kalean.
19:00 BURUHANDIAK Aretxabaletako trikitilariekin batera.
19:30 BERTSO JAIALDIA Arkupe kultura etxean. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Onintza Enbeita, Jokin Labaien eta Jon Maia. Gai jartzailea: Beñat Zamalloa.
22:30 KONTZERTUA herriko musika taldeekin herriko plazan. Taldeak: Scam, Krisis eta Denial.

Zapatua, 26

10:00 DIANA, Aretxabaletako txistulariekin batera.
10:00-14:00 ARTISAU FERIA EKOLOGIKOA Durana kalean.
10:00 Goiz osoan Tril emakume taldeak antolatuta talo-txosna Pagaldai tabernan.
11:30 Leizarra musika eskolako trikitilariekin KALEJIRA.
12:45 TXALAPARTA Durana kalean.
13:00 ZANPANTZARRAK.
14:30 HERRI BAZKARIA. Herriko plazan
19:00 LARRIN-DANTZA Durana kalean.
19:30 DEBAGOIENEKO III. jardunaldi gastronomikoen aurkezpena herriko plazan.
22:30 BALEIKE musika taldea herriko plazan.

Domeka, 27

11:00 DIANA Gaiteroekin.
13:00 HERRI KIROLAK herriko palzan.
16:00 San Migel MUS TXAPELKETA herriko plazan.
16:00 Arlutz xake elkartearen eskutik 16 urte beherakoendako XAKE TXAPELKETA.
17:30 TRIALSIN ERAKUSTALDIA Andra Mari Plazan.
19:00 KONTZERTUA. Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldia Iturrigorri frontoian.

ZAPATUAN LARRIN-DANTZA EGINGO DUTE.

DOMEKAN ARTISAU UFERIA EKOLOGIKOA EGONGO DA DURANA KALEAN.

BERTSO SAIOA

Beterano eta gazteak mikrofono aurrean kantari

Jokin Labaien arrasatearra izango da taula gainera igoko den Debagoieneko ordezkari bakarra

Arkupe kultura etxean

Egubakoitza, 25 19:30ean

Bertso saioa egongo da Arkupe kultura etxean. Sarrerak 5 euro balioko du.

JASONE ZABALA

Joan den urtean izan zuen arrakasta kontuan hartuta, aurten ere bertso saioa antolatu dute. Sarrera bost euro izango da eta saioak ordubete inguru iraungo du.

Egubakoitzean izango da hitzordua, 19:30an. Udalak antolatutako bertso saioan ondorengo bertsolariak egongo dira Arkupeko aretoan: Sebastian Lizaso, Onintza Enbeita, Jokin Labaien eta Jon Maia. Gai jartzaile lanetan, berriz, Beñat Zamalloa arituko da.

Kultura etxea joan den urtean inauguratu zutela kontuan izanda, aretoa oso egokia da horrelako ikuskizunetarako eta aurten ere aprobetxatu egingo dute saioa bertan eskaintzeko. Parte hartuko dutenen artean debagoiendar bat egongo da: Jokin Labaien arrasatearra, hain zuzen ere.

Sebastian Lizaso beteranoa egongo da bertso saioan. GOIENKARIA

Parte hartuko duten lau bertsolarien artean arrasatear bat egongo da: Jokin Labaien

Sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai, bost eurotan, Arkupe kultura etxean

LAU BERTSOLARI

Bertsolari beteranoak eta gazteagoak uztartuko ditu saioak. Horien artean, Sebastian Lizaso: 1958ko urtarrilaren 20an jaio zen, Azpeitian. Etxean ere txiki-txikitatik bizi izan zuen bertso giroa. Gurasoek eduki zuten tabernara bertsolari asko biltzen ziren. Gazte hasi zen plazarik plaza. 1986an Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen. Lizasoren arrazoiketa-moldeak eta ahots indartsuak arrakasta eta estimu handia dute gaur egun.

Onintza Enbeita, berriz, muxikarra da eta Busturialdeko aurtengo txapelduna. Bizkaiko azken lau txapelketetan finalaurrekoetara heldu da Enbeita.

Jokin Labaien arrasatearra izango da Debagoieneko ordezkari bakarra, Jon Maia ere arituko da: Zumaiako bertso eskolan hasi zen ikasten 11 urterekin. Lau aldiz hartu du parte Txapelketa Nagusian eta 2001ean laugarren geratu zen.

errekabarren

Comercial
errekabarren

• Mari Carmen Oinetakoak 689 73 39 17
• Irudi Ile apaindegia 943 79 80 90
• Errekabarren Frutadenda 943 79 96 43
• Leintz-Rossi Mertzeria 943 79 78 63

Errekabarren kalean gaude!!

Ondo ibili jaietan!!!

Milesman Diodo laserra
Presta zaitez datorren udaberri-udarako.

Gizonak ere anima zaitezte!

IRRATI-FREKUENTZIA

- Kirurgiarik gabeko liftinga eta tinkatzea.
- Uda ondoren behar duzuen tratamendua!

Anima zaitezte!

4-6 saiotan ilea desagertzea ziurtatzen du

Etorri eta informa zaitez konpromiso barik.

Gemes
estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18
ARETXABALETA

Kilima
ume eta haurdunendako arropak

Ilargi plaza 6 Aretxabaleta
Tel.: 943 53 34 96



Ondo pasau San Migeletan!

KONTZERTUA

Doinu indartsuak jaiei hasiera gogotsua emateko

Kontzertua 02:30ean hasiko da eta punk-rocka eta metal gogorra izango dira nagusi

Herriko Plaza

Egubakoitza, 25 22:30ean

Herriko hiru musika talde agertokiaren gainean egongo dira.

JASONE ZABALA

Hiru taldek eskainiko dute kontzertua egubakoitz gauean herriko plazan, eta hirurak ere aretxabaletarrak dira: Scam, Denial eta Krisis taldeak, hain zuzen ere.

Punk-rock eta metal gogorrak izango dute protagonismoa egubakoitz gauean herriko plazan. Scam taldeak herrikideen aurrean eskainiko du kontzertua. Lau kidek osatzen dute 2004an sortu zen taldea eta punk-rocka egiten dute. 2006an Danbaka lehiaketan parte hartu zuten eta, are gehiago, 2007an talde berriei zuzendutako estatu mailako lehiaketa bat irabazi zuten *Sorprender* abestiarekin. *Zutik gaude* diskoko abestiak eskainiko dituzte, besteak beste.

Denial izango da bigarren taldea. *Phobia* diskoko abestiak eskainiko dituzte; taldearen estiloa metal gogorra da.

ROCK DOINUAK

Taulara igoko den azken taldea Krisis izango da, eta haiek ere aretxabaletarrak dira. Taldearen estiloa punk-rocka da. Orain dela hiru urte sortu zuten taldea eta hiru mutilek osatzen dute: Ibaito (bateria), Potras (gitarra) eta Borgas-ek (baxua). Azken biek abestu ere egiten dute. Beraz, musika doinu indartsuez gozatu nahi dutenek hor dute aukera bikaina.

Scam izango da jaietako egubakoitzean herriko plazan kontzertua eskainiko duen taldeetako bat. GOIENKARIA

Fino

Gizonezkoen ile apaindegia

Ilearen tratamenduetan espezialistak

Ondo pasau jaixak!

Durana 19 • Aretxabaleta
Tel.: 666 26 48 86

JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK ZAPATUAN

Jateko, baserriko oilaskoa eta onddoekin egindako pintxoak

Debagoieneko hainbat jatetxek hartuko dute parte

JASONE ZABALA

Jardunaldi gastronomikoen hirugarren ekitaldia egingo dute San Migel jaien barruan. Debagoieneko hainbat jatetxek hartuko dute parte eta era askotariko pintxoak eskainiko dituzte herriko plazan hilaren 26an, zapatuan, nahi duen edozeinek dasta ditzan.

Irailaren 26an aurkeztuko dira Debagoieneko III. Jardunaldi Gastronomikoak, eskualdeko hainbat jatetxeren eta Debagoiena Mankomunitateko Turismo Sailaren artean antolatzen direnak. Hain justu, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso da ekitaldirako. Hirugarren jardunaldi hori urriaren 12tik azaroaren 15era ospatuko da. Aurkezpenean, jardunaldietan parte hartzen duten jatetxeek prestaturiko pintxoak banatuko dira; oraingoan, euskal baserriko oilaskoa eta onddoekin eginiko pintxoak izango dira. Parte hartuko dute ibarreko hainbat jatetxek: Baster-Alde, Etxe-Aundi, Goiko-Benta, Hilarion, Lasa, Soraluze eta Soran Etxeak, besteak beste. Jatxetxe guztiek pintxoak ipiniko dituzte dastatzeko herriko plazan.

Jardunaldiak urriaren 12tik azaroaren 15era izango dira

IBARRA EZAGUTZERA EMAN

Jardunaldiak antolatzeko arrazoiak ez dira gastronomikoak bakarrik; produktuen jatorria eta elaborazioa ezagutzeaz gain, gure ibarra ere ematen da ezagutzera. Horixe da antolatzaileen helburuetako bat.

Hirugarren jardunaldi gastronomikoetan parte hartzen duten jatetxeek menu bereziak eskainiko dituzte prezio berezietan, betiere garaiko eta hemengo produktuei lehentasuna emanda.

II. jardunaldi gastronomikoen aurkezpen eguna. GOIENKARIA

AZKARATE AROZTEGIA

K21 KALITATEA

AROTZ LANETAN BEHAR DUZUN GUZTIA

Telleria 19 B-0-2 B-0-3 · Bergara
T: 943 76 47 19 · 610 88 40 20

Ateak • Leihoak • Horma-armairuak
Tarimak • Parket flotatzaileak • Sukaldeak

HERRI AZOKA

Denetariko 50 artisau eta nekazari postu egongo dira

Zapatuan egingo dute herri azoka goiz osoan Durana kalean

Durana kalean

Zapatua, 26
10:00-14:00

Goiz osoan artisau feria eta azoka ekologikoa egongo dira.

JASONE ZABALA

Berrikuntza barik egingo dute herri azoka hilaren 26an. Durana kalean hainbat postu jarriko dituzte. Giroa alaitzen trikitilariak eta zanpantzarrak ere egongo dira.

Urteroko eguna ospatuko dute aretxabaletarrek hilaren 26an; hain zuzen ere, herri azoka egingo dute. Loramendi elkarteak eta Udalak antolatutako egunean hainbat artisauk ipiniko dituzte postuak.

50 artisauk jarriko dituzte produktuak salgai; besteak beste, euskal pastela, eztia, eskumuturreko, zilarra, kristala eta lore sikuak jarriko dituzte ikusgai eta salgai Durana kalean.

GEHIENBAT, BARAZKIAK

Bestalde, nekazaritza ekologikoaren gaineko beste 13 postu jarriko dituzte, 14:00ak arte. Herri azoka girotzen trikitilariak, txalapartariak eta zanpantzarrak egongo dira.

Nekazari produktuak eta artisautza produktuak egongo dira ikusgai eta salgai

Askotariko postuak jarriko dituzte Durana kalean bihar. GOIENKARIA

Aprobetxatu ditzagun gogotik San Migel jaiak ahaztu gabe gure Euskal Herriaren askatasun eta elkartasun beharrak

EA

Herriko Plaza, 7-behea
20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 84 85
http://aretxabaleta.euskoalkartasuna.net/

Masaje terapeutikoa
eta kirol Masajea
Akupuntura
Presoterapia
Hidroterapia SPA
Osteopatia
Errehabilitazioa
Pancafit Metodoa
Zure
Osasuna
gure ardura da
Ondo pasa jaiak!
ekin
fisioterapia zentrua
Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Gipuzkoa
Tel.: 943 79 95 64

Ondo pasa jaiak!
K21
KALITATEA
Erregistratutriko Enpresa zk. 2 / 05 / 043
2 Maila
DEBAGOIENEKO ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
Eraikuntzak
Zaharberritzeak
Igogailuak
Entitate publikoendako lanak
Gremioen koordinazioia....
Basabe industrialdea 4 - EO - 11
construlan@euskalnet.net
TLF 943 790151 FAXA 943 771503 MUG 629 533499
www.construlansl.com
ARGAZKIAK: MARIA JESUS

HERRI KIROLAK

Enborren ezpalak eta harrien pisuak protagonista

Hainbat kirolen erakustaldia domekan herriko plazan

JASONE ZABALA

Ohiturari jarraituz, San Migel domekan herri kirolek ere tartea izango dute herriko plazan, 13:00etan. Erakustaldiaren arduraduna Ernesto Ezpeleta izango da.

Pasa den urteko jaietan bezala, aurten ere Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eibartarra izango da herriko plazan hainbat herri kiroletako erakustaldia egiten: aizkolariak, harri-jasotzaileak eta iparraldeko jokoak egongo dira ordubete inguru iraungo duen saioan. Guztira bost aizkolari arituko dira neurri ezberdineko enborrak mozten: *Bihurri* bera, Zelai, Atutxa I.a eta Atutxa II.a. Hainbat proba egingo dituzte: abiadura probak, zutikakoak... Aizkora lanetan *Bihurri*ren semea, Hodei Ezpeleta gaztea (10 urte besterik ez du), ere arituko da. "Semeari asko gustatzen zaio aizkoran aritzea eta baita jendeari ikustea ere".

Ernesto Ezpeletaren semea ere arituko da aizkoran

IPARRALDEKO JOKOAK

Harri-jasotzen, bestalde, Landarbide arituko da; pisu eta era askotariko harriekin egingo ditu altxaldiak: zilindro erakoekin, karratuekin eta borobilekin. Iparraldeko jokoetan Ana Berasategi arituko da; ingude eta fardo altxatzea egingo ditu hark.

Ernesto Ezpeleta, joan den urteko erakustaldian, seme Hodeirekin. GOIENKARIA

EAJ PNV

Aretxabaletako EAJ/PNV-k
jai zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!

BASABE jatetxea

Basabe poligonoa **Aretxabaleta**
Tel.: 943 77 31 19

• Eguneko menua • Karta
• Plater konbinatuak eta ogitartekoak

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)
SAN MIGEL ZORIONTSUAK IGARO!

URKO

INSTALAZIOEN MANTENIMENDU OSOA

24 ORDUKO ZERBITZU OROKORRA*
* Kontratatutakoa

Ondo pasa jaietan!

Proiektuak eta legeztatzea • Diagnosiak eta berrizteak • Gas ikuskatzeak • Iturgintza orokorrean/bainuak

Berokuntza • Gasa • Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe Industrialdea B-3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 19 88 / Faxa: 943 79 59 97
www.goiena.net/blogak/urko

TRIALSINA

Hainbat oztopo gaindituko dituzte bizikleta gainean

Markel Uriarte, Aitor Murua eta Unai Zuntzunegi aretxabaletarrek egingo dute erakustaldia

Andramari plazan

Domeka, 27 17:30ean

Ordubeteko trialsin erakustaldia egingo dute Andramari plazan

JASONE ZABALA

Trialzale aretxabaletarrek aukera izango duten aurten ere trialaz gozatzeko herriko jaietan: erakustaldia 17:30ean hasiko da, eta askotariko oztopoak gainditzen saiatuko dira

Trialsineko Gipuzkoako hiru txapeldunen eskutik trialsin erakustaldia izango da domeka arratsaldean, hilak 27, Andramari plazan.

Nor bere kategorian maila ona erakutsi dute orain arte. Horrela, Markel Uriarte gazte mailako Gipuzkoako txapelketan maila ona erakusten ari da; Aitor Murua kadete mailan Euskadiko txapelketako sailkapen orokorrean lehenengo doa. Txapelketa amaitzeko hiru proba falta dira; eta Unai Zuntzunegik alebin mailan Belgikan jokatutako mundialean lan bikaina egin du eta seigarren izan da.

Hala, hiru trialzale horiek bizikleta gainean duten abilezia erakutsiko dute ordubetez. Aitor Muruak azaldu digunez, joan den urtean bezala aurten ere "ikuskizun polita eskaintzen saiatuko" dira. Erakustaldia egiteko palet batzuk jarriko dituztela adierazi digu Muruak, eta, horrekin batera, Udalari autoak eskatuko dizkiote haien gainera igotzeko, "horrelakoak ikusgarriak izaten dira-eta". Gainera, ikuskizunean zehar gainditzen dituzten oztopoen azalpenak emango dituen pertsona bat ere egongo da.

Aurten ere ikuskizun bikaina eskaintzea da trialsin txapeldunen asmoa. GOIENKARIA

ZALETASUN HANDIA

Trialak Debagoienean eta bereziki Aretxabaletan jarraitzaile asko dituela esan digu Aitor Muruak: "Joan den urtean Arlutz atzeko kantxa ikuslez bete zen; zaletasuna handia da".

Debagoienean trial zaletasun handia dago eta partaide gehien Aretxabaletan daude

KULTURGAIAK

HURBIL

- Erakusketak
- Antzerki, zine eta musika-zikloak
- Liburuen argitalpena
- Kanpaina desberdinen eragiketa
- Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua

KULTURA ZERBITZUAK

HURBIL KULTURGAIAK, S.L.
Arkarazo auzoa • Bikarixuena baserria • p.k. 160
20550 ARETXABALETA

tel.: 943.71.42.08 • faxa: 943.71.47.08
e-posta: hurbil@hurbil.es

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

Arlutz taberna

TABERNA ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna

EZKUTU TABERNA

Zaboz gure musikaz gozatzeko

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

VALDEZATE

Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40

IOSU

taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

HIRUSTA JATETXEA

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

Aginaga

ja be bada

GUREA TABERNA

Gora San Migelak!

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

ERRETIRATUAK > ABESBATZA

Basotxo elkarteko erretiratuek abesbatza osatu dute

Hamabostean behin elkartzen dira, eguaztenetan (18:00), Basotxon, eta oraindik lekua daukate

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Entseguetan buru-belarri dabiltza erretiratuak azken asteotan. Uztailean egin zituzten lehen bilerak abesbatza osatzeko eta dagoeneko hamabostean behin elkartzen dira entseguetarako. Eguaztenetan dute hitzordua (18:00), Basotxon bertan, eta hurrengoa urriaren 7an izango da.

Hamarren bat lagun elkartzen dira Jose Luis Errasti zuzendariaren aginduetara. Euskal kanta ezagunen bilduma gertatu dute eta jo eta ke ibiltzen dira kantuan, baita entseguetatik kanpo ere. Taldetxoa poliki-poliki osatzen doa, baina oraindik hainbatendako lekua daukatela diote abesbatzako kideek: "Gehiegi ere ez genuke izan gura, baina 15 bat lagun elkartuta talde polita osatuko genuke. Gainera, gizonezko ahotsen baten hutsunea daukagu". Hala bada, kantatzea gustuko dutenak hurrera daitezela entsegu egunetan Basotxora eta proba egin dezatela.

URRIAN, ASTURIAS ALDERA

Ekitaldi asko gertatu dituzte Basotxoko erretiratuek azken hilabeteotan. Irailaren 14an, esaterako, Nafarroa aldera egin zuten egun pasa eta oso pozik itzuli ziren izandako harrerarekin.

Urrian, ostera, Asturias aldera joateko asmoa dute zazpi egun pasatzera, urriaren 18tik 24ra, hain zuzen. Oviedo, Covadonga, Luarca, Cudillero, Gijon... eta beste hainbat toki esanguratsu bisitatuko dituzte. Txartelak urriaren 5ean eta 6an salduko dituzte Basotxon bertan (11:00-12:00). Bidaiaren prezioa (bertako irteerak barne) 245 euro da.

Irailaren 14an Iratxera egindako irteeran erretiratuak bazkaltzen. BASOTXO

Gazteak xakean jokatzen iaz, Aitor Alcaide irakaslearekin. GOIENKARIA

XAKEA > ESKOLAK

Xake eskolak atzeratu egin dituzte Iralabarri plazako lokala txukundu artean

M.A. > ARETXABALETA

Astelehenean hasi behar zituzten xake eskolak Iralabarri plazako 5. eta 6. atarteen artean dagoen lokalean, baina txukundu barik dago oraindik eta atzeratu beharrean izan dira. Udalak hainbat konponketa egin ditu udan eta oraindik egokitu barik dauka. Guztiz txukundutakoan emango diote hasiera denboraldiari Arlutz xake taldeko kideek. Eta gazteendako ikastaroak ere orduantxe hasiko dituzte. Xakean ikasi gura duenak edo, beste barik, jokatu, astelehenetan izango ditu ateak zabalik (18:00-20:00).

ARRASATEKO TXAPELKETAN

Arlutz xake taldeko Aitor eta Mikel Alcaidek Bergarako Nazioarteko Openean hartu zuten parte joan zen domekan. Gustura itzuli ziren biak txapelketatik, Aitor 23. postuan geratuta. Bestalde, urriaren 9an hasita, Arrasateko Nazioarteko Txapelketa Irekian jardungo dute norgehiagokan.

> DEIA

Ederlaneko aparkalekua erabiltzeko baimena lortu du UDAk

Ibarra futbol zelai inguruan auto asko izaten da partidu egunetan eta sarritan txarto aparkatuta uzten dituzte, nahiz eta gertu, txatartegi alboan, aparkalekua egon. Horren aurrean, futbol zelai alboan dagoen aparkalekua erabiltzeko baimena eskatu zion Ederlan lantegiari Aretxabaleta Kirol Elkarteak. Denboraldi osorako jaso du oniritzia, eta dagoeneko joan zen aste bukaeran bertan aparkatzeko eskatu zuten UDAko zuzendaritzako kideek.

MENDIA > IRTEERA

Lizarrustitik Amezketara buelta, Murrukixorekin

M.A. > ARETXABALETA

Murrukixo Mendizale Elkarteak mendi zeharkaldia antolatu du urriaren 4rako, domeka. Lizarrustin irten eta Amezketan bukatuko dute zeharkaldia, Igaratzatik pasatu –megalito asko dauden ingurua– eta Aralarko mendirik garaiena den Irumugarrieta (1.431 m) igo ostean. Aparteko zailtasunik ez duen buelta da eta basoan izango den udazken giroarekin gozatzekoa.

Lizarrustiraino autobusean joango dira Azbe lantegiko geltokitik irtenda (08:00). Prezioa 10 euro da Murrukixoko bazkideendako eta 12 euro gainerakoendako.

Izenemate epea zabalik dago, martitzenetan (19:00-20:00) Murrukixoko lokalean. Azken eguna irailaren 29a izango da.

PIENSOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Lan egiten duzun bitartean KARROZERIA titulu ofiziala ateratzea nahi duzu?
Nahiko duzu 18 urte izatea eta
Honako ikasketaren bat gainditua izatea
2.BBB
LH1
2.IEE
DBH titulua
ALE
ARETXABALETA
Lanbide Eskola
Etor zaitez Aretxabaleta Lanbide Eskolara eta informatu
Matrikulazioak irailaren 30era arte
Etxebarri auzoa z/g
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
webgunea: www.iaretxabaleta.com
e-posta: ia@iaretxabaleta.com

Angel Barandiaran > Abesbatzako zuzendaria

"Benito Lertxundiri omenalditxoa eskainiko diogu"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Benito Lertxundiren abestiak oinarri hartuta eskainiko du Mikel Deunaren kontzertua aurten Aretxabaleta Abesbatzak. Domekan da (19:00), Iturrigorri frontoian –eguraldi ona bada, herriko plazan.

Sanmigeletan egiten duzuen zenbatgarren kontzertua da?

2000. urtean hasi ginela uste dut; hortaz, hamargarrena.

Hainbat eratako kontzertuak eskaini dituzue. Zergatik aurten Benito Lertxundiren lanak?

Bai, zarzuelak –*El caserío* eta *Katiuska*–, euskal abestiekin osatutako ikuskizunak eta antzekoak egin ditugu. Aspalditik geneukan asmoa Benitoren lanekin zerbait egiteko. Uste dut oraingo euskal musikan, pop musikan, konpositore lan gehien egin duenetakoa dela, eta oraindik lanean jarraitzen du abesten eta diskoak ateratzen.

Zelako ekitaldia izango da?

Abesti batzuk herrikoiak izango dira, Benitok abesten dituen eran kantatuak, edonork jarraitu ahal izateko. Beste batzuk, ostera, abesbatzarako harmonizatu ditugu. Lau zati izango ditu ekitaldiak: lehena Ez dok Amairuko aroari dagokio, protesta kantuak; bigarrena, amodiozko kantuak; hirugarrena, beste kantu batzuk; eta laugarrena, Euskal Herriko hainbat tokiri eskainitakoak. Benitoren bizitzako pasarte batzuk ere tartekatuko ditugu.

Benito bera gonbidatu duzuela entzun dut.

Gonbidapen ofizialik ez diogu bidali, baina alkateak ezagutzen du eta kontzertuaren berri

"Benito Lertxundik badu kontzertuaren berri eta azken orduan ager daiteke bertan"

Angel Barandiaran. M.A.

eman dio. Hasieran ezin etorria azaldu zuen, baina orain ez du esan ezetzik.

Abesbatzak beste kide batzuen laguntza izan du, ezta?

Bai, 12 bat herritar ibili dira gurekin batera entseguetan otsaila ezkero. Orain, ea animatzen diren eta gurekin jarraitzen duten abesbatzan. Gainera, Leizarra musika eskolako laguntza izango dugu.

Beste proiekturik baduzue?

Urriaren 25ean kontzertua dugu Loiolan. Datorren urteari begira, ostera, diskoa ateratzeko asmoa dugu.

JAIAK > SANMIGELAK

Euskal giroa izango da aste bukaeran herriko kaleetan

M.A. > ARETXABALETA

Herriko zaindari San Migelen omenez antolatutako jaietan sasoi bateko euskal jaietako giroa berreskuratu gura izan du Kultura Sailak. Hala, bertso jaialdia, azoka, zanpantzarrak, bolo txapelketa, herri kirolak eta Benito Lertxundiren omenezko kontzertua izango dira.

Egitaraua

EGUBAKOITZA, 25

18:00 ERRETIRATUENDAKO LUNCHA eta DANTZALDIA Basotxon.
18:00 PUZGARRIAK Durana kalean.
19:00 BURUHANDIAK Aretxabaletako trikitilariekin.
19:30 BERTSO JAIALDIA Arkupe kultura etxean. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Onintza Enbeita, Jokin Labaien eta Jon Maia. Gai-jartzailea: Beñat Zamalloa.
22:30 KONTZERTUA herriko musika taldeekin herriko plazan. Taldeak: Scam, Krisis eta Denial.

ZAPATUA, 26

10:00 DIANA, Aretxabaletako txistulariekin batera.
10:00-14:00 ARTISAU FERIA eta AZOKA EKOLOGIKOA Durana kalean.
10:00 Goiz osoan Tril emakume taldeak antolatuta talo-txosna Pagaldai tabernan.
11:30 Leizarra musika eskolako trikitilariekin KALEJIRA.
12:45 TXALAPARTARIAK.
13:00 ZANPANTZARRAK.
14:30 HERRI BAZKARIA herriko plazan.
19:00 LARRIN-DANTZA Durana kalean.
19:30 DEBAGOIENEKO III. jardunaldi gastronomikoen aurkezpena herriko plazan.
22:30 BALEIKE musika taldea herriko plazan.

DOMEKA, 27

11:00 DIANA Haizedoinuak gaitariekin.
13:00 HERRI KIROLAK herriko plazan.
16:00 MUS TXAPELKETA herriko plazan.
16:00 Arlutz xake elkartearen eskutik 16 urte azpikoendako XAKE TXAPELKETA.
17:30 TRIALSIN ERAKUSTALDIA Andramari plazan.
19:00 KONTZERTUA. Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldia Iturrigorri frontoian.

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV Internacional Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

PROFESIONAL BAIMENDUNA
GARANTIA DE ALQUILER
902 21 21 92
DOANEKO AHOLKUA

- **Juridikoa:**
  - Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
  - Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
  - Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
  - Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
- **Laborala:**
  - Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...
- **Fiskala:**
  - Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontabilidadea:**
  - Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

SANMIGELAK > AURREKONTUA

Sanmigelak, aurrekontu txikiagoarekin

Krisiaren eraginez, Udalak jaietako aurrekontua 17.000 euro murriztu du iazkoarekin alderatuta

Sokamuturraren saio bat gutxiago egingo dute sanmigeletan. GOIENKARIA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Astelehenetik eguaztenera eta urriaren 3tik 5era ospatuko dituzten sanmigeletako eta Errosario jaietako aurrekontua murriztu egin du Udalak. Krisiaren eraginez, 17.000 euro aurreztu ditu udalbatzak iazko aurrekontuarekin alderatuta. Guztira, ia 149.000 euro gastatuko dituzte (2008an 166.000 euro).

Aurrekontu txikiagoa erabilita, egitarautik kendu dituzten ekitaldi nagusiak bi izan dira: San Migel Bixamon eguneko goizeko sokamuturra (horren ordez hau-rrendako jolas erraldoien parkea jarriko dute) eta Errosario eguneko su artifizialak.

Bestalde, herriko taldeen artean banatzeko partida %10 igo dute iazkoarekin alderatuta, hiru ekitaldi berri daude-eta: hilaren 29an, Makalena elkartekoen herri antzerkia; urriaren 4ko auto klasikoen erakusketa eta biharko mus txapelketa.

SOKAMUTURRAN IBILTZEKO

Uda partean hainbat herritako zezen festetan izandako istripuak eta hildakoak kontuan hartuta, udal arduradunek gogoratzen dute sokamuturrean jarduteko 16 urte beteta izan beharko dutela. Adin horretatik beherakoek debekatuta dute plazan sartzea. Gainera, gogorarazten dute hesietan jarritako burladeroak korrikalariendako bakarrik direla.

GOIENKARIA

Masterreko tesiaren defentsa

Iage Zendron Miolak masterreko tesia defendatu zuen martitzenean. Tesian, ipar eta hegoaldeko herrialdeetan paper eta zelulosa industria duten estatuen lankidetzaren eragina aztertzen du; besteak beste, Brasilek eta Finlandiak mantentzen duten harremanak ikertuta. Epaimahaikideak Carlos Lista eta Sol Picciotto izan dira.

LEHIAKETA > OKELA GISATUA

15 parte-hartzaile lehiatuko dira biharko okela gisatu lehiaketan

Plazan egingo duten pintxo dastatzearekin jasotako dirua Oñatz taldearendako izango da

M.B. > OÑATI

Debagoieneko I. okela gisatu lehiaketaren bigarren jardunaldia egingo dute bihar, Oñatin. Ederto harakinen erosketa taldeak antolatutako txapelketan 15 parte-hartzaile lehiatuko dira. Giokelako eta Euskal Okelako lau harakinek emango dute okela; hain zuzen ere, Antton Egiburuk, Tarsicio okela dendak, Garai harategiak eta Txantxiku harategiak.

Parte-hartzaile bakoitzak elkartean egin beharko du okela gisatua eta 18:00 aldera epaimahaikoengana eroan beharko du. Iñaki Olalde, Alberto Elortza eta Carmen Pieilla dira epaimahaiko kideak. Hiru sari banatuko dituzte eta irabazleak Debagoieneko finalerako txartela eskuratuko du.

DASTATZEA

Bukaeran pintxo dastatzea egingo dute plazan. Diru guztia Oñatz dantza taldearendako izango da.

Parte-hartzaileak

- > Larrain Gain Elkartea
- > Makalena Elkartea
- > Gure Txoko Elkartea
- > Kurtze Baltz Elkartea
- > Aterpe Elkartea
- > Aitzalde Elkartea
- > Batzokia
- > Alkartetxea
- > Pago Uso Elkartea
- > Olabarrieta Elkartea
- > Berezao Elkartea
- > Asentzio Elkartea
- > Jorge Peralta
- > JavierJauregialtzo

OÑATZ dantzari taldearen aldeko
BERTAKO HARAGI GISATUAREN 1. TXAPELKETA

Oñatiko Foruen Enparantzan
zapatua, 2009 - 09 - 26
arratsaldeko 7etan

Antolatzailea

TXANTXIKU HARATEGIA (Jesus Odriozola)
Arantzazuko Ama, 2

Giokela
GUREKALITATEA
Berme osoko okela

Joan den urtean erretiratuek kiroldegian izan zuten bazkaria. ESKORIATZAKO UDALA

ERRETIRATUAK > OMENALDIA

Domekako bazkarian 180 erretiratuk hartuko dute parte

Betiko moduan, bazkarirako pertsona nagusienak omenduko dituzte: aurten ere, Rosalia Blanco eta Bernabe Errasti izango dira protagonistak

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Herriko erretiratuek egun ederra pasako dute etzi, domeka, urtero moduan, 65 urtetik gorakoei omenaldia egingo zaie-eta egun horretan. Aurten, guztira, 180 eskoriatzar inguruk eman dute izena. Irailaren 14tik 21era bitartean apuntatu ziren, herriko kultura etxean.

Egitarauari dagokionez, ez dago aparteko berrikuntzarik. Ekimenei 11:00etan emango diete hasiera; ordu horretatik mezaren hasierara arte salda beroa hartzeko aukera izango dute herriko nagusiek kultura etxean. Olazar erretiratuen elkartekoak arduratuko dira salda goxoa prestatzeaz.

MEZA ETA BAZKARIA

Jarraian, 12:30ean, meza egongo da San Pedro parrokian. Herriko txistulariek hartuko dute parte horretan. Elizkizuna amaitzean, erretiratuak kiroldegirantz abiatuko dira apurka, bazkaria izango dute-eta zain ordurako. Bazkariaren harira, Gizarte Zerbitzuko langile Agurtzane Altubek nahiago izan du menua zein den ez esatea: "Erretiratuen artean ikusmina egoten da beti plater batetik bestera. Urtetik urtera aldatzen dugu, sorpresa izan dadin". Auzolagun enpresak gertatuko du egun horretako menua.

Bazkalostean, berriz, dantza egiteko aukera izango dute herriko erretiratuek. Aurten, Juan Carlos Zubia arduratuko da kiroldegia alaitzeaz; aspaldiko kantuez gain, gaur egungoak ere joko ditu.

DATUA

37

URTE

Orain dela 37 urte hasi zen herritar talde bat Eskoriatzan 65 urtetik gorako erretiratuei omenaldia egiten. Gaur egun, Udalak dauka horren ardura, eta berak antolatzen du ekitaldia.

BLANCO ETA ERRASTI

Dantzaldia irauten duen bitartean, opari banaketa egingo dute. Erretiratu guztiak omentzen badituzte ere, urtero bazkarira joaten diren nagusienei oparia ematen zaie. Iazko berberek jasoko dute aurten: emakumezkoetan, Rosalia Blancok, lore sorta; eta gizonezkoetan, Bernabe Errastik, txapela. Azken horrek 99 urte ditu, eta Blancok, berriz, 101 urte egingo ditu urrian.

Aurten, 37 urte beteko dira herriko erretiratuak omentzen dituztela. Hasieran herritar talde bat antolatzen hasi bazen ere, azken 20 urteotan Udalak du horren ardura.

KIROLA

Aquagyma doan egin ahalko da egunotan

Xake ikastarorako izena emateko epea urriaren 6ra arte luzatu dute

M.B. > ESKORIATZA

2009/2010 ikasturterako kirol eskaintzaren barruan, Eskoriatzako Udalak aquagym edo uretako gimnasia jarri gura du martxan. Esandako kirol jarduera ezagutarazteko, bi saio emango dira datozen egunotan, doan. 16 urtetik gorakoendako dago zuzenduta hori.

Saioak datorren asteko astelehenen eta eguaztenean, hilak 28 eta 30, izango dira, Intxaurtxuetako kiroldegiko igerilekuan. Iluntzean egingo dituzte horiek, 19:45etik 20:30era, hain zuzen. Horietan ikusitakoa gustuko izanez gero, jarduera ikasturte osoan praktikatu ahal izateko aukera eskainiko du Udalak.

XAKEA, URRIAREN 6RA ARTE

Bestalde, asteon jakin dugu urriaren 8an hasiko den helduendako debaldeko xake ikastarorako izena emateko epea luzatu egin dela. Hortaz, interesa dutenek urriaren 6a baino lehen eman ahalko dute izena, kultura etxean. Udaletik azpimarratu dute horretan parte hartzeko ez dela inongo ezagutzarik izan behar, ikastaroa hutsetik hasiko da-eta.

PINTURA ETA TAILERRA

Bestalde, gogorarazi dute urriko lehen zapatuan helduendako pintura ikastaroa hastekoa dela. Zapatuero, 14:30etik 17:30era izango dira. Ikastaro horretaz gain, urritik abendura bitartean, *Gure emozioak nola gobernatu* tailerra ere antolatu dute. Urriaren 2ra arte eman daiteke 20 orduko iraupena izango duen mintegi horretan.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI

Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

ZERBITZUAK > GARRAIO PUBLIKOA

Geltokia jarriko dute autobideko biribilgunetik gertu

Diputazioak autobus geltoki berria jarriko du laster AP-1 autobideko biribilgunetik gertu

Gasteizera doazen autobusetatik erdiak zuzenean AP-1etik joango dira, geldialdi bakarra eginez

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eskoriatzako herritarrek autobus geltoki berria izango dute hemendik gutxira. Udalak jakinarazi digunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko du, Intxaurtxuetako sarbidean, AP-1 autobideko biribilgune berritik gertu.

Errepideko bazter bakoitzean geltoki bana jarriko dute. Horren harira, errepidearen beste aldera pasatzeko pasabidea dagoeneko egina dago eta, hortaz, ingurunea baino ez dute egokitu beharko.

Geltoki berri horrekin gaur egun Gasteizera doazen eta Arabako hiriburutik datozen autobusetatik erdiak zuzenean autobidetik joango dira. Hori izango da autobus zuzenak Eskoriatzan egingo duen geldialdi bakarra. Hortaz, zerbitzu hori erabili gura duten herritarrek sarreran egongo den geltoki horretara joan beharko dute.

PREZIO BERA

Autobidetik joan ala ez, bidaiak prezio bera izango du; hau da, Txartel Bakarra dutenek 2,04 euro ordaindu beharko dituzte; eta gainontzeko bidaiariek, 3,40 euro.

Aldatuko dena bidaiaren iraupena izango da: ohiko geltokian hartzen den autobusak 45 minutu behar ditu Gasteizera heltzeko eta autobidetik doanak, berriz, ordu erdi.

HERRITARREN IRITZIA

Autobus geltoki berri horren gainean herritarrek duten iritzia jakin eta esandako zerbitzua hobetzeko, Udalak 15 eguneko epea zabaldu du nahi izanez gero herritarrek iradokizunak egin ditzaten. Esaterako, goiko kalekoek autobideko zerbitzua hartu ahal izateko autobus-aldaketa doan egiteko aukera proposa dezakete. Iradokizun horiek idatziz aurkeztu beharko dira udaletxean, kultura etxean, Udal Liburutegian edo Ibarraundi museoan.

AP-1 autobiderako aldapatxoan egongo da herriko autobus geltoki berria. MIRIAN BITERI

Geltoki berriarekin, guztira, lau egongo dira laster herrian. Kiroldegi parekoa, erdikoa eta Aranburuzabala kalekoa daude orain.

INGURUMENA > MUGIKORTASUN ASTEA

Antolatzaileak pozik daude Mugikortasun Asteak izandako harrerarekin

Udalak azpimarratu du, aurten jende gutxiago ibili arren, apurka finkatzen ari den ekimena dela

M.B. > ESKORIATZA

Irailaren 17tik 22ra herrian egindako Mugikortasun Asteak izandako harrerarekin gustura dago Udala. Aurten jende gutxiagok parte hartu badu ere, apurka finkatzen ari den ekimena dela azpimarratu dute: "Iazko ekitaldietan ibilitako jendeak errepikatu egin du, eta hori pozgarria da".

Egitarauan lau ekimen egitea aurreikusita zegoen arren, zapatuko Erreka Eguna bertan behera utzi behar izan zuten, eguraldiagatik.

Eguenean, motorrik gabeko garraio alternatiboen lehiaketa egin zuten plazan. Han bildutakoak gustura ibili ziren hankapaluetan edo *balance bike*-etan, besteak beste. Domekan, bizikleta martxa egin zuten. Herritik irtetean eguraldiak ez zuen askorik lagundu eta 25 lagun inguru irten ziren. Goiza aurrera joan ahala, baina, atertu eta herriko beste bi familia gehitu ziren Arrasaten.

Martitzenean, azkenik, ikasleak ikastetxeetara oinez joateko taldeak osatu ziren. Guztira, 18 neska-mutikok parte hartu zuten.

Hankapaluekin oso gustura ibili ziren neska-mutikoak. ESKORIATZAKO UDALA

Arduradunekin batera, ikasleak oinez joan ziren eskolara. M.B.

Bizikleta martxan, hasieran, eguraldiak ez zuen askorik lagundu. ESKORIATZAKO UDALA

TELEBISTA

LTDrako ETBren seinalea, urrian gertu

Kate batzuk orain ikusten dira LTD bidez, baina beste batzuk falta dira

I.A. > ANTZUOLA

LTDrako (TDT) antena ipinita dago Antzuolan, Altzeta baserriaren ondoan, baina oraindik seinalea ez dago erabat egokituta etxe guztietan kate guztiak jasotzeko.

Abertis enpresa arduratu da TVErako eta kate pribatuetarako (Antena 3, Tele 5, Cuatro eta La Sexta) transmisorea ipintzeaz, eta Itelazpi enpresa ETBkoaz.

Abertis enpresak amaitu ditu lanak eta kate horiek ikusten dira dagoeneko LTD bidez. Itelazpikoek, berriz, maiatz inguruan antenan obra txiki bat egin zuten, besteak beste, antenari altuera pixka bat eman nahian. Orain, antenan aparailu berezi bat ipintzekoak dira, eta urrian barrena egingo dutela esan digute Itelazpikoek.

EGOKITZAPENAK ANTENISTEK

Behin Itelazpikoek antena gertu dutenean, Udalera jakinarazpena bidaliko dute handik herritarrei zabaltzeko; baita antenisten elkartera ere, jakiteko pasa daitezkeela etxez etxe egokitzapenak egitera.

Etxebizitza bakarretan ez da moldaketarik egin behar, antenek kate guztiak ipintzen dituztelako eta zuzenean sartzen direlako kateak. Etxebizitza blokeetan, aldiz, antenistari deitu behar zaio kateetan modulu txiki batzuk ipintzeko.

Bestalde, Itelazpik esan digu Gipuzkoan apirilean egingo dutela itzalaldi analogikoa eta LTD bidez bakarrik ikusiko dela telebista; hortaz, ordurako egokitzapena egina izatea gomendatu dute.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Ingurumen inpaktua eta zarata alegatuko dituzte AHTren aurka

Oinarrizko proiektua jendaurrean ikusgai izan da asteon eta alegazioak Udalak aurkeztuko ditu

AHTren aurkako taldeak salatu du trena Aritzagabasalde baserritik oso gertu pasako dela

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Asteon egin dute AHTren oinarrizko proiektuaren bigarren zatiaren (Antzuola-Ezkio) aurkezpena. Ondoren, jendaurrean ikusgai ipini eta jendeak aurkako iritziak azaltzeko aukera izan du. Hala ere, oinarrizko proiektuari egindako alegazioak Udalak baino ezin ditu aurkeztu eta jasotako iritziak batu ondoren denak aurkeztea da asmoa.

Antzuolari eragiten dion AHTren proiektua bi zatitan dago banatuta, eta lehenengo proiektuarekin egin zutena orain bigarrenarekin egingo dute: proiektua aurkeztu eta alegazioak jaso ostean, haiek ere aurkeztu.

Lehengo eta oraingo alegazioak antzerakoak izango direla jakinarazi digu Pedro Iturbe alkateak: "Ingurumen inpaktua eta zaratak alegatuko ditugu, batetik; bestetik, Olaker lantegiaren inguruko industriagune batean ez dutela kontuan hartu lotune bat; eta San Blas auzorako sarrera-irteerak hobetzeko ez dutela kontuan hartu gerora nola geratuko den".

BASERRITIK GERTU

Bestalde, AHTren aurkako taldeko Fernando Iturbek esan digu kasurik larriena Aritzagabasalde baserriarena dela, euren ustez. "Abiadura Handiko Trena pasako litzateke baserritik hamar metrora, hura ukitzen, eta baserria zutik mantentzea da asmoa. Trenbidetik hamar metrora bizi izaterik ez da egongo; lanek iraun bitartean ez, noski, eta gero ere ez".

Hortaz, hori da aurkeztuko duten alegaziorik esanguratsuenetariko bat. "Lehengo oinarrizko proiektuak azaltzen zuen nola AHT Goizper lantegiaren atzetik pasako den; baina industria eraikin bat da eta, gainera, distantzia luzeagora pasako da. Hau, ordea, baserri bat da. Alderantziz, trenbidetik hamar metrora etxe bat egiten ez lukete utziko, baina orain baserria zutik mantentzea da proiektuak dioena. Hobe litzateke baserria bota eta inguruan beste bat eraikitzea", esan digu Iturbek.

Gerora etorriko da eraikuntza proiektua eta hori jendaurrean aurkeztu ondoren egongo da nork bere alegazioak aurkezteko aukera.

PILAR ETXANIZ

Herri Eskolako ikasleak Orion izan dira

Orioko Txurruka aterpetxean izan dira Herri Eskolako 54 ikasle eta lau irakasle. Eguraldi txarra iragarrita egon arren, nahiko ondo portatu da eta hainbat ekintza egiteko aukera izan dute: igerilekuan bainua hartu, jolastu, *Goenkale*-ko mahastiak eta etxea ikusi, herrira eta farora joan eta Orioko arraunlarien entrenamendu saioak ikusi. Lan apur bat ere egin dute, baina: jatorduetan ikasleak arduratu dira zerbitzatzeaz, mahaia ipintzeaz eta batzeaz...

HITZALDIA > TIBETEKO EGOERA

Tibeteko monjeek hitzaldia egingo dute Torresoroan

Martitzenean izango da hitzaldia, 19:00etan, eta berehalako itzulpen zerbitzua egongo da

I.A. > ANTZUOLA

Irailaren 29an, martitzena, Tibeteko hiru monjek euren egoeraren berri emango dute Torresoroan, 19:00etan. Txinatarrek Tibet indarrez hartu zuteneko 50. urteurrenaren harira, Atisha kultura elkarte tibetarrak hainbat ekitaldi antolatu ditu, eta horietako bat da Antzuolako hitzaldia. Hitzaldian aldi bereko itzulpen zerbitzua egongo da, baita galderak egiteko aukera ere.

Hizlariak izango dira Geshe Lobsang Trinley, errefuxiatuen semea eta filosofia budistan doktoratua; Thupten Choepel, errefuxiatuen semea; eta Lungrik Chongor, duela 12 urte Tibetetik ihes eginda dagoena.

ARTISAU LANAK

Gainera, martitzenean, egun guztian barrena udaletxeko arkupeetan Tibeteko artisau lanak saltzen egongo dira.

KIROLA > PILOTA

Frontoi Txikiko Txapelketa urrian ipiniko dute abian

Izena emateko Mox tabernara jo behar dute pilota zaleek eta 10 euro ordaindu

I.A. > ANTZUOLA

Iazko harrera onaren ostean, aurten ere Frontoi Txikiko Pilota Txapelketa antolatu dute.

Antolatzaileen asmoa da txapelketa ahalik eta lasterren haste. Seguru asko urriaren 3an ekingo diote, baina aurrez ikusi beharko da ea parte-hartzaileek ahal duten.

Partiduak zapatu goizetan izango dira, eta txapelketa ligaxka eran jokatuko dute. Oraindik zehazteke dago multzo bat edo bi osatuko dituzten.

TXAPELA JOKOAN

Interesatuek Mox tabernan eman beharko dute izena datorren eguena, urriak 1, baino lehen eta 10 euro ordaindu beharko dituzte materialerako.

Iaz Josu Zubikaraik irabazi zuen txapela eta aurten ere txapela izango da jokoan. Gainera, parte-hartzaileek afaria egingo dute txapelketa amaitzean.

AISIALDIA

Zapatuko tortilla lehiaketako sailkapena

L.Z. > ELGETA
Indarra hartuta dabil Sagardo Egunarekin herrian egiten den tortilla lehiaketa. Aurten, 30 taldek hartu dute parte, eta batzuk ondo prestatuta joan direla argi ikusi da.

Hiru lagunek izan dute parte-hartzaileen lana epaitzeko ardura. Lehia estua izan da. Berdinketa izan zen lehenengo posturako, baina *Azkoitxiko irabazliak* taldeak bi zortziko lortu zituen (8-8-6) eta *Ekipo tortilla* taldeak bakarra (8-7-7).

Lehiaketako sailkapena

	TALDEA	PUNTUAK
1.	Azkoitxiko irabazliak	22
2.	Ekipo tortilla	22
3.	G. Ojanguren	21
4.	Jimeneztarrak	20
5.	Patateruak	20
6.	Tatariketebi	20
7.	Pitufuak	20
8.	Irabazliak	20
9.	Piperrak	19
10.	Setas.com	18
11.	Bikotea	18
12.	Patatei txotx	18
13.	Aralar	18
14.	90.210	16
15.	Hirurok	16
16.	Maya	16
17.	Noizbehinka	16
18.	Elgetako gorrixak	16
19.	Aizkorta	15
20.	Burutxori	14
21.	Txoriburu	14
22.	Millonarixuak	14
23.	Faka faka	14
24.	Tortilla Expres	13
25.	Hondarribi T.T.	13
26.	Txotxeruak	12
27.	Marruxkak	12
28.	Fly	12
29.	Lursagar arrautzopila	11
30.	Tti-tti-tta	4

oharrak

DEIALDIA
> Biodantza eskolak hastear Ana Mari Sousaren eskutik

Ikasturte honetan ere biodantza eskolak emango ditu Ana Mari Sousak. Psikologoa eta biodantzako irakaslea da Sousa. Urriaren 1ean egingo du lehenengo saioa Elgetako Herri Eskolan. Doako eskola irekia izango da, konpromisorik gabe biodantza zer den jakin nahi duten guztiendako. 19:00etan elkartuko dira eta bi orduko saioa izango da. Informazio gehiagorako: 606 63 61 99.

Mireia Berriozabal ludoteka-gazteleku berria prestatzen dabil, guztia garaiz gertu egon dadin. L.Z.

AISIALDIA > ZERBITZUAK

Ludoteka-gaztelekua, gertu ikasturtea hasteko

Eguenean zabalduko dute ludoteka zerbitzua, eta gaztelekua aste bukaeran ipiniko dute martxan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Eguenean zabalduko ditu ateak ludoteka zerbitzuak. 2-10 urte bitarteko umeei zuzendua, egoitza berria izango du aurten. Mireia Berriozabalek egingo ditu hezitzaile lanak, eta hura dabil egunotan lokal berria txukundu, materiala sailkatu eta txoko ezberdinak antolatzen.

"Asko gustatzen zait egoitza berria. Handia da, argi asko dauka eta ekintza ezberdinak egiteko aukera emango du". Berriozabalek lau txoko gertatu ditu: etxeko txokoa, ipuinena, jostailuena eta antzerkiaren txokoa. Gainera, eskulanak egiteko mahaia ipini dute, taldean lana egiteko aukera emango duena. "Egoitza berriak, gainera, kanpoko ekintzak egiteko aukera handiak ematen ditu", azaldu du Berriozabalek. "Plazatxoa dugu bertan, eta ziburuak ere bai".

GAZTELEKUA
Datorren asteburuan zabalduko dute gazteei zuzendutako zerbitzu hori. Hasiera baten, gidaritza Mireia Berriozabalen esku egongo da kasu horretan ere, baina Udalak beste hezitzaile bat kontratatzeko asmoa dauka.

IKASTAROA > PSIKOMOTRIZITATEA

Itsaso Leaniz da aurtengo psikomotrizitate irakaslea

Eskolak hasi aurretik, bilera informatiboa egingo dute hilaren 30ean udaletxean

Itsaso Leaniz. OIHANE ISASI

L.Z. > ELGETA
Urriaren 5ean hasiko dira aurten psikomotrizitate eskolak. Itsaso Leanizek gidatuko ditu, eta aurretik bilera egin gura du interesa duten gurasoekin. Eguaztenean, hilak 30, elkartuko da eurekin, 18:30ean. "Azalduko diet proposatutako dinamika zein den", adierazi digu.

Psikomotrizitatearen praktikak umearen osotasuna hartzen duela kontuan esan digu, eta autonomia, sormena, errespetua eta inteligentzia lantzen dituela. "Ume bakoitzaren garatze prozesua, beharrak eta desioak hartuko ditugu kontuan", adierazi du. Betiere, marko eta dinamika baten barruan saioak ez direla gidatuak izango ere aurreratu digu: "Saio bakoitzak hasiera eta bukaera izango du, baina, helburuak lortzeko, jarraipenak badu bere garrantzia. Ume bakoitzak bere erritmoan aukeratu eta egingo ditu ekintzak. Ni laguntzaile bat izango naiz sormen prozesu horretan".

Astean saio bakarra egingo dute, astelehenetan. Ordutegia eguazteneko bileran finkatuko dute.

KIROLA

20 bikotek eman dute izena pilota txapelketan

L.Z. > ELGETA
Gertu dauka dagoeneko partiduen egutegia Fernando Zenitagoiak. Pozik dago, jende askok eman du-eta izena pilota txapelketan parte hartzeko. "Elgeta herri txikia da, eta herri mailako txapelketan 40 lagun aritzea asko da, nire ustez". Hamaika bikote arituko dira 40 urtetik azpikoen mailan eta bederatzi 40 urtetik gorakoen mailan. "Gazteetan atzera ere lehian izango dira iazko irabazleak, eta bikote dira, gainera: David Peñalver eta Txomin de Vega, hain zuzen ere. Nagusietan ere iazko bi irabazleak txapelketan izango dira, baina beste jokalari batzuekin osatu dituzte bikoteak.

Itxita dago txapelketan izena emateko epea. Lehenengo norgehiagokak urriaren 16an jokatuko dira Udal Pilotalekuan.

bere ustez

Maria Elena Eztenaga

Gerrari oporrak eman

Oporrak igaro berri ditugula-eta hausnarketa txiki bat egin gura nuke. Jende ugari ikusi dut leku guztietan. Sekulako krisia dagoela, baina apenas igarri den. Hondartzak, hiriburuak eta baita mendi tontorrak ere... pertsonaz beteta aurkitu ditugu.

Egia da. Denok daukagu eskubide osoa urtean behin egun batzuk ohizko lekuetatik at ibiltzeko, eta norberaren buruari *txipa* aldatzeko. Oso komenigarria deritzot, gainera, ez bakarrik gorputzari atseden emateko, baizik eta gure buruari ere. Agian, komenigarriagoa azken hori.

"Zein asmakizun ederra litzatekeen gerrari eta biolentziari oporrak ematea"

Goizean jaikitzeko ordua erabat ezberdina da, jateko ordua ere bai, oheratzeko ordua ere ezohizkoa... Dendena da ezberdina, tira dena ez, telebista apenas ikusten dugun eta egunkariak ere ia ez, baina ikus-entzunezkoak zoritxarrez beti dira berdinak. Biolentzia eta gerrak. Zenbat hildako! Odola dariola mutiko bat, hainbat neskatila intzirika, amama bat zotinka noragabe zoroan... argazki gordinak benetan.

Eta hona hemen hausnarketaren ondorioa! Ene, zein asmakizun ederra litzatekeen biolentziari, minari eta gerrari oporrak ematea.

((112))
SOS DEIAK

UDALA > TEKNOLOGIA BERRIAK

Udaleko deialdien berri izateko sare bat ipiniko dute martxan

Udal Zabalkunderako Sare Lokala herritarrekin harremanak bideratzeko beste modu bat da

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Orain arte herritarrek kartel, eskuorri edo postontzi bidez jasotzen zituzten Udaleko deialdiak eta oharrak. Horiek beren funtzioa betetzen jarraituko dute, baina laster Udaleko informazioa jasotzeko beste bide bat egongo da: Udal Zabalkunderako Sare Lokala, hain justu ere. Udalaren helburua da "teknologia berriak udal bizitzan txertatzea", informazioaren zabalkundea azkartzea ekarriko duelako horrek. Modu horretan, gainera, herritarrak teknologia berrietan murgiltzera animatu nahi dituzte.

18 urtetik gorako herritar guztiek erabili ahalko dute sare hori. Adin txikikoek, berriz, gurasoen edo legezko ordezkarien baimena aurkeztu beharko dute.

Interes orokorreko informazioa eskainiko da sare horren bitartez: kultura eta kirola hitzorduak, ikastaroak, herriko berriak, elkarteen egitarauak, eta abar. Behin sarea martxan dagoenean, Udalaren asmoa da herriko elkarte eta taldeei ere sarea erabiltzeko aukera ematea euren egitasmo eta ekitaldien berri emateko.

ESKARIA

Sarera konektatu nahi duten herritarrek edo elkarteek udal bulegoetan aurkeztu beharko dute horretarako eskaria. Orri bat bete beharko dute; bertan, norberaren datuak, posta elektronikoa eta informazioa bidaltzeko baimena eman beharko dira. Udaletik azaldu dute datuak udal fitxategian bildu eta babestu egingo direla Datu Pertsonalak Babesteko Legea beteta.

Teknologia berriak erabilita Udaleko informazioa modu azkarrean jasotzea ahalbidetuko du martxan ipiniko duten Udal Zabalkunderako Sare Lokalak.

EUSKARA

Urrian hasiko dira euskara ikastaroak

A.B. > ARAMAIO

Udalak antolatutako euskara ikastaroak urrian hasiko dira; eguna zehazteke dago oraindik. Eskolak astean hiru egunetan emango dira udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroan izena ematen dutenek hamar euro ordaindu beharko dituzte hilean eta asistentzia %80 baino handiagoa bada, Udalak itzuli egingo die dirua. Dagoeneko 20 lagunek baino gehiagok eman duten izena eta izenemate epea oraindik zabalik dago.

MINTZALAGUN PROIEKTUA

Ikastaroez gain, Udalak euskaldun zaharrentzat Mintzalagun proiektua ipiniko du martxan. Helburua da euskaraz hitz egin nahi dutenendako talde txikiak sortzea. Izena emateko epea zabalik dago urriaren 16ra arte. Udaletxean bertan, liburutegian edo kultura etxean eman beharko da izena.

Domekan egingo dute lehenengo bisita gidatu antzeztua; espainolez izango da, baina urriaren 3an antzezlan bera egingo dute euskaraz

A.B. > ARAMAIO

Herriko historia eta kondairak ezagutzeko aukera ezin hobea izango da datozen bi asteburuetan Aramaion. Zuiako Koadrilak antolatuta bisita gidatu antzeztuak egingo dituzte: lehenengoa domeka honetan egingo dute eta bigarrena hurrengo zapatuan, urriak 3. Asteburu honetakoa espainolez izango da, eta hurrengoa, berriz, euskaraz. Biak ere 18:00etan hasiko dira herriko plazan, eta ikusleek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Beste herri batzuetan egin izan dituzte horrelako bisita gidatuak, baina Aramaion egingo diren lehenengoak izango dira.

XV. MENDERA ITZULI

Bisita gidatu antzeztuen bitartez Erdi Aroan kokatutako kondairak ezagutzeko aukera egongo da. Juan Alonso Muxikaren kondaira, besteak beste. Turrioi gaztelu-

Joan den urtean Gujuli herrian egindako bisita gidatu antzeztuaren momentu bat. ZUIAKO KOADRILLA

ZUIAKO KOADRILA > BISITA GIDATU ANTZEZTUAK

XV. mendean Aramaio nolakoa zen jakiteko aukera polita

an bizi zen jauntxo maltzurra zen Juan Alonso Muxika, Aramaioko jaun eta jabea. Berta Ibabe ezagutu eta emakume lirain horrekin maiteminduko da eta bere maltzurkeria erabiliko du Berta Ibabe bahitu eta berarekin ezkontzeko. Bada, XV. mendeko kondairak ezagutzeaz gainera, gaur egungo Aramaioko ondarea ezagutzeko bidea ere emango du antzezlanak.

> ZUIAKO KOADRILLA

Orri-markagailuen lehiaketa martxan da dagoeneko

Zuiako Koadrilak antolatutako orri-markagailuen lehiaketa abian da eta lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 20a da. Orri-markagailuak folio edo kartulina batean aurkeztu behar dira eta neurriak honakoak dira: 4,5x21 zentimetro; bestelako neurririk ez da onartuko. Lau kategoria bereiziko dira: 10 urtera arte, 14 urtetik 14 urtera, 15 urtetik 17ra eta 18 urtetik aurrera. Kategoria bakoitzeko hiru sari banatuko dira: 150, 100 eta 60 euro. Irabazlearen izena abenduaren 14an jakingo da.

TXIRRITOLA ELKARTEA > SAGARDO EGUNA

Aurten Blanka Mendialduak egingo du Sagardo Egunari hasiera emateko txotxa

A.B. > ARAMAIO

Sagardo gozoa dastatzeko aukera egongo da aste bukaera honetan Aramaion; bertako sagardoa. Txirritola Euskara Elkarteak antolatzen duen urteroko Sagardo Eguna ospatuko dute domekan. 11:30ean hasiko da festa, herriko trikitilarien kalejirarekin. 12:00etan, herriko plazan, bertsolariek agurra egingo dute eta ondoren, Aramaioko Sagarzaleen Elkarteko lehendakariak hartuko du hitza. Txotx ofiziala, bestetik, Blanka Mendialduak egingo du aurten. Mendialdua Aramaioko eskolan irakasle izan da urte askoan eta aurten erretiratu egin da. Gainera, euskararen alde lan handia egin du eta egiten du. Txotxa eginda, sagardoa dastatzeko momentua etorriko da gero. Taloa eta herriko produktuekin egindako jakiak dastatzeko aukera ere egongo da. Bestetik, Hala Bedi irratiak zuzenean egingo du plazan bertan ordubeteko saioa.

Joan den urteko Sagardo Egunean. ALEX MENDIKUTE

EHIZA > DENBORALDIA HASTEAR

Ehiza postuen zozketak herrian egitea eskatuko dio Udalak Aldundiari

Federazioak kudeatzen duen barrutian ehiztari gehiegi sartzen dituztela uste du

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Ehiza denboraldia hastear dago; usoak eta birigarroak ehizatzeko sasoia, hain zuzen, eta laster hasiko dira Gatzagan dauden postuak zozketatzen. Hala ere, aurten atzeratu egingo da apur bat, Gatzagakoak ez diren ehiztariendako postuak dauden ehiza-barrutia joan den eguenean esleitu zuelako Udalak. Behin-behineko esleipena izan zen eta Gipuzkoako Ehiza Federazioari eman zion. Lau urterako hartu du hark –azken 12 urteotan legez– eta urtean 30.000 euro ordainduko dizkio Udalari –urtero KPI igota–.

Udalak, baina, behin betiko esleipena egin aurretik batzarra egingo du Aldundiko ordezkariekin. Astelehenean, hain zuzen, elkartuko dira, eta eskaera batekin doaz gatzagarrak: Federazioak egiten dituen postuen zozketak Gatzagan egitea. Azken urteotan Aretxabaletako taberna baten egin izan dituzte baina Udalak gura du kanpotarrak Gatzagara ekartzea: "Hainbat ekitaldi egiten ibiltzen gara jendea ekartzeko herrira, dirua gastatuta askotan. Horregatik, zozketa uneak aproposak dira kanpotarrek gurera etortzeko bidea ikas dezaten", azaldu du Iñaki San Pedro zinegotziak.

POSTUAK ERATU BARIK

Gatzagako Udalak, bestalde, argitu gura du ehiza denboraldia hastearen atzerapena ez dela Udalaren kontua izan. Lehen batzarra Aste Santu aurretik egin zutela Aldundiko ordezkariekin jakinarazi du eta Udala behin eta berriz atzetik ibili arren erantzunik jaso barik egon dela. Hori horrela, postuak oraindik eratu barik daude eta horrek atzerapena ekarriko du.

Gatzagakoak ez diren ehiztariendako 46 postu daude Gatzagako Mendian, baina Udal ordezkariek badakite 65 postu zozketatzen dituztela –nahiz eta jakinarazpenik egin ez federazioak– eta horrek masifikazioa dakarrela dio: "Usoak harrapatzeko aparteko postuak dira Gatzagakoak, baina jende asko sartzen dute eta horrek behar bezala ehizatzeko aukera eragozten du". Hori horrela, Udala minduta dago ehiza barruti hori ezin duelako zuzenean kudeatu –eta argibiderik ere ez diotelako ematen–, herrirako errekurtsoak eskuratzeko bidea izango litzatekeelako.

Sorginak elkarteko emakume koadrila Zaragozan munduari eutsi guran. SORGINAK

EMAKUMEAK > IRTEERA

Nafarroa hegoaldea eta Zaragoza ezagututa itzuli dira

Hamazazpi emakume izan dira, batzuk 80 urteren bueltan dabiltzanak, eta olioa eta ardoa zelan egiten dituzten ikusi dute

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Joan den zapatuan Gatzagatik irten eta Nafarroa hegoaldean eta Zaragoza aldean ibili ziren Sorginak elkarteko 17 emakume. Eguraldia lagun, paregabeko aste bukaera pasatu zuten paraje berriak ezagututa eta elkarrekin egonda.

OLIOA ETA ARDOA

Lehen geralditxoa Nafarroako Cintruenigo herrian egin zuten olioa egiten duten lantegia ikusteko. Olibek jarraitzen duten prozesua ezagutu zuten, baita zenbat olio mota dauden ere. Tuteran bazkaldu eta arratsalderako Zaragozan zen emakume koadrila. Hiria ezagutzeko turistendako gertatutako autobusa bezalakorik ez dago, eta hantxe ibili ziren gora eta behera. Afaltzeko, ostera, Aragoiko jakirik gozoenak dastatu zituzten.

Domeka goiza Zaragozako eraikinik ikusgarrienak eta entzutetsuenak ezagutzeko izan zen, tartean Pilar Ama Birjinaren eliza eta La Seo katedrala. Etxerako bueltan berriro Nafarroan geratzea erabaki zuten, Murchante herrian dagoen Principe de Viana upategia ezagutu eta ardoa erosteko.

HERRIKO EKINTZETAN LAGUNTZAILE

Beste irteera batzuetan izan diren emakumerik nagusienak oraingoan ez dira joan, baina 80 urteren bueltan dabiltzanak bai. Hala, orain dela 20 urte baino gehiago hasiera emandako harremanari eusten diote Gatzagako emakumeek. Urtean irteera bakarra egin arren beste ekitaldi batzuk ere antolatzen dituzte: bazkaria Emakumeen Egunean, ikastaroak eta berbaldiak. Gainera, herriko ospakizun askotan hartzen dute parte; San Milixanetan, esaterako, taloak egiten. Eta aurten Andramari jaietan ere lagundu dute, gatz museoan.

GUREL

Ludoteka kudeatzeko begiralea behar dute

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak urriarekin batera zabaldu gura du ludoteka: urriaren 5ean, hain zuzen. 2 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako zabalduko du, urtero legez, eta haiekin lan egingo duen begiralea behar du. Interesatuek eguaztenerako, irailak 30, aurkeztu behar dute eskaintza Labidea dendan.

Gurelek ez die eskatuko urte osoko egitaraua eginda eroatea begirale izan gura dutenei, baina bai erreferentziaren bat edo beste aurkeztea, esperientziarik duten jakiteko. Gainera, egonkortasuna eskatuko diote; hau da, lana hartzen duenak ikasturte osorako konpromisoa har dezala. Garro jauregian dagoen ludoteka urrian hasi eta ekaina bukatu bitartean egongo da zabalik, astelehenetik egubakoitzera bi orduz (17:00-19:00).

> INTERNET

Dinamizatzailea izango da KZgunean gaur arratsaldean

Gaur, hilak 25, Aitor Madrid dinamizatzailea egongo da Pilar kaleko KZgunean (16:00-20:00).

Interneten gaineko zalantzak argitzeko gertu etorriko da eta, gainera, bi orduko hainbat ikastaro eskainiko dizkie herritarrei. Sare sozialak, *Skype* eta *Google* tresnak erabiltzen ikasteko aukera izango dute gatzagarrek, baita norberaren zuhaitz genealogikoa egiteko ere. Hainbeste entzuten diren *Gmail, Youtoube, Flickr* eta antzekoak zer diren ere azalduko die interesa dutenei.

> IKASTAROA

Yoga ikastaroa egingo dute kultura etxean abendura bitartean

Yoga ikastaroa antolatu dute herrian eta atzo ziren hastekoak eskolak. Kultura etxean egingo dute (18:30-20:00) eta hiru hilabete iraungo du; hau da, abenduaren 17a arte. Hilean 20 euro ordaindu beharko dute ikastarora doazenek, eta izena ematerakoan ordaintzeko eskatu dute antolatzaileek. Ikastarora doazenek manta eroan beharko dute etxetik, yogari dagozkion ariketak egiteko.

Ruben Nogueiras eta haren Silver Car gorria. Oñatikoak aurreikusten du Zabaleta beste maila batean izango dela, baina lanak eman nahi dizkio.

ARGAZKIA: SERGIO GIL, WWW.GARITORACING.NET

AUTO LASTERKETAK > UDANAKO IGOERA

Zazpi urteko isilaldiaren ondoren, bihar motor hotsa itzuliko da Udanara

15:30ean hasiko da Udanako igoera, baina errepidea 13:00etarako itxiko dute antolatzaileek

Lasterketa etxean izango delako 'berotuta', Oñatiko zazpi pilotu lehiatuko dira; faboritoa, baina, Zabaleta bergararra da

XABIER URTZELAI > OÑATI

Bihar, zapatua, autoen motor zarata itzuliko da Udanako *paella* bakoitzera. Oñatin 2002an antolatu zuten azkenekoz lasterketa hori, eta zazpi urteko hutsunearen ondoren Oñatiko motor taldeak igoera –Euskadiko mendiko txapelketarako puntuagarria– berreskuratzeko ardura hartu du berriro ere.

Lasterketa 15:30ean hasiko dute, baina antolatzaileek argitu dute errepidea 13:00etatik itxita egongo dela, 21:00ak arte. Parte-hartzaileei dagokienez, zenbateko polita batuko da bihar irteera puntuan: 54 pilotu. Eta, tartean, Debagoieneko asko izango dira.

OÑATIKOAK, ANIMATUTA

Etxean lasterketa egingo delako *berotuta*, bihar zazpi oñatiar izango dira 4,2 kilometroko igoerari aurre egiteko gertu: Ruben Nogueiras (Silver Car), Juan Inazio Zelaia (Silver Car), David Ardions (Clio Sport), Aitor Ramirez (BMW 320 ST), Antonio Merino (Golf G60), Aitor Arnaiz (R5 GT Turbo) eta Sergio Porcel (Citroen Xsara VTS). Eurekin batera, baina, lasterketan izango dira ibarreko beste hainbat pilotu; tartean, Igor Orobengoa (Seat Ibiza GT TDI) arrasatearra, Mikel Otxoa (BMW Touring) aretxabaletarra eta, zelan ez, mendiko sailkapenean lider dagoen Aitor Zabaleta (Lola BMW) bergararra.

AZKENAURREKO PROBA

Mendiko txapelketaren barruan, Udanako igoera egutegiko seigarren lasterketa da, eta Urrakikoa izango da azkena –urriaren 25ean–. Sailkapen orokorrari begira Zabaletak (128 puntu) ez du kontrariorik, haren autoa gainontzekoen gainetik dago-eta –baita hura gidatzeko gaitasuna ere–. Bigarren postuan Nogueiras dago sailkatuta (111 puntu) eta hirugarren Alberto Alonso dago (86 puntu).

Lasterketa jarraitzeko, Nogueirasek berak eman dizkigu hainbat pista: "Niretako leku onena hasierako zatian, Zulatzako baserriaren azpian dagoen zelaia da. Hor autoak azkar joaten dira, eta nik horrekin gozatzen dut gehien. Hor eta baita begiratokian ere, nahiz eta orain zuhaitzak dauden eta, akaso, ez da horren ondo ikusiko. Jendeari, baina, *paellak* gustatzen zaizkio gehien". Hortaz, bakoitzak aukera dezala.

Ruben Nogueiras > Pilotua

"Udanako igoeran lehenengo tartea gustatzen zait niri"

X.U. > OÑATI

Ruben Nogueirasek hiru hilabete baino ez daramatza Silver Car autoarekin lehian, baina dagoeneko emaitza onak batu ditu. Mendiko txapelketan bigarrena da, Zabaletaren atzetik.

Bihar zaila izango da Zabaletari eustea.

Oso zaila. Nik uste dut gainontzekook baino bost segundo azkarragoa izango dela. Akaso, errepidea bustita egongo balitz aukera handiagoak izango genituzke, baina errepidea bustita egotea denondako da arriskutsu; hortaz...

Etxean korritzea motibagarria da.

Ez dakizu astea ze luzea egin zaidan [Barre]. Egia esan, maiatzean autoa erosi nuenean nire asmoa zen zirkuitutan ibiltzea, autoa poliki-poliki ezagutzen joateko, eta Udanako igoeran esku hartzera. Etxean bakarrik korritzeko asmoa nuen, hemengo hitzorduan ezin nuelako kalerik egin, baina Galiziara joan nintzen, eta, han ondo ibili nintzela ikusita, ez naiz geratu. Dena dela, sekulako gogoa dut etxeko zaleen aurrean korritzeko.

GOIENKARIA

Gogo handiegiarekin irtetea ere ez da komeni.

Orduan etortzen direlako istripuak. Horregatik, lehenengo pasada azkar egingo dut, bigarrena oso azkar eta hirugarrena topera [Barre].

Egiguzu Udanako igoeraren gainean berba.

Autoarekin milaka aldiz pasatu naiz bertatik, eta izugarri gustatzen zait. Lehenengo zatia azkarra da, oso tarte polita da hori, eta ondoren *paellak* datoz, lau guztira. Gero, goiko begiratokitik aurrera kurbak itxiagoak dira, baina tarte hori ere polita da. Orain arte parte hartu dudan lasterketetan tramuak apenas ezagutzen nituen, baina oraingoan ezin dut horrelakorik esan.

"Domekan Everesteko gailurra zapaltzea espero dugu"

Naturgas Hornbein espedizioko kideak eguaztenean hasi ziren lanean gaur, egubakoitza, 7.000 metrora lo egin ahal izateko

XABIER URTZELAI > BERGARA

Eguaztenean hartu zuten erabakia. Hiru aste kanpamentu nagusian egin eta gero iritsi da benetako erronkaren unea. Naturgas Hornbein taldeko kideak astebururako eguraldi iragarpena jaso eta berehala hasi ziren prestaketa lanetan. Hala, aurreikuspenak betetzen badituzte domekan Everesteko tontorrera iritsiko dira Juan Vallejo, Mikel Zabaltza eta Alberto Iñurrategi.

GAUR 7.000 METRORA

Hiru mendizaleen asmoa da gaur, egubakoitza, 7.000 metroraino igotzea eta biharko eguna erabiltzea beste mila metroko desnibela gainditzeko, 8.000 metroraino iritsi arte. Hori lortuta, domeka goizaldeko lehenengo orduan Everesteko tontorrera iritsiko lirateke, eta ondoren jaitsierari ekin.

Baina kontuan izan behar da Hornbein korridorean barrena espedizioko kideek hainbat zailtasun izango dituztela aurrean; besteak beste, eskaladan zehar ze zailtasun tekniko izango dituzten aurrez ez jakitea. Izan ere, azken 18 urteotan inork ez du Hornbein korridorean gora egin. Eta, noski, sherpen laguntzarik, oxigenorik eta soka finkorik ez erabiltzeak areagotu egin ditzake zailtasunak.

BIDERIK ZORROTZENA

Everesteko ipar aurpegiko azken 3.000 metroak oso zorrotzak dira. Batetik, malda handiko tartea da, eta, bestetik, teknikoki zailtasun handikoa. Hornbeinek zuzenean 2.800 metroko horma zeharkatzen du; horrek izotz eta harkaitzen arteko eskalada tartekatua egitea eskatzen du, eta azkar; horretarako ezinbestekoa da eskalatzaile talde sendoa izatea.

Bide hori, neurri handian, Tom Hornbeinek eta Willy Unsoeld-ek ireki zuten, 1963an, Everesteko mendebaleko ertza eskalatzeko ahaleginean. Ondoren, 1980an japoniarrek bide hori *zuzendu* egin zuten, ipar aurpegian zuzen gora egin eta aipatutako korridoreaz bat egin arte –6.100 metrotik 8.000 metrora–. Hala, bide horretatik zazpi mendizalek baino ez dute Everest igo, baina bik baino ez estilo alpinoan. Erhard Loretan eta Jean Troillet suitzarrak gauza izan ziren balentria hori lortzeko, 1986an. Gainontzeko eskalatzaileek estilo klasikoan lortu zuten Hornbein zeharkatzea: oxigenoarekin, soka finkoekin eta lo kanpalekuetan eginda.

Alberto Iñurritegi, Mikel Zabaltza eta Juan Vallejo. GOIENKARIA

Kanpamentu nagusitik hauxe adierazi zuen Iñurrategik: "Eguraldi egongorra eman dute, batez ere zapaturako eta domekarako, eta hori aprobetxatu behar dugu. Asmoa da domekan tontorrera iristea".

ESANAK

"Eguraldi egonkorra eman dute zapatu eta domekarako, eta hori aprobetxatu beharra daukagu"

"Tontorrera iristeko hiru eguneko eskalada saioa daukagu aurretik"

Alberto Iñurrategi > Mendizalea

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA

Realak bost gol egin zizkion UDAri estrategia jokaldietan

UDAk 6-0 galdu zuen Realaren kontra; 29. minuturako hiru gol jaso zituzten

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA

Hirugarren mailako bosgarren jardunaldia eguaztenean jokatu zuen UDAk, eta buru-makur itzuli zen Realaren kontrako partidutik. Aretxabaletarrek 6-0 galdu zuten Zubietan.

Hain zuzen ere, donostiarrek lehen ordu erdian utzi zuten partidua erabakita: 29. minuturako hiru gol sartu zituen Imanol Idiakezen taldeak. Realaren jokoa ikusita, emaitzarekin ahaztu eta itxura ona emateko asmoz irten ziren zelaira aretxabaletarrak bigarren zatian. Gordobilen eta Arenatzaren mutilek hobeto jokatu zuten, baina Realak beste bi gol sartu zituen 50. eta 82. minutuetan.

ESTRATEGIA JOKALDIAK

Partidu bukaeran triste zeuden UDAko jokalariak, Realak sartutako goletatik bost estrategia jokaldietan sartu zituen-eta. "Estrategia jokaldietan indartsuak gara, baina gaur ez dugu asmatu. Gainera, segituan sartu dizkigute hiru gol eta lehia bukatu egin da. Dena den, denboraldiko bosgarren partidua besterik ez da, eta aurrera begiratu behar dugu", esan digu Igor Arenatzak.

Donostiarrek talde sendoa dutela esan digu eta merezimendu osoz irabazi zutela.

DOMEKAN, EIBAR B

Emaitza txarrak ahazteko hurrengo partidua jokatu besterik ez dago. UDAk domekan izango du itxura hobea emateko aukera: Eibar B taldearen aurka jokatuko du, 16:30ean, Ibarran. "Indartsu irtengo gara. Eguazteneko emaitza ahaztu behar dugu eta edozeini irabazteko gai garela erakutsi", dio Arenatzak.

ARETXABALETA Lanbide Eskola
Goi mailako Lanbide Heziketarako Berariazko Institutua

LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA

Euskal herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion katalogo modularra.

2006

KUALIFIKAZIO SISTEMA

LANGILEEI ZUZENDUAK

Fabrikazio elektromekanikoa	Orduak	Hasiera
Automatismos pneumatiko eta elektroneumatikoak	40	2010 otsaila
Automatismo hidraulikoak	36	Martxoa 2010
Automatismo programagarriak	40	Apirila 2010
CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	46	azaroa 2009
CNC fresatzeko makinako mekanizazioa	50	urtarrila2010
Fundizioa eta galdaketa		
Kalitatearen kudeaketa	20	2009 azaroa
Kalitate tresnak	24	2009 azaroa
Teknika metrologikoak eta kalibraketakoak	50	2010 otsaila
Grabitatezko galdaketako makineria eta materialak	60	2009 azaroa
Presiozko galdaketako makineria eta materialak	60	2010 martxoa
Grabitatezko galdaketako tresnerien lanak eta mantentzea	70	2010 urtarrila
Presiozko galdaketako tresnerien lanak eta mantentzea	70	2010 maiatza
Soldadura eta galdaragintza		
Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura	80	2009 urria
Elektrodo estali bidezko topekako soldadura	80	2009 azaroa
Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura	80	2010urtarrila
Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura	50	2010 otsaila
Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura	50	2010 martxoa
Posizio horizontaleko TIG soldadura	50	2010 apirila
Beste posizio batzuetako TIG soldadura	50	2010 maiatza

KUALIFIKAZIO SISTEMATIK KANPO

Ibilgailuen elektromekanika		
Ibilgailuen oinarrizko mekanika	14	2009 azaroa

LANGABETUEI ZUZENDUAK

Mekanizatua	520	Azaroa-ekaina
Ibilgailuen elektromekanika	485	Azaroa-ekaina
Geriatriako laguntzailea	359	Iraila- apirila

lanbidez hezkuntza formación profesional
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bergarako Iñaki Muxika, atzealdetik baloia jokatuz atera nahian, Hernaniren kontrako partiduan. JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Liga hasiera zuzentzekotan Mondra, Bergara eta Aloña

Ligako hirugarren jardunaldian ahaleginduko dira denboraldiko lehenengo garaipena eskuratzen; Bergarak eta Aloñak jokatuko dute etxean

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ezin da esan ohorezko erregional mailan ibarreko taldeak ondo hasi direnik. Bi partidu jokatuta ezin da aparteko irakurketarik egin, justu-justu esan daiteke ez dela hasiera onena, baina horraino. Mondrak bi partiduak galdu ditu eta sailkapenean azken lekuan egotea ez da lasaigarria, nahiz eta berriro esango dugun liga hasi baino ez dela egin. Joan den astean Bergarako entrenatzaile Manu Diazek lore ederrak bota zizkion Arrasateko taldeari, aurreko postuetan ikusten zuela esanez. Azkargortak berak onartu du iazko jokoarekin alderatuta aurten taldeari beste detaile batzuk ikusten dizkiola, baina zuri-moreek oraindik lan handia dute egiteko.

Hasteko, mamuak uxatzeko asteburuan ez dute kontrario aproposena izango, Real Unionen zelaian jokatuko dute-eta bihar, zapatua, 17:30ean. Dena dela, Real Unionek ere bi jardunaldi hauetan ez du apartekorik erakutsi.

BERGARA ETA ALOÑA, ETXEAN

Etxeko zaleen babespean jokatuko dute Bergarak eta Aloña Mendik. Horiek puntu bakarra batu dute, baina hori ez da izan liga hasiera honetan bi taldeek izan duten antzekotasun bakarra: lehenengo jardunaldian berdindu egin zuten kontrario gogorren kontra eta biek merezi izan zuten gehiago. Eta joan den astean partidu duina egin arren eskuhutsik itzuli ziren etxera.

Bihar, Bergarak Zarautzen bisita izango du (16:30, Agorrosin). Zarauztarrek joan den astean Aloñaren kontra erakutsi zuten baietz, hirugarren mailatik jaitsi direla baina iazko taldeari eutsi diotela, eta sailkapenean aurrean ibiltzeko moduko taldea daukatela. Jokalari beteranoak dituzte, baina jende azkararrekin tartekatuta.

Aloña Mendik, berriz, joan den astean Beriori irabazi zion Idiazabal hartuko du domekan (16:30, Azkoagain). Asko harritu egin ziren Idiazabalen garaipen horrekin, Donostia aldekoak ondo indartu direlako aurten. Baina ibarreko entrenatzaileek zenbat aldiz errepikatu duten kategoria horretan ez dagoela lasaitzerik...

SAN MIGELAK

Eskubaloia eta pilota bihar, jaien barruan

Domekan, berriz, bola-joko txapelketa eta arku tiroketa erakustaldia

X.U. > OÑATI

San Migel jaien barruan hainbat kirol ekintza egingo dituzte oraingo asteburuan Oñatin. Batetik, bihar 16:00etan San Migel pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte Zubikoan. Gazte mailan Landa-Aizpurua bikoteak Zubizarreta anaien kontra jokatuko du lehenengo partiduan eta ondoren Juaristi-Rezusta bikoteak Arrieta-Aretxabaleta bikotea izango du aurrean.

Senior mailan, berriz, lehenengo partiduan Urtiarte-Kantxo eta Gorka-Merino bikoteak lehiatuko dira eta bigarrenean Mugurutza-Lopez eta Mendizabal-Lintzoain izango dira zein baino zein gehiago.

ESKUBALOIA, 17:30EAN

Eskubaloiko torneoan aurten partidu bakarra jokatuko dute: bihar izango da, Granollers herritik datorren Club Handbol taldearen kontra jokatuko duten lagunartekoa.

Domekan, berriz, bola-joko txapelketa egingo dute 16:00etan hasita –San Martinen–, eta arku tiroketako erakustaldia egingo dute 18:00etan, hori ere San Martinen.

> BORROKA LIBREA

Maider Unda Munduko Txapelketan lehiatuko da, gaurtik hasita, Danimarkako Herning herrian

Maider Unda borrokalari aramaioarrak Munduko Borroka Libre Txapelketa jokatuko du gaur Herning hirian (Danimarka), 72 kiloko kategorian. Espainiako txapelketa hamaika aldiz irabazi du Undak, eta munduko txapelketara orain arte nazioartean egindako lana hobetzeko asmoz joan da. Bat Basque Team taldeko atleta bosgarrena izan zen Pekingo Olinpiar Jokoetan eta duela bi urte Bakun (Azerbaijan) jokatutako Munduko Txapelketan ere emaitza bera eskuratu zuen, bosgarren postua.

Gaur bertan egingo dituzte 72 kiloko kanporaketa guztiak, eta guztira 25 herrialdetako 27 borrokalari batuko dira.

> MENDIKO LASTERKETAK

Oihana Kortazarrek uko egingo dio kopako azken lasterketa korritzeari, min hartuta dagoelako

Oihana Kortazar ez da asteburuan Sabiñanigon egingo duten Espainiako kopako azken lasterketan izango. Abuztuaren 23an korritu zuen Kortazarrek Espainiako kopako azkenaurreko proba, Ourensen, eta orduan laugarren sailkatu zen. Orkatilako arazoekin ibili zen, eta ez zen gustura lehiatu: "Konturatu gara lesioa ez daukadala orkatilan, gerrian baizik. Eta horren eraginez gorputzeko hainbat atal mintzen zaizkidala". Pena eman dio erabakia hartu behar izanak, "baina errekuperatzea da lehentasuna".

GOIENKARIA

Vueltako sari nagusiak joan dira Donostiara, Oñatira eta Arrasatera

Espainiako Vueltako porran 22.500 euro banatu zituzten eguazten arratsaldean Monte tabernan. Donostiako *Rascallu* taldeak 9.024 euro irabazi zituen, Oñatiko *Xad 23*-k 5.640 euro eta Arrasateko *Corre corre que ya te pillare* apustuak 2.820 euro. Laugarren sailkatutik hamargarrenera, apustu bakoitzak 564 euro poltsikoratu ditu. Vueltan ere errekor guztiak gainditu ditu porra horrek, aurreko hiru itzuli handietan moduan. Hala, aurten guztira 74.000 euro banatu dituzte Xantinikoek.

> TELEBISTA
Kulturarendako leiho berri bat: GipuzkoaKultura saioa > 38

> OÑATI
Aurrekontu txikia-goarekin bada ere, Sanmigelak eki-taldiz beteta > 39

> AITOR UGARTE
Gazte oñatiarrak gazte mailako Aloña Mendi saskibaloi taldea gidatuko du aurten. Udal Musika Bandan ere badabil > 42



Jose Iturbe, lehen txapelduna, eta 'Txino', 1955. urtean.

1955ean Gastiasoroko zelaia lepo bete zen lehen txapelketa ikusteko. ARGAZKIAK: ANTOLAKETA TALDEA

Oñatin 50 edizio txakurren trebetasunak erakusten

DOMEKAN
Nazioarteko artzain-txakur txapelketa jokatuko dute domekan Oñatin

OMENALDIA
Bizirik dauden txapedunei omenaldia egingo diete

ERAKUSKETA
Kartelekin eta argazkiekin erakusketa egin dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko nazioarteko artzain-txakur txapelketak 50. edizioa beteko du domekan. Euskal Herriko, Kataluniako, Mallorkako eta Frantziako txakur trebeenak egongo dira Santa Lutziako zelaian, 10:30ean. Hain zuzen ere, *Riki*, *Ttiki*, *Bat*, *Txiki*, *Nuca*, *Txiko*, *Calio*, *Txintxo*, *Corc*, *Usso* eta *Una* txakurrak izango dira protagonistak. Haiekin batera lehiatuko da iazko irabazle *Bizkor*, Ilarduiako (Araba) Jose Mari Jauregiren aginduetara.

Hasierako txapelketetan ez zituzten ardiak hesitik pasatzen eta eskortan sartzen. Urtetan proba berak egin dituzte, baina domekan hainbat aldaketa egingo dituzte: lehen proban txakurrek ardiekin jardun beharko dute zuzenean; lehenengo, artaldea bilduz hesi zabal batetik pasaraziz, eta jarraian beste hesi batetik pasako dituzte. Bigarren proban, banderatxoak ipiniko dituzte ibilbidean eta horien artean pasa ondoren eskortan sartu beharko dituzte ardiak. Txakur trebeenak irabaziko du txapela.

Baina txapelketa bera ez da izango etziko ekitaldi bakarra: omenaldia egingo diete bizirik dauden txapeldun guztiei. Santa Lutzian elkartuko dira ikusleen txaloak eta omenaldia jasotzeko.

Txapelketa bukatu ondoren herri bazkaria egingo da Soraluze jatetxean. Bazkaria irekia da eta herritar guztiak gonbidatu gura dituzte. Txartelak Oñatiko tabernetan eros daitezke.

LEHEN IRABAZLEA

1955. urteko irailaren 25ean antolatu zuten Oñatiko Gastiasoroko zelaian *Primer Concurso Vasco-Navarro de perros de pastor* txapelketa. Arrasateko Jose Iturbek lortu zuen lehen txapela. Ondo gogoratzen du txapelketa hura, parte hartzeko soldadutzan baimena eskatu behar izan zuen-eta. "Donostian nengoen soldadu eta aitak deitu zidan esanez Oñatin txapelketa egitekoak zirela eta etxeko txakurra gertu zegoela parte hartzeko. Kuartelean baimena eskatu eta, lehiaketari buruz ezer gutxi jakinda, Gastiasorora joan nintzen", gogoratzen du. Lehen txapela *Txino* txakurrarekin irabazi zuen. "Txakur argia eta borondate handikoa zen. Haren ondoren beste txakur batzuk izan nituen, baina ez horren onak".

(38. orrialdean jarraitzen du)

DEBAGOIENEKO PARTE-HARTZAILEETAKO BATZUK

Bixente Urtzelai

Herria: Oñati.
Txapelketak: 1955ean lehiatu zen lehen aldiz. Sei urtetan bigarren sailkatu zen.
Txakurra: *Greko*, *Bat*, eta *Lau*.

Miguel Arregi

Herria: Oñati.
Txapelketak: Bi urtetan parte hartu zuen: 1971n eta 1972an.
Txakurra: Bi txapelketatan *Kanel* txakurrarekin lehiatu zen.

Jesus Mari Plazaola

Herria: Arrasate.
Txapelketak: 13 aldiz hartu du parte, lehena 1975. urtean.
Txakurrak: *Turko*, *Gure*, *Mendi*, *Nere*, *Artzai*, *Landa* eta *Argi*.

50 urte txakurren trebetasunak erakusten

(37. orrialdetik dator)

Lehen txapelketan parte hartu zuen Bixente Urtzelai *Amiño* oñatiarrak. Bigarren sailkatu zen *Greko* txakurrarekin. "Txapelketa oso parekatua izan zen. Iturbek eta biok lan ona egin genuen txakurrarekin, baina *Txino*-ri eman zioten txapela. Kontua da Iturberen txakurra ura edatera joan zela errekara eta epaimahaikoei gustatu egin zitzaien txakurraren jarrera", esan digu. Urte askoan lehiatu da *Amiño* Oñatiko txapelketan, eta sei alditan geratu da bigarren. Arantza bat geratu zaio, ordea: ez du inoiz txapela irabazi. "Etxetik kanpo txapelketa asko irabazi nituen, baina Oñatin bat ere ez. Beti puntu bat atzetik geratzen nintzen, eta amorrua ematen zidan".

Egun, txapelketara joaten da, baina lanera: "Murgiarako bidean txorizoa eta ogia saltzen egoten naiz, baita domekan ere. Giro polita egoten da, baina ez da hasierako urteetan biltzen zen jendetza etortzen".

"EZ DUT ESPERANTZARIK GALDU"

Jesus Mari Plazaola arrasatearra 1971. urtean, 14 urterekin, hasi zen txapelketetan parte hartzen; baina Oñatin 1975. urtean lehiatu zen lehen aldiz *Turko* txakurrarekin. Euskadiko txapela irabazi zuen lau alditan eta Gipuzkoakoa hirutan, baina Oñatikoa ez zuen irabazterik izan: "Sei urtetan bigarren geratu nintzen. Dena den, txapela janzteko esperantzarik ez dut galdu", diosku. Aurten ez da txapelketatan ibili, begia minduta eduki duelako, baina jarraitzeko asmoa du. Adituek diote Oñatiko txapelketa zailena dela, eta horri buruz galdetu diogu Plazolari: "Bai: alde batetik, txakur onenak lehiatzen direlako; eta beste alde batetik, zelaia oso berezia delako. Txakurrak zubitxo bat pasa behar du eta artzainarengandik nahiko urrun geratzen da. Gainera, errekak oihartzuna sortzen du. Duda barik, zailtasun asko ditu zelaiak".

ERAKUSKETA

1982. urteko kartela.

Edizio guztietako kartelak ikusgai

Nazioarteko artzain-txakur txapelketaren 50. urteurreneko ekitaldi berezietan erakusketa antolatu dute. Mende erdiko bidearen errepasoa egiteko asmoz, 50 edizioetako kartelak, artzainen argazkiak eta txapelketa eguneko irudiak bildu dituzte, besteak beste, kultura etxeko erakusketa gelan.

Erakusketa domekara arte egongo da zabalik. Arratsaldero dago zabalik, 18:00etatik 20:00etara arte.

TELEBISTA > 'GIPUZKOAKULTURA'

Kulturaz bustitzeko saioa berria Goiena Telebistan

Diputazioko Kultura eta Euskara sailek eta Tokiko telebista elkarteak -GOITB tartean- bat egin dute egitasmo berrian

Jon Aldanondo, Oihane Agirre eta Haritz Solupe, eguaztenean Donostian. M.ARREGI

J. BEREZIBAR/E. MENDIBIL > BERGARA

Telebistan kulturari eskaintzen zaion tartea areagotu eta aberasteko asmoz, *GipuzkoaKultura* telebista saio berria ikusi ahal izango da eguaztenero GOITBn, 22:30ean. Esther Ferrer artista izan zen, herenegun, lehen saioko protagonista.

Gipuzkoako Diputazioko Kultura eta Euskara sailek eta Tokiko telebista elkarteak bat egin dute egitasmo berrian eta helburua da euskarari eta kulturari leihoa zabaltzea.

Haritz Solupe Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sustapen eta Hedapeneko zuzendari arrasatearrak, Oihane Agirre GOITBko programazio arduradunak eta Jon Aldanondo Tokiko elkarteko presidenteak eguaztenean bertan aurkeztu zuten saio berria, Donostiako Koldo Mitxelenan. Esan bezala,Foru Aldundiak sustatuta eta Gipuzkoa 2.0 egitasmoaren barruan, Haritz Soluperen hitzetan, "Diputaziotik kultura edukiak guztion eskura, erabilgarri eta modu errazean bultzatu" nahi dituzte. Uztailean aurkeztutako plangintzaren urratsetako bat da saio hau".

EGUAZTENERO GOITB-N

Eguaztenetan 22:30ean telebistaz euskara hutsean emititzen duten Euskal Herriko tokiko telebista guztietan, Lurreko Telebista Digitalean zein analogikoan eta Euskaltel bidez (911, 925, 933 kateak) ikusiko ahal izango da saio berria.

Ordu erdiko saioa izango da eta euskal kultura izango da protagonista. Eguaztenean, hilak 30, Yolanda Arrietak poesia eta musika uztartuz egindako *On off* liburuaren berri izango duzue; horrez gain, Elena Odriozola ilustratzaileari eta Imanol Urbietari egindako elkarrizketak.

Jose Mari Bengoa > Antolatzailea

"Buruhauste asko sortzen dizkit txapelketak, baina merezi du"

M.B. > OÑATI

Jose Mari Bengoa 1986. urtean hasi zen antolatzaile lanetan. Ordutik 23 urte pasa dira. Txapelketaren etorkizunaz eta domekako edizioaz egin dugu berba.

MIREIA BIKUÑA

50 urte bete ditu txapelketak. Nolako balorazioa egin daiteke?

Bi balorazio egingo nituzke: positiboki esango nuke txakurraren maila igo egin dela eta euskal artzain-txakurra berreskuratu egin dugula; alde negatiboan, berriz, baserri giroa beheraka doala, eta artzainen artean dagoen lehiakortasuna. Egun, guztiek irabazi gura dute.

Antolatzaile lanetan bakarrik diharduzu. Zenbat buruhauste sortzen dizkizu txapelketak?

Asko. Azken urteotan bakarrik nabil antolakuntzan. Jendea ez dago gertu boluntario lanak egiteko. Artzain-txakur txapelketa antolatzeko urte osoko lana egin behar dut. Askotan pentsatu dut antolaketa lana uztea, baina erreleburik ez dago eta txapelketa bertan behera geratuko litzateke. Artzainek ere esaten didate lanean jarraitzeko, bestela txapelketa barik geratuko direla!

Beste 50 urte iraungo du?

Ezetz esango nuke. Egoera asko aldatzen ez bada, behintzat, ez.

Baduzu domekarako hautagairik?

Ez nuke izenik esango. Txakurraren lanaz gain, artzainaren lasaitasuna oso inportantea da. Domekan agindu okerra emanez gero, txapela gal dezakete.

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Ibargarai 1 20570 BERGARA. • Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40 • Faxa: 943 76 38 41 • e-mail: *imaltuna@sarenet.es*

ESKAINTZA PARTZIALA

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOA. Mekanizazio bidezko Produkzioa.
- Mekanizazio, Konformazio eta Muntaia prozesuen Definizioa.
- Mekanizazio, Konformazio eta Muntaia prozesuen Exekuzioa.

ELEKTRIZITATEA. Erregulazio Sistemak eta Kontrol.
- Erregulazio eta Neurri Sistemak.
- Industri Informatika.
- Potentzi Elektroniko Sistemak.

ERDI MAILA

ELEKTRIZITATEA. Ekipo eta Instalazio Elektronikoak.
- Elektroteknia.
- Barneko Instalazio Elektrikoak.

FABRIKAZIO MEKANIKOA. Mekanizazioa.
- Mekanizazio prozedurak.
- Txirbil arroketa bidezko fabrikazioa.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOKO SARRERA FROGA PRESTAKETA

ATAL AMANKOMUNA.
- Hizkuntza – Euskara.
- Matematika.

Izen-ematea irailaren 30era arte
Lana eta ikasi batera egiteko aukera

Txantxikua jaitsi aurretik hasiko da jaia Oñatin

Elkartasun Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, txosnagunean; bazkaria egingo dute 14:30ean

I. San Migel mus txapelketa eta VII. ageriko margo lehiaketa zapatu eta domekan

Iaz jokatutako olinpiadak; aurten ere, San Migel egunean, hilaren 29an ospatuko dituzte olinpiadak. A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Ofizialki astelehenean hasiko dituzte Oñatiko San Migel jaiak, baina, motorrak berotze aldera, aste bukaerarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

TXOSNA BATZORDEKO EGITARAUA

Iaz egin zuen moduan, aurten ere Txosna batzordeak egitarau ofizialetik kanpo atera du egitaraua. Musika, bazkariak, olinpiadak eta lehiaketak izango dira, besteak beste, unibertsitate ondoko txosnagunean.

Gaur, egubakoitza, irekiko dituzte txosnak unibertsitate ondoko plazatxoan. Aste bukaeran egingo dituzten ekitaldien artean, aipatzekoa da bihar, zapatua, ospatuko duten Elkartasun Eguna. Bazkaria egingo dute txosnagunean, 14:30ean. Txartelak Arrano tabernan daude salgai 5 euroren truke. Gaur izango da txartelak erosteko azken eguna.

Ondoren kontzertua egingo dute txosnagunean bertan Oñatiko taldeek. Drakes, Asfiksia, Black River eta Galdu Arte igoko dira taula gainera. 22:00etan izango da kontzertua.

TXANTXIKUAREN JAITSIERA

Astelehenean, San Migel egunaren bezperan, Txantxikuaren jaitsierak emango die hasiera jaiei. 20:00etan izango da, txosnagunean. Aurretik, baina, Arrasateko Dragoialde txarangak herriko kaleak animatuko ditu. Esan behar da astelehenean, danborradaren ondoren, 00:00etan, *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean manifestazioa egingo dela.

I. MUS TXAPELKETA

Aurtengo jaietako nobedadeetako bat I. mus txapelketa izango da. Berdura plazan jokatuko da, bihar, zapatua, 17:00etan. Lehenengo aldiz ez, zazpigarren aldiz jokatuko dena ageriko margo lehiaketa izango da. Domekan 09:00etan hasiko dira Oñatiko txokoak margotzen, eta sari banaketa kultura etxean izango da, 14:30ean.

Jaiak aste osoan jarraituko du: zapatuan Herri Eguna izango da eta datorren astelehenean Errosaixo Bixamona.

Udal egitaraua

EGUBAKOITZA 25

Egun osoan, barraken prezioa euro batekoa izango da.
20:00-23:00 Foru plazan, behaketa astronomikoa.

ZAPATUA 26

16:00 Zubikoa pilotalekuan, 26. San Migel pilota txapelketako finalerdiak.
17:00 Berdura plazan, I. San Migel mus txapelketa.
17:30 Zubikoan, 32. San Migel eskubaloi txapelketa. Aloña Mendi-Club Handbol Sant Fost.
18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsak kaleetan.
19:00 Foru plazan, GIOKELAk eskainita, pintxo dastatzea.

DOMEKA 27

Goizean zehar Ageriko VII. margo lehiaketa.
Sari banaketa, kultura etxean, 14:30ean.
09:00 Txistulari Bandaren goizeresia.
10:30 Santa Lutzia zelaian, 50. nazioarteko artzain-txakurren trebetasun lehiaketa.
11:00 Oñatiko Musika Bandaren kalejira.
13:00 Foru plazan Oñatiko Musika Bandaren Kontzertua.
14:30 Zubikoa pilotalekuan, artzain-txakur txapelketaren inguruko herri bazkaria.
16:00 Bolo txapelketa San Martinen.
18:00 San Martinen, arku tiroketa erakustaldia.

ASTELEHENA 28

18:30 Foru plazan, ZIRIKA ZIRKUS pailazoen eskutik ILARGIA antzerkia.
Eguraldi txarra egingo balu, Santa Ana antzokian.
20:30 Foru plazan LISKER taldearekin dantzaldia.
23:00 Herriko kaleetan zehar eta Oñatiko Musika Bandak lagundurik danborrada nagusia. Amaiera Foru plazan izango da.

Txosna batzordearen egitaraua

EGUBAKOITZA 25

20:30 Txosnagunean kontzertua: Bitz, Orreaga 778, Señor No eta Discipulos de Dionisio.

ZAPATUA 26 Elkartasun eguna

14:30 Herri bazkaria txosnagunean. Txartelak Arranon salgai 5 euroren truke.
22:00 Oñatiko taldeen kontzertua txosnagunean: Drakes, Asfiksia, Black River eta Galdu Arte.

DOMEKA 27

18:00 Kontzertua: Fiachras, Puro Chile, Flaming Gaupasing eta Brothers.

ASTELEHENA 28

19:00 Dragoialde txaranga.
20:00 Txantxikuaren jaitsiera.
00:00 Manifestazioa.

KLASEAK URRIAN HASIKO DIRA

Pintzeladak
Arte tailerra

ETORRI ZAITEZ!

Telesforo Aranzadi 3, behea BERGARA Tel.: 627 68 29 38
pintzeladak@aol.es

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

YLLANA TALDEAREN
BROKERS
ANTZEZLANA

Eguna: Irailak 25.
Lekua: Espaloia Kafe antzokia.
Ordua: 22:30ean.

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 89 m²ko etxebizitza salgai edo alokagai. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke, garaje itxiarekin. 687 11 07 21.

Aramaio. Bi familiendako harrizko etxea, lorategiarekin, salgai. Paraje lasaian (Errotabarrin) eta herritik oso gertu. Prezio interesgarria. 685 71 35 63.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Markole. 100 m²ko etxebizitza salgai. Bi terraza (150 metro koadro), ganbara eta garajea. 650 34 89 85.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 606 86 71 97.

Noja. Guztiz jantzita dagoen 70 metro koadroko duplex ederra salgai. Bi logela, sukaldea, egongela handia, bi komun, bi terraza, garaje itxia. Urbanizazio pribatuan, igerilekuarekin. Sei urteko eraikina. Aukera ona. 667 31 37 45.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. /Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA
- San Roke, 75 m², ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com | http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Oñati. Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. 617 78 85 38 edo 943 79 31 47.

Arrasate. Hiru ikaslerentzako pisua. Unibertsitatetik 5 minutura oinez. Logela indibidualak 175 euro hileko. Deitu 628 22 45 09 telefono zenbakira.

Arrasate. Ikasleentzako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Deitu 666 45 87 42 telefono zenbakira.

Arrasate. Lau logelako etxebizitza ematen da errentan. Bi komun, sukaldea eta egongela. Eguzkitsua. 669 05 80 33.

Donostia. 2009-2010 ikasturterako atikoa ematen da errentan alde zaharrean. Bikote batentzako aproposa. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 616 01 40 17.

Donostia. 2009-2010 ikasturterako etxebizitza ematen da errentan, Antiguan. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. 618 01 51 44.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Partekatutako etxe batean bi gela daude alokagai. Etxe berria. 250 euro, gastuak barne. 616 75 41 30.

Aretxabaleta. Partekatutako etxe batean bi gela ematen dira errentan. Internet erabiltzeko aukerarekin. Deitu 600 09 56 18 telefono zenbakira.

Arrasate. Bi pertsona behar dira etxea osatzeko erdialdean. Egoera oso onean. Hiru logela, bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. 235 euro. Deitu 606 74 42 37 telefonora.

3/ LOKALAK

301. SALGAI

ARRASATE

Taberna salgai txikiteo zonan.

666 40 65 19

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Dietista behar da belardendan. 670 96 29 56

BERGARA

Sukalde laguntzailea behar da tabernan. Paper gabekoek ez deitu. 695 78 85 55

ARAMAIO

Zerbitzaria behar da asteburutan sagardotegian. 690 85 52 25

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 telefono zenbakietara.

Arrasate. Hemengo neska gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo edozein lanetarako; orduka ere bai. 659 55 27 16 edo 943 10 96 31.

Arrasate. Neska gaztea gertu arratsaldez eta aste bukaeratan tabernan lan egiteko. 697 42 79 88.

Arrasate. Neska gaztea gertu arratsaldez ile-apaindegian lan egiteko. Deitu 697 42 79 88 telefono zenbakira.

Bergara. Urte askotako esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 669 53 02 92.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. 608 08 36 02.

Debagoiena. Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610 82 02 17.

Debagoiena. Gertu nago pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. 638 54 75 93.

Debagoiena. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 638 10 29 63.

Debagoiena. Neska gertu 15:00etatik aurrera eta asteburuetan zerbitzari, sukalde laguntzaile edo umeak zaintzen jarduteko. 679 04 42 68.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Pertsona bat behar da bi mutikori eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailan daude. 639 03 43 58.

BERGARA - UKABI INFORMATIKA

Bergarako dendarako komertzial perfileko informatika teknikari bat behar da.

Curriculumak Azpeitiko 229 postakutxara bidali.

BERGARA

BERGARAKO industrialdean PABILIOIA ERRENTAN. 1.000 m². Tarteko solairuan 120 metro koadro bulego eta zerbitzuetarako. Instalazioa eginda dago. 630 96 71 00

Bergara. Ume bati eskola partikularrak emateko laguna behar dut. 20:00etatik aurrera deitu. 943 76 03 75

502. EMAN

Bergara edo Arrasate. Eskola partikularrak ematen ditut. 699 39 20 20.

Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak eman edo haurrak zainduko nituzke. 943 76 71 51.

6/ MOTORRA

601. SALDU

California-Confortline. 2,5 TDI. 48.000 km. 4 urte. Oso ondo dago. 36.000 euro. Ikusi edo probatzeko *joshemendi@yahoo.es* helbidera idatzi edo deitu 695 75 37 61 telefonora.

Ford Transit Connect Van zuria salgai. 2008koa. Lanerako prestatua, kristal bako kaxa, bi eserleku, zerbitzu publiko txartela, oso kilometro gutxi. Oso prezio ona. Deitu 10:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 19:00etara. 672 62 42 33

Opel Corsa Joy. 1.400 cc, 16v, 38.500 km eta 4 urte. Oso egoera onean. 6.900 €. 688 61 76 77.

7/ ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Aramaio. Setter txakurkumea galdu da. Emea. Zuri-beltza. Aitor. 665 71 59 87 edo 945 44 50 05.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Giant bizikleta. salgai, errepidekoa. 56 neurrikoa. Gutxi erabilia. 4.000 km. 600 euro. 656 75 35 86.

Liburu oso zaharrak saltzen ditut. 1953. urtekoak eta zaharragoak. 696 84 19 51 edo 943 53 29 18.

LAN ESKAINTZA

DELINEATZAILEA

Bergarako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Enplegua bultzatzeko 2009ko programaren barnean, aldi baterako delineatzaile bat kontratatu nahi du .

Instantziak aurkezteko epea:
2009ko urriaren 2a arte. Edo lehenago baldintzak betetzen dituzten 8 izangaien eskaerak jasoko balira.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan eta *www.bergara.net* webgunean.

Bergara, 2009ko irailaren 18a.
ALKATEAK

Bergarako Udala

Enbasatzeko soluzio berritzaileak diseinatzen liderra den enpresak behar du:

AUTOMATIZAZIO LERROETAN ESPERIENTZIA ZABALA DUEN PROIEKTUGILE MEKANIKOA (erref.:01/09)
-Automatizazio lerroen diseinu mekanikoan esperientziaduna.
Desiragarria robotikako aplikazioetan esperientzia izatea.
-Ingelesa menperatzea.

ROBOTIKA APLIKAZIOETARAKO INGENIARI ELEKTRONIKOA (erref.:02/09)
-Gutxienez 3-5 urteko esperientzia robotikako aplikazioetan, bereziki enbasatzeko makinen zamalanetan. Desiragarria elikaduraren arloan.
-Ingelesa menperatzea.
-Nazioarte mailan bidaiatzeko prestasuna izatea.

INGENIARI ELEKTRONIKOA (erref.:03/09)
-Industria automatizazio ezagutzak.
-2-3 urteko esperientzia.
-PLC eta PC sistemak programatzen jakitea (C eta Visual Basic hizkuntzak).
-Ingelesez jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.



ULMA Packaging

Eskaintzen dugu: garapen profesionalerako aukerak dituen enpresa talde sendoan lanean berehala hastea. Ordainsaria esperientzia eta erakutsitako balioaren arabera adostea. CVa ULMA Packaging, Giza Baliabideetako Saila. 145 P.Ku., 20560 Oñati

Jatetxe Gida

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 *www.baster-aldejatetxea.com*

Eskaintza
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Igandeetan itxita

Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita

Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita

Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 *www.etxeaundi.com*

Eskaintza
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik

Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita

Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza
- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

Igande gauean itxita.

Txondorra erretegia

Bizkaia etorbidea 9 / ARRASATE
Tel.: 943 79 42 76

Eskaintza
- Sagardotegi menua
- Eguneko menuak
- Menu bereziak eta karta
- Taberna eta Wifi

Berezitasunak
- Menu pertsonalizatuak
- Kazuelatxoak
- Haragi eta arraina txingarretan erreta.

Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik

Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

Aitor Ugarte > Saskibaloi entrenatzailea

"Futbolaren agintea nabaria da; hala ere, saskibaloia interesa pizten hasi da"

Aitor Ugarte gazte oñatiarrak gazte mailako Aloña Mendi saskibaloi taldea gidatuko du datorren denboraldian. Saskibaloiak pisu handia du Ugarteren bizitzan eta entrenatzaile lanetan "oso gustura" dabilela jakinarazi digu. Herriko Udal Bandan tronboia jotzen du eta goi mailako Mekanizazio eta Mantentze-lanetarako Sarbidea ari da ikasten Oñatiko institutuan.

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

Iristear dira San Migel jaiak, eta hori albiste ona da Aitor Ugarterendako (Oñati, 1988), parranda giroan arraina uretan moduan mugitzen dela aitortu baitigu. Hori bai, Udal Bandako kide denez, jaietan goizean goiz altxatzea gogorra zela dio, gorputza ohitu duen arte.

J.B.

Noiz eta nola hasi zinen Aloñako saskibaloi entrenatzaile lanetan?

Orain dela lau urte hasi nintzen, baina aurretik lau urte egin nituen jokalari moduan. Hala ere, lesio batek uztera behartu ninduen eta handik gutxira entrenatzaile lanak egiten hasi nintzen.

Eta nola egin zenuen gorako bidea?

Hasieran gaztetxoen mailako taldearen ardura hartu nuen, beste bi lagunekin batera. Geroago, baina, nik bakarrik jarraitu nuen. Poliki-poliki ikasten joan eta ikasitakoa praktikan jarri ostean, asko gustatzen zitzaidala konturatu nintzen. Hala, mailaz maila igotzen joan ostean, datorren denboraldian mutilen gazte mailako taldea zuzenduko dut.

Zeintzuk izan dira zure kirol lorpen handienak?

Jokalari moduan aritutako urteetan ezer gutxi. Ez ginen batere talde ona eta ez genituen partidu asko irabazten. Edozelan ere, gustura joaten ginen, giro ona zegoen aldagelan. Arlo pertsonalean asko gogobete ninduten urteak izan ziren.

Entrenatzaile lanetan, bestalde, eguneroko lanarekin geratzen naiz: nik jokalariei erakusten diedanaz eta eurek niri erakusten didatenaz, hain zuzen.

Gainera, datorren urteari begira edo hemendik bi urtera bigarren mailako entrenatzaile titulua ateratzea zehaztu dut helburu moduan. Orain dela bi urte atera nuen lehen mailakoa.

Zer da saskibaloiak eskaintzen dizuna? Noraino da garrantzitsua zure bizitzan?

Saskibaloia gustuko dut eta, jokatzen izan ez bada ere, gaztetxotan hartu eta egun gazte mailan dagoen taldeari erakutsi izanak asko gogobetetzen nau. Gainera, denboraldia amaitu eta taldeak helburuak bete dituela ikustea aparta da.

Bestalde, saskibaloiak pisu handia dauka nire bizitzan. Telebistaz, Internetez edo zuzenean ikustea asko gustatzen zait, eta baita lagunekin kirol horri buruz berba egitea ere. Beste kirol batzuk ere gustuko ditudan arren, ez ditut horrenbesteraino jarraitzen.

Saskibaloia horrenbesteraino jarraitzen duzula esanda, ziur amaitu berri den Eurobasket txapelketa jarraitu duzula. Zein irakurketa egiten duzu txapelketaz? Espainiak merezi izan du txapelketa irabaztea?

Oso txapelketa interesgarria izan da, nahiz eta hainbat jokalari garrantzitsu falta ziren. Oso lehiatsua izan da eta, nahikotxo sufritu badu ere, merezi zuen taldeak [Espainia] irabazi duela esango nuke. Serbiak asko harritu nau, oso talde gaztea eroan dute eta ez nuen espero domina irabazteko moduko taldea izango zuenik, are gutxiago finalean sartuko zenik.

Debagoienean ere futbola da agintzen duena. Zer uste duzu kontu horretaz?

Futbolaren agintea asko nabaritzen da, ume gehienen ametsa futbol jokalari izatea da. Hala ere, saskibaloia interesa pizten hasi da. Horretan zeresan handia dute Baskoniak, Gipuzkoa Basket-ek eta gurean Aloña Mendik hartu duten indarra. Oñatin gertatzen dena da jende gutxi dagoela entrenatzaile lanak egiteko; astean hiru entrenamendu saio eta partidu batera konprometitzea askotxo da lanean dabilen edo seme-alabak dituen batendako.

J.B.

Oñatiko Udal Bandako kide ere bazara. Noiztik? Zein instrumentu jotzen duzu?

Bandan orain dela bost urte inguru sartu nintzen. Aitak eta anaiak ere urte asko daroate bertan eta txikitatik bizi izan dut musika etxean. Tronboia jotzen dut bertan eta gustura nabil.

Gustura, diozu. Hala ere, ez da parrandarekin oso bateragarria izango, ala?

Egia esan, jaietan eta domeka goizetan altxatzea nahiko gogorra izaten da, baina dagoeneko ohituta gaude. Gainera, gazte asko sartu da azkenaldian eta giro aparta dago gure artean.

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Erdi mailako Mekanizazio eta Mantentze-lanetarako Teknikaria. **Zaletasunak:** Saskibaloia, informatika eta parranda. **Gorrotatzen duzun zer edo zer?** Jendearen zalantzaldiak. **Gomendatzeko moduko liburu bat:** *Gomorra*, Roberto Savianorena. **Film bat:** *American Pie*. **Musika talde bat:** Green Day. **Zure saskibaloi taldea:** Baskonia. **Saskibaloi jokalari onena:** Mirza Teletovic. **Bidaiatzeko leku bat:** Costa del Sol. **Bizitzari jartzen diozun helburu bat:** Pozik bizi izatea.

'GipuzkoaKultura' programa berria hasi da GOITBn

Gipuzkoako kultura oinarri izango duen ordu erdiko saioa, astero-astero

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

GipuzkoaKultura izeneko programa berria hasi dira emititzen Goiena Telebistan. Kultura izango du langai, zentzurik zabalenean. Dantza, eskultura, musika, liburu aurkezpenak, pintura... Gipuzkoa plurala erakutsiko da saioan, eta baita kulturak Gipuzkoan duen indarra ere. Eguaztenean ezin duzula ikusi? Bada, aukera izango duzu *tokiko.tv* webgunean ikusteko. Bideoak osoosorik igoko dira.

Datorren astean saioa betebete dator: Yolanda Arrietak poesia eta musika uztartuz egindako *On off* liburuaren aurkezpena, Elena Odriozola ilustratzailearen *Txoritxoak* erakusketa eta Imanol Urbietari egindako elkarrizketa.

GOITB, 'GipuzkoaKultura'
> Eguaztena, 22:15

Imanol Urbietak bere bi liburuez hitz egingo du *GipuzkoaKultura* saioan. GOITB

Maritxu Kajoiren prestaketak

O.E. > ARRASATE

Uda giroan programako azken irratsaioak egingo dituzte datorren astean Arrasate Irratian. Beraz, Donostiako Aquariuma bisitatzeko azken sarrerak zozketatuko dituzte. Horiek lortzeko, deitu zenbaki honetara: 943 25 05 05; edo idatzi mezua *irratia@goiena.com* helbidera.

Bestalde, Maritxu Kajoi festa ospatuko dute Arrasaten gaur zortzi, eta prestaketa guztiak ere gertutik jarraituko dituzte Arrasate Irratiko esatariek.

Arrasate Irratia, 'Uda giroan'
> Aste barruan, 10:00

GOIENKARIA

Aretxabaleta eta Oñatiko San Migel jaiak 'Magazinea'-n

Aretxabaletan eta Oñatin San Migel jaiak ospatuko dituzte. Asteleheneko *Magazinea*-n, esaterako, aretxabaletarrek jaiak nola ospatu dituzten erakusteko saio berezia egingo dute eta martitzenean, Oñatiko danborrada nagusiaren irudiak ikusi eta danborrak entzungo dira.

GOITB, 'Magazinea' > Astelehena, 19:45 > Martitzena, 19:45

telebegi

Edu Mendibil
> 'emendibil@goiena.com'

Salba nazazu, arren

Euskal Irrati Telebistak eta Zinemaldiak aurreko astean sinatutako akordioari esker, zera irakurtzen dugu: Euskal Telebistak, Radio Euskadik, Euskadi Irratiak, Gazteak eta *eitb.com* webguneak Zinemaldiaren jarraipen sakona egingo dutela. Primeran. Baina telebistari dagokionez, ez da hori nire sentsazioa ETB1 eta ETB2ko programazioari erreparatuta. Albistegietako eguneroko informazio *zinefiloaz* gain, egia da *Pásalo* saioan konexioak egiten dituztela, baina ondo egongo litzateke plato bat Kursaalera edo Victoria Eugeniara eramatea, udako jaietan egiten duten antzera, eta bertan protagonistak elkarrizketatu, ziklo guztien berri emanez. Ziurrenik (eta tamalez) ez da nahikoa izango *Sálvame*-ri aurre egiteko, baina *Gaztea Klip* edo *Goenkale* baino saio freskoagoa izango da.

Festibala bukatuta, ondo egongo zen ETBk zinefiliari eustea, asteroko saio batekin, hain larri omen dabilen zinemaren mesedetan. *Salba nazazu*, arren.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Uda Giroan
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

astea GOITBn

Egubakoitza, 25
13:15 Marrazki bizidunak .
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Elkartasun bideak.
15:45 Ur eta lur.
16:15 Ikusten.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.
22:45 Musikantoi.
23:45 GipuzkoaKultura.
00:45 Emisio amaiera.

Zapatua, 26
08:00 Marrazki bizidunak.
10:30 Trikitraka trikiton.
11:30 Kantari.
14:00 Elkartasun bideak.
14:30 Ikusmira.
15:00 GipuzkoaKultura.
15:30 Trikitraka trikitron.
16:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Wazemak.
18:30 Solaskide.
19:00 Ikusmira.
19:30 Ur eta lur .
20:00 Erreportajea.
20:30 Golb tb.
21:00 Ikusten.
21:30 Ilunpean.
22:15 Solaskide.
22:45 Musikantoi
23:30 Wazemank.
00:30 28 klip.
01:00 Emisio amaiera.

Domeka, 27
08:00 Trikitraka trikiton.
09:00 Marrazki bizidunak.
11:30 28 klip.
12:00 Erloklip
12:30 Ikusmira.
13:00 Erreportajea.
13:45 Solaskide.
14:15 Eltze beroa.
15:45 Kantari.
18:15 Trikitraka trikiton.
19:15 Erreportajea.
19:45 Solaskide.
20:15 Wazemank.
21:15 Ur eta lur.
21:45 Musikantoi.
22:45 GipuzkoaKultura.
23:15 Ilunpean.
00:00 Itsasora begira.
00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 28
13:15 Marrazki bizidunak .
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Mugaz kanpo.
15:45 Elkartasun bideak.
16:15 28 klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Wazemank
18:15 Musikantoi
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Harmailarik.
23:00 Erreportajea.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 29
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:10 Harmailatik.
15:50 Solaskide.
16:20 Itsasoari begira.
16:45 Berriak.
17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Erreportajea.
18:05 Solaskide.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Ilunpean.
23:00 Ur eta Lur.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 30
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Ikusmira.
14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.
15:50 Golb tb.
16:20 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Solaskide.
18:15 Ur eta lur.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 GipuzkoaKultura.
23:15 Goiena Magazinea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 1
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Gipuzkua kultura.
15:45 Ur eta Lur.
16:15 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Elkartasun bideak.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.
23:15 Musikantoi.
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

herritarrak galdezka

MARRA HORIAK BERRIZ MARGOTU DITUZTEN TOKIETAN NEURRI ZORROTZAGOAK IZANGO DIRA?

Bergarara lanera etortzen den irakurle batek ikusi du nola Boni Laskurain inguruan aparkatzea debekatzen duten errepideko marra horiak berriz margotu dituzten, eta herriko beste toki batzuetan ere hala izan da. Hori dela-eta honako galdera egin digu: "Marrak berriz margotu dituzten tokietan aparkatzeko debekuak gogortu egingo dituzte?".

Auto bat marra horiaren gainean aparkatuta Boni Laskurain inguruan. IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergarako udaltzainengana jo dugu erantzun eske eta esan digute marra horiak berriz margotzeko arrazoia izan dela, batetik, aurrez margotutakoak jadanik ez zirela argi ikusten eta, bestetik, gidariok konturatzeko ezin dela han aparkatu eta marra horiak errespetatzeko. Toki batzuetan margotu arren, beste batzuetan marra horiak lehengoan utzi dituzte eta horren harira udaltzainek hau esan digute: "Berriz margotu ditugun lekuetan autoak hor utziz gero, errepide horretatik pasatzen diren beste ibilgailuek zailtasun gehiago izaten dituzte". Margotu berri dauden guneetan neurriak ez dituzte zorroztu: lehen bezala errespetatu ezean isunak ipiniko dizkiete gidariei.

ZER EGIN BEHAR DA GOIENKARIA-N EZKONTZARAKO ZORION AGURRA IPINTZEKO?

Senide bat ezkontzen zaiola-eta emakume bat etorri da Bergarako egoitzara honakoa galdetuz: "Zer egin behar dut ezkontzarako zorion agurra GOIENKARIAn ipintzeko?".

Lagun edo senideren bat ezkontzen denean edo ezkontza urteurrena ospatzen duenean, zorion agurren atalean euren argazkia eta mezuren bat ipini nahi izanez gero, GOIENKARIAren edozein egoitzatara jo daiteke eta argazkiarekin batera honako datuak eman: ezkongaien edo ezkonduen izenabizenak; herria; non eta noiz ezkonduko diren edo ezkondu ziren; ospakizunik egingo duten eta non; bidaian nora joango diren; eta zoriontzeko ipini nahi den mezua, noren partetik den, alegia. Egoitzetara joateko aukerarik izan ezean, honako e-posta helbideetara bidal daitezke argazkia eta datuak: *goienkaria@goiena.com* edo *zorionagurrak@goiena.com*. Hori guztia, betiere, zorion agurra argitaratu nahi den asteko ostegun eguerdia baino lehen.

Galdera egiteko:
Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin.
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

OÑATIKO MOZORRO EGUNERAKO ZELAN EMAN BEHAR DA IZENA?

Oñatiar batek galdera hau zuzendu digu: "Zelan eta noiz eman daiteke izena Errosaixo Bixamon eguneko mozorroen erakustaldirako?".

Izenemate epea zabalik dago kultura etxean, astelehenetik egubakoitzera 16:30-20:30 eta zapatuetan 10:00-13:30. Gutxienez sei laguneko taldeak izan daitezke, eta denak aurkeztu behar dira, mozorroa deskribatuta. Bukaeran, diru-kopuru bat (zenbatek izena ematen duten arabera) banatuko da parte hartzen duten guztien artean.

eguraldia

DEBAGOIENEAN

Zapatua, 26
Ipar-haizeak joko du, oso leun, eta minimoak ez dira 12 gradutik jaitsiko. Oskarbiak eta hodeiak tartekatuko dira, baina euririk ez.

Domeka, 27
Zapatuaren oso antzeko eguna izango dugu. Tenperatura maximoak 22 gradukoak izango dira, goranzko joerarekin.

EUSKAL HERRIAN

Aste bukaera txukuna izango da, udazken epela datorren aurreikuspenei kasu eginaz. Ipar haizea makal ibiliko da bihar. Bestela, tenperatura maximoak 25 graduren bueltan izango dira.

TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA Eguaztena, 16 — **12º C**

MAXIMOA Eguena, 17 — **21º C**

ASTEKO EURIA (l/m²) — **156,8 L**

	Max. ºC	Min. ºC	Euria l/m²
Eguaztena, 16	16	12	5,2
Eguena, 17	21	12	50,4
Egubakoitza, 18	15	13	81,4
Zapatua, 19	16	13	6,9
Domeka, 20	19	15	10,6
Astelehena, 21	20	14	2,1
Martitzena, 22	20	15	0,2

bono fotoa

XVI. mendeko jauregi hau Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentruaren egoitza da gaur egun. Eskualdeko ze herritan dago eta zein da jauregiaren izena?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Bergarako **Gaspar Elkoro.**
Zorionak!
Erantzun zuzena:
Bidaurretako monastegia.

Garmendia Ardoak

Garmendia Ardoek emandako
Ardo botila packa*
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago kriantza botila bat.

ERANTZUNA .....
IZEN-DEITURAK .....
HERRIA ..... TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 26	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Domeka, 27	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Astelehena, 28	Fernandez	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Martitzena, 29	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Eguaztena, 30	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Eguena, 1	Español	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Egubakoitza, 2	Ruiz	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09

BERGARA

Zapatua, 26	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Domeka, 27	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Astelehena, 28	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 29	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 30	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguena, 1	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 2	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74

OÑATI

Zapatua, 26	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 27	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 28	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 29	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 30	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 1	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 2	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETA/ESKORIATZA

Zapatua, 26	Agirre (Esko.)	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Domeka, 27	Agirre (Esko.)	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Astelehena, 28	Anitua (Aretx.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena, 29	Anitua (Aretx.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 30	Anitua (Aretx.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 1	Anitua (Aretx.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 2	Anitua (Aretx.)	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

hildakoak

- **Agustin Azkoaga Aldanondo.** Arrasaten, irailaren 18an. 96 urte.
- **Vicente Uriarte Barrutiabengoa.** Arrasaten, irailaren 20an. 82 urte.
- **Jose Blanco Seoana.** Eskoriatzan, irailaren 20an. 75 urte.
- **Maria Rosario Zubizarreta Barrena.** Bergaran, irailaren 20an. 79 urte.
- **Felisa Moreno Cervino.** Bergaran, irailaren 20an. 74 urte.
- **Asuncion Hernandez Lanz.** Arrasaten, irailaren 21ean. 84 urte.
- **Maria Aranzazu Eriz Ormaetxea.** Arrasaten, irailaren 22an. 80 urte.
- **Natividad Urrutia Valdes.** Arrasaten, irailaren 24an. 77 urte.

ESKER ONA

Asuncion Hernandez Lanz

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 21ean, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Haren arimaren aldeko meza domekan, irailaren 27an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Arrasaten, 2009ko irailaren 25ean.

ESKER ONA

Juana Ibabe Errasti

Aramaion hil zen 2009ko irailaren 9an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Haren arimaren aldeko meza domekan, irailaren 27an, 12:00etan, Aramaioko San Martin parrokian ospatuko da.

Aramaion, 2009ko irailaren 25ean.

ESKER ONA

Pedro Anduaga Zelaia

Agustindar kanonigoa

Jujuyn (Argentina) hil zen 2009ko abuztuaren 18an , 85 urte zituela.

Elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2009ko irailaren 25ean.

ESKER ONA

Natividad Urrutia Valdes

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 24an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko etxekoen izenean.

—

Garai goxo eta garai latzetan beti egongo zara gure bihotzetan.

Zure senideak.
Arrasaten, 2009ko irailaren 25ean.

ESKER ONA

Agustin Azkoaga Aldanondo

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 18an, 96 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Zure senideak.
Arrasaten, 2009ko irailaren 25ean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera:

Arrasate
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
Bergara
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
Oñati
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Aretxabaleta
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. / Zerbitzu orokorrak: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
Aramaio
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22
Elgeta
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98
Antzuola:
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 110 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 100 euro
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **140** euro.

Goienkaria: astero, 44.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



Felix Elortza eta **Consuelo Lasa** arrasatearrak orain dela 50 urte ezkondu ziren, irailaren 24an. Urriaren 3an Etxe Haundi jatetxean ospakizuna egingo dute familiakoekin. Zorionak eta muxu handi bana, etxeko guztien partetik.

Txapi eta **Mari** arrasatearrak irailaren 26an Arantzazun ezkonduko dira eta ondoren Zelai-Zabal jatetxean ospatuko dute. Bidaian Thailandiara joango dira. Oso ondo ibili eta zorionak, zuen koadrilakoen partetik.

Bergarako **Igor Larrañaga** eta **Lorea Garcia** bihar, zapatua, ezkonduko dira Bergarako udaletxean, eguerdian. Bazkaria Lasa jatetxean izango da eta gero Malasia eta Balira joango dira ezkon bidaia egitera. Lagunen eta etxeko guztien partetik, zorionak!

Arrasateko **Antonio Rodriguez** eta Soraluzeko **Lorea Ondarra** bihar, zapatua, ezkonduko dira Arrateko santutegian. Bazkaria Krabelin jatetxean izango da eta gero itsas bidaia egingo dute Mediterraneoan. Etxeko guztien partetik, zorionak!





Bergarako **Jose Mari Ambroy** eta Mutrikuko **Elvira Basterretxea** orain dela 45 urte ezkondu ziren, irailaren 15ean. Ospakizuna zapatuan, irailaren 26an, egingo dute familiakoekin. Zorionak, senide guztien partetik.

Irailak 25-urriak 2

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

Antzerkia

BERGARA
> 'Eta Karmele?' antzezlana gaur gauean Zabalotegi aretoan

Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias aktoreak dira antzezlaneko protagonistak. Bi emakume auto baten daude, lagun baten zain, baina Karmele ez da azaltzen... Gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Sarrerak, 5 eurotan.

Astronomia

OÑATI
> Behaketa publikoa gaur iluntzean Oñatin, Ilatargi taldearen eskutik

Ilatargi Astronomia Taldeak antolatuta, behaketa publikoa izango da gaur, egubakoitza, Oñatiko plazan, 20:00etan. Besteak beste, teleskopioen laguntzaz, Jupiter eta haren sateliteak eta Ilargiko kraterrak ikus ahal izango dira gaur.

Antzerkia

ELGETA
> Yllana taldearebn 'Brokers' antzezlana gaur gauean Espaloia Kafe Antzokian

IYllana antzerki talde ezagunak *Brokers* antzezlana ekarriko du gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloian, 22:30ean. Luxua, fama, boterea edo nartzisismoari gainbegiratua. Sarrerak 16 eta 13 eurotan salgai.

Musika

BERGARA
> Civil Victim eta Ras taldeak domekan gaztetxean

Civil Victim hardcore-punk thrasha egiten duen Alemaniako taldea da.

Domekan gaztetxean, 19:00etan. Sarrera: 2 euro.

ARRASATE
> Dayna Kurtz urriaren 4an Amaia antzokian

Kurtzek *American standard* diskoa aurkeztuko du Arrasaten. Talde *teloneroa* Blue Mountain izango da.

Sarrerak salgai daude *www.kutxa.net* webgunean, 10 eurotan.

Antzerkia

ARRASATE
> 'Munstroak akatu' haurrendako ikuskizuna

Teatro Mutarteren eskutik.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

Erakusketak

BERGARA
> Kirol argazkiak Aroztegin

Udalak antolatutako kirol argazki lehiaketako irudirik onenak ikusgai.

Irailaren 27ra arte. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

ARETXABALETA
> Pintura ikastaroko ikasleen erakusketa

Urtean zehar pintura ikastaroan egindako lanen erakusketa jarri dute ikusgai Arkupe kultura etxean.

Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan 11:00etatik 13:00etara. Domeketan eta jaiegunetan itxita.

ARRASATE
> Reuters, munduari begira

Reuters agentziako argazkilarien irudiak.

Kulturaten, urriaren 18ra arte. Martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

OÑATI
> Artzain-txakurren lehiaketako kartelak

Oñatiko nazioarteko artzain txakurren txapelketak 50. ekitaldia beteko du aurten.

Txapelketa iragartzeko kartelen erakusketa antolatu dute Oñatin.

Kultura etxean, irailaren 27ra arte. Martitzenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara.

Ikastaroak

ARRASATE
> Dantza garaikidea Arrasate Musikalen eskutik

Jana Fuente ballet irakasleak emango du ikastaroa Arrasate Musikalen, Monterron jauregian. Eguaztenetan, 20:00etatik 21:00etara.

Interesatuek Monterrongo Musika Eskolara jo dezakete, aste barruan 16:00etatik 20:00etara. 14 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroa da. Urriaren 5ean hasita.

ARRASATE
> Eskulan ikastaroa eta orratz lanena irailaren erdialdetik

Eskulan ikastaroa Bea Arregik emango du, abenduaren 23ra bitartean, martitzenetan, 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara; orratz lanen ikastaroa Asun Mendizabalek, abenduaren 17ra arte, eguenero, 15:00etatik 17:30era.

Argibideak Ekin Emakume Elkartean, 943 79 83 70 telefono zenbakian.

ARETXABALETA
> Hainbat ikastaro Arkupen, irailetik aurrera

Idazketa tailerra Karmele Igartuaren eskutik; pintura; bainika; eskulanak; eta zeramika.

Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

ANTZUOLA
> Eskulan ikastaroa

Astelehen eta eguen arratsaldeetan, 14:30etik 16:30era, Edurne Uribesalgo irakaslearekin. Urriaren 1etik aurrera.

Izenematea udaletxean edo *kultura@antzuola.net* helbidean.

ARRASATE
> Hainbat ikastaro antolatu ditu Emakume Txokoak

Sendabelarren ikastaroa; ijito dantzak; zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa; gorputzaren mugimendu kontzientea lantzeko ikastaroa; arte dekoratiboa; euskal dantzak; yoga; pilatesa; euskara; eta emakumeak eta osasuna: menopausia.

Izenematea irailaren 30era arte zabalik. Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 zenbakian.

BERGARA
> Pintura eta marrazketa ikastaroa haurrendako

Bearten lokalean 5-16 urte bitartekoendako pintura eta

PROPOSAMENA

ARAMAIO
> Sagardo Eguna egingo dute domekan

Domekan, eguerdian hasita, Sagardo Eguna ospatuko dute Aramaion. Trikitilarien kalejira izango da 11:30ean eta jarraian bertsolarien agurra, Aramaioko Sagarzalien Elkarteko lehendakariaren agurra eta txotxa Blanca Mendialduarekin. Txotxaren ondoren, Aramaioko sagarzaleek egindako sagardoa dastatzeko aukera izango da. Era berean, herriko produktuekin lagunduta taloa izango da.

Aramaion, domekan, 11:30ean hasita.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.
- Irailak 26: 18:00tan gaztelaniaz. Irailak 27: 12:00tan euskaraz
Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.
- Irailak 26: 15:30etan frantsesez. Irailak 27: 13:00etan gaztelaniaz
Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
- Irailak 26: 13:00etan gaztelaniaz. Irailak 27: 17:00etan euskaraz
Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
- Irailak 27: 15:30tan frantsesez
Kartoizko suziriaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa
- Irailak 26: 17:00etan euskaraz. Irailak 27: 18:00tan gaztelaniaz
Eboluzioa: Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu
- Irailak 26: 12:00tan

ETA GAINERA...

Elektrizitate ikuskizuna: Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia
Irailak 26: 12:00 eta 16:00
Irailak 27: 12:30 eta 16:00

Planetarium Txikia: 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten.
Irailak 26: 12:45, 16:15 eta 17:45
Irailak 27: 12:00 eta 16:45

Esperimentuak zuzenean: Irailak 26an eta 27an, 18:15ean

Eskulanak haurrentzat: Irailak 26 eta 27an, 17:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

marrazketa ikastaroak. Astelehenetan 17:00etatik 19:30era edo zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

Izenematea zabalik dago. Argibideak 653 71 53 82 (Mayra) eta 635 71 32 69 (Maite) telefono zenbakietan.

ARETXABALETA-ANTZUOLA

> Trantze sakratuaren erritmoak, Jaiki elkartearekin

Urriaren 10ean eta 11n Antzuolan; urriaren 13an, 14an eta 15ean Aretxabaletan.

Izenematea eta argibideak jasotzea: 618 04 67 43 (Paco, Aretxabaleta) eta 660 79 85 15 (Arantza, Antzuola). Plaza mugatuak.

Hitzaldiak

ESKORIATZA

> 'Larruazalaren zahartzea' hitzaldia hilaren 28an

Marisol Rebollo estetizistaren eskutik. Amuska elkarteak antolatuta.

Irailaren 28an, kultura etxean, 18:30ean.

Lehiaketak

ARRASATE

> Santamas irudi lehiaketa

Santamas Komisiñuek Santamas irudi lehiaketarako dei egin du. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia ere bada: egileek kartelaz gain eskuorrirako zein kartel bateraturako (Santamasetako ekintzarik garrantzitsuenak agertuko diren kartela) proposamena egin ahal izango dute. Lehiaketa edozein arrasatearri zuzenduta dago eta urriaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak BAZen.

http://santamasirudilehiaketa.blogspot.com.

DEBAGOIENA

> Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa

Zugaz.com-ek martxan jarri du Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa eta jasotako argazki zein bideo guztien arteko onenarentzat Eroski hipermerkatuak emandako Wii bat oparituko dute.

Argibideak ondoko webgunean: *http://goiena.net/blogak/kantari/*

ANTZUOLA

> XV. Argazki lehiaketa

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Lanak jasotzeko epea urriaren 30era arte dago zabalik.

Argibideak Antzuolako udaletxean, 943 76 62 46 telefonoan.

DEBA

> Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute.

Proiektuak abenduaren 1era arte jasoko dituzte: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba. Argibideak 943 19 28 40 telefonoan.

Zinema

El secreto de sus ojos ***

Zuzendaria: : Juan Jose Campanella.
Aktoreak: Ricardo Darin, Soledad Villamil, Pablo Rago. 127 min.

Zinema areto komertzialetan gaur estreinatzen bada ere, Zinemaldian domekan ikusteko aukera izan genuen. Eta han izandako harrera oso ona izan da kritika eta ikusleen aldetik; orain bakarrik epaimahaiaren erabakia jakitea falta da... Gidoia, aktorea, ez dakit zer, baina Campanellaren sariren bat lortuko du filmak.

Zuzendari argentinarrak kontatzen digun istorioa 25 urtean zehar gertatzen den *thriller* erromantikoa da. Epaitegi bateko langileak bortxaketa-hilketa kasu bat ikertzen murgilduko dira. Epaitegian pertsona ezberdinek lan egiten dute eta euren artean amodio, laguntasun eta lehia harremanak gertatuko dira. Ikerketak oztopo ugari izango ditu, 70eko hamarkadako Argentinan gaude, eta diktadura eta ustelkeria usaindu daitezke. Intriga, ezkututako amodioa eta umorea ere ondo nahastuta daude ondo landutako gidoian. Argi eta garbi ikusten da distira eta sendotasuna elkarrekin joan daitezkeela. Ondo landuta daude istorio nagusian gertatzen diren azpi-istorio guztiak eta denboran atzerantz eta aurrerantz gertatzen diren jauziak. Sarritan halako egitura erabiltzeak istorioen erritmoa hausten du, baina hemen oraina eta lehena batzen dira 25 urteko istorio bat azaltzeko. Eta horri guztiorri elkarrizketa eta pertsonaien deskribapen egokia gehitzen diogu, eta zuzendari eta aktoreen arteko elkar ulertze nabarmena: zuzendariak aktore bikainen keinu guztiak jasotzen ditu pertsonaien ezkutuko sentimenduak ezagutarazteko, orduan distira agertzen da. Eta Campanellaren estiloa nahiko neurritsua bada ere, ikusgarritasunarekin ere jokatzen du: futbol zelaiko eszenak filmatzeko orduan, esate baterako.

Agian eszena batzuk gehiegi luzatuak daude, baina orokorrean Campanellak trebetasunez eta sendotasunez erabiltzen ditu osagai guztiak *thriller* erakargarri eta dotore bat burutzeko.

Antonio Zabala

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Enemigos públicos
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Ice Age 3: el origen de los dinosaurios
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Resacón en Las Vegas
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

Australia
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

Misión en Mocland
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

GURIDI

Malditos bastardos
16:55, 19:45, 22:35.

La noche de su vida
17:45.

Resacón en Las Vegas
20:00, 22:30.

San Valentin sangriento
17:30.

Up
16:55, 18:45, 22:20, 22:30.

Enemigos públicos
17:00, 22:00.

District 9
17:30, 20:00, 22:30.

El soplón
17:30, 20:00, 22:30.

Los sustitutos
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

FLORIDA-GURIDI

Qué les pasa a los hombres
17:30, 20:00, 22:30.

Mapa de los sonidos de Tokio
20:00.

Amazing Grace
18:00, 20:15, 22:30.

Gordos
17:30, 20:00, 22:30.

Flores negras
17:30, 22:30.

Frozen river
18:00, 20:15, 22:30.

Los hombres que no amaban a las mujeres
19:15, 22:15.

RH +
17:30 (euskaraz).

El secreto de sus ojos
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik eguenera.

YELMO CINEPLEX

Oceanworld
(3-D emanaldiak)
17:30, 19:15, 21:00.

Mapa de los sonidos de Tokio
22:30, 00:30.

Malditos bastardos
15:30 eta 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:00, 21:30, 23:00, 00:30.

Up
(3-D emanaldiak)
15:30 (zapatuan eta domekan).

Up
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30.

San Valentin sangriento
(3-D emanaldiak)
22:45, 00:45.

Ice Age 3: el origen de los dinosaurios
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:35.

Harry Potter y el misterio del príncipe
16:50 (zapatuan eta domekan).

Resacón en Las Vegas
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Jennifer's body
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Los sustitutos
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Gordos
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Los hombres que no amaban a las mujeres
19:30, 22:05, 00:40.

Pequeños invasores
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:05.

El secreto de sus ojos
16:05 (zapatuan eta domekan), 18:45, 21:40, 00:15.

Qué les pasa a los hombres
19:35, 22:00, 00:25.

Expediente 39
19:50, 21:55, 00:05.

La proposición
16:20 (zapatuan eta domekan).

Enemigos públicos
19:00, 21:35, 00:05.

School Rock Band
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:30.

District 9
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Egubakoitzetik eguaztenera. Gauerdiko emanaldiak zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

Shorts: la piedra mágica
17:00.

Malditos bastardos
15:50, 16:30, 18:50, 19:30, 22:00, 22:30.

San Valentin sangriento
16:10, 18:15, 20:25, 22:35.

Up
16:20, 18:20, 20:20.

Resacón en Las Vegas
16:00, 18:05, 20:15, 22:25.

Gamer
20:30, 22:25.

Qué les pasa a los hombres
16:30, 19:30, 22:15.

Año uno
16:15, 18:20.

Agallas
22:20.

School Rock Band
16:05, 18:15.

Enemigos públicos
22:00.

District 9
16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

Expediente 39
20:20, 22:30.

Jennifer's body
16:05, 18:10, 20:20, 22:30.

Los sustitutos
16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

Irailaren 27tik urriaren 1era.

Resacón en Las Vegas
Zuzendaria: Todd Philips. AEB, 2009. 90 minutu. Ezkondu aurretik, gazte batek eta haren hiru lagunek sekulako parranda egingo dute Las Vegasen. Baina ondorioak ekarriko ditu horrek: hurrengo egunean ez dira parrandan gertatutako ezertaz gogoratzen eta hori gutxi balitz, ezkontzear dagoen laguna galdu egin da Las Vegasen... Gauzak oraindik gehiago okertzeko hoteleko logelan tigre bat eta haur bat azaldu dira....

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

Transformers 2
AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay.
Bi urte pasatu dira Sam Witwickek unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean,. abentura berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

San Valentin sangriento
AEB, 2009. Zuzendaria: Patrick Lussier.
Jaioterrira itzuli da Tom, San Valentin egun batez gertaturiko sarraskiaren 10. urteurrenean. 1981ean estreinaturiko filmaren *remake* hau hiru dimentsiotan ikusteko aukera dago Euskal Herriko zenbait aretotan. Jensen Ackles eta Jaime King aktoreak dira protagonista nagusiak.

District 9
Zeelanda Berria-Hego Afrika, 2009. Zuzendaria: Neill Bloomkamp.
Estralurtarren ontzi erraldoi batean Lur planetara helduko dira, Hego-afrikako Johannesburgo hirira, baina errefuxiatu gisa. Estralurtarrak kontzentrazio esparru moduko batean sartuko dituzte eta apartheid erregimena ezarriko diete.

Gordos
Espainia, 2009. Zuzendaria: Daniel Sanchez Arevalo.
Irautearen inguruko komedia koral bat da Daniel Sanchez Arevaloren (*Azuloscurocasinegro*) azken filma. Gizentasun arazoekin obsesionatuta dauden lagun batzuk dira protagonistak. Antonio de la Torre, Raul Arevalo eta Roberto Enriquez aktoreekin.

Ponyo en el acantilado
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

Mishima: una vida en cuatro capítulos
AEB, 1985. Zuzendaria: Paul Schrader.
Paul Schrader-ek 1985eko Canneseko Jaialdian aurkeztutako filmaren bertsio berritua eta definizio altuan iritsi da zinema aretora. Yukio Mishima idazle japoniarraren biografia kontatzen du. Mishimaren azken egunetik abiatzen da, 1970eko azaroaren 25etik, haren haurtzaroraino jauzi eginez.

nire aukera

Beatriz Igartua
Olaiturri kultura elkarteko kidea

Azken entsegua zapatuan

Olaiturri kultura elkarteko kideek *1542 Oñatiko Hitzarmena* izenburuko antzezlana aurkeztuko dute martitzenean, San Migel egunean, Oñatiko Foru plazan, 18:30ean. Maiatzaren hasieran ekin zioten antzezlana prestatzeari eta bihar, zapatua, egingo dute azken entsegua, Txantxiku ikastolan. 70 lagun inguruk hartuko dute parte antzezlanean.

Beatriz Igartuak Maria Mendizabalen rola egingo du; "Hernani etxeko *señora* bat, unibertsitatea egin baino lehen bere etxea eskolak emateko prestatu zuena. Jakinduria eta kultura bultzatzea eta kondeari kalte egitea zen haren helburu nagusia".

Dena gertu martitzenerako?
Bai; zapatu arratsaldean azken entsegua egingo dugu antzezlanean erabiliko ditugun jantziekin, epokako arropekin. Dena gertu dago eta martitzenean eguraldiak laguntzea baino ez da falta... Orain bost urte, *Anexiñua* antzeztu genuenean, arazoak izan genituen megafoniarekin, baina oraingoan dena ondo aterako da.

Zer izan da zailena antzezlana gertatzeko orduan?
Testua memorizatzea, beharbada, gure historia ezagutzea eta testua buruz ikastea. Baina behin gustua hartuz gero, gozamen hutsa izan da. Gainera, primerako giroa izan dugu partaide guztion artean. Makalena gastronomia elkartetik elkar ezagutzen genuen aurretik eta harremana sendotzeko balio izan du. Gogorrena zera izango da: gurekin ibilitako hainbat lagun ez daude dagoeneko gure artean eta haiekin akordatuko gara, ziur. Haiei eskainitako emanaldia izango da.

Oñatiko jaietatik gehien atsegin duzuna?
Jaiak beti dira espezialak, baina, beharbada, Herri Eguna azpimarratuko nuke, oñatiarrondako oso egun berezia delako. Jaiekin disfrutatzea eta denok bakean egotea, horixe da nire nahia.

Edu Mendibil

Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-09-25

Cibelesen lehen pausoak

NORA URKIA Diseinugile bergararrak lehen aldiz aurkeztu ditu jantziak Madrilgo Cibeles ibiltokian

OIHANA 'Selva de asfalto' izenpean safarian oinarritutako gasazko arropa nasaiak diseinatu ditu

HANDITASUNA Sona handiko diseinugileen lanekin gozatu du Nora Urkiak Cibelesko ikuskizunean

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Cibeles moda ibiltoki entzutetsuan aurkeztu zuen joan den egubakoitzean Nora Urkia diseinugile bergararrak 2010eko udaberri-udarako *Selva de asfalto* izeneko jantzi sorta. Safarian inspiratutako gasazko soineko, praka, jaka eta blusa nasaiak daude bilduman, oihaneko animalia eta landare irudietan oinarrituak.

Moda adituen kroniken arabera, 80eko hamarkadara itzulera proposatu du diseinugile gazteak mahukak murriztuta eta bolumenak puztuz. Moda adituek, gainera, Estatu mailako diseinugile gazte interesgarrienen artean kokatu dute.

Ekainean amaitu zituen moda ikasketak eta Nora Urkiaren jomuga zen urtebeteren buruan Madrilen egotea. Amestu eta ametsa bete; helburua lortu du. "Niretzat saria izan da aukeratutako hamarren arteko bat izatea. Gainera, instalazioak, modelo onak... profesionaltasun handia dago eta emaitza beste modu batean ikusten da", esan digu.

MODA IBILTOKIA Tigre, flamenko eta elefante irudiekin Nora Urkiak diseinatutako jantziak eraman zituzten Cibelesen. IMAGE.NET

CIBELES IKUSKIZUNA

Cibeles "sekulako ikuskizuna" dela esan digu Urkiak eta bera "handitasun horretan, neurri batean, inurrien pare" sentitu dela. "Betiko sona handiko diseinugileen artean beste bederatzi diseinugile gazterekin batera han egotea berezia izan da. Gainera, askotariko arropak ikusteko aukera izan dut bertatik bertara eta hori polita izan da", dio.

Cibeleskoa Nora Urkiaren moda ibiltokian pauso bat gehiago izan da eta aurrerantzean zer egingo duen oraindik ez daki. Urkiaren esanetan, "urtero bi bilduma ateratzea oso zaila da, azpiegitura handia behar delako. Hortaz, irtenbidea litzateke kanpora joatea edo gustuko dudan diseinugile ezagunen batekin lan egitea. Horrela, lana eta sorkuntza uztartuz gurako nuke hurrengo urterako beste bildumaren bat atera".

Oihanean oinarritutako jantziak aurkeztu eta modaren oihan ikusgarri bezain arriskutsuan murgildu da Nora Urkia.

ahobero

"Telecincok oso gaizki ordaintzen zidan eta, gainera, 'friki' bihurtu nahi ninduen"

Efren Reyero > 'Mujeres y hombres y viceversa'-ko lehiakide ohia

Friki bihurtu nahi zutela dio, baina horrelako saio batera joateko ez zen nahiko *friki* aurrez? Eta *friki* izate hutsarengatik gutxi ordaintzen ziotela esateko lotsarik ere ez zaio falta. Asko gura duenak dena galtzen omen du; lotsa, behintzat, bai.

iturri onetik

Berriz ere izango da moto-kros txapelketa Bergaran urriaren 10ean eta 11n

Joan den aste bukaeran jokatutako Bergara Hiria Euskadiko Moto-kros Txapelketaren ostean ikuskizun gosez geratu zirenek aurki izango dute beste aukera bat motokrosaz gozatzeko. Izan ere, urriaren 10ean eta 11n Bergaran jokatuko da Aragoiko, Nafarroako, EAEko, Errioxako, Gaztela eta Leongo eta Kantabriako moto gidariak lehiatuko diren lehen motokros txapelketa.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Mugikortasuna

Astea eskaini berri dio Arrasatek mugikortasun iraunkorrari. Ez da txarra, ez badigu ahantzaraziten aspaldian norabide horretan egin diren atzerapausoak. Esaterako, neroni ibili nintzen duela 15 bat urte gerora AP-1 izango zena eztabaidatzeko gune parte-hartzaileetan bidegorria defendatzen. Europa aurreratuenean bezala, autoentzat errepide azkarra egiten den aldiro ondoan oinezkoentzat eta bizikletentzat bidea egitea eskatu genuen arrakastaz. Bide azkar eta ordainduzkoa hor dago, bide lasai eta doanekoa ez.

Sasoi bertsukoa da tranbiaren asmoa ibarrean, mugikortasun arrazoizkoa bultzatzeko metro baten antzera. Ba hau ere izoztuta dago eta ezin dut ulertu zergatia. Horregatik diot: kontzientziazio asteak bale, ekintzak nahiago.

ai, ene!

Telefonoz berba egiteko eraztunak

Telefonoz ari garen itxura maiz egin dugu atzaparrekin. Orain aukera dago eraztunokin batetik entzun eta bestetik berba egiteko.

www.nopuedocreer.com

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak